

Zuzendaritza: **Luis Antonio Bilbao Monasterio** (kazetaria), **Joan Mari Torrealday****aurkibidea**

	Zenbaki honetan	3
GURE ERITZIZ	JAKIN, hogei urte geroago	5
	Euskal Unibertsitatearen izarra	8
EUSKAL UNIBERTSITATEA	J. A. Artamendi Mugerza	
	Unibertsitatea dela eta	12
	J. L. Lizundia	
	Euskal Unibertsitatearen aurrehistoriaz	27
	J. M. Larrazabal	
	UEUtik Euskal Unibertsitaterako bidean	36
	J. M. Torrealday	
	Kultur minorien (udako) Unibertsitatea	45
	Idazkaritza	
	Euskal Herriaren Unibertsital egoera	53
	K. Mitxelena	
	Unibertsitatea eta Irakaskuntza gure artean ...	56
	K. Santamaria	
	Unibertsitateko kulturaz	67
	P. Agirrebaltzategi	
	Biharko Euskal Unibertsitatea	72

ORAIN ETA HEMEN	P. Gaztelu	
	L.A.B. Euskal Langileen indar berri bat	92
	J. Lekerika	
	Ekialdean ere bada zerbait usteldurik	93
	J. Altzibar	
	Diputazioak Euskal Herrian	94
	M. Pagola	
	Garaudy gure artean	95
	J. Lekerika	
	Alderdi politikoak eta dirua	96
	J. Larrinaga	
	Politika ekonomiaren aurka?	97
	P. Uribarren	
	Euskal Eliza: aukera berri bat	98
GAIAK	J. Azurmendi	
	Irlanderaren paraderoa	100
...HAINBAT ABURU	Joxe A. Otaegi	
	PNV eta euskal indarren batasuna	117
LIBURUAK	I. Sarasola	
	Sail honen asmoa	123
	J. M. Torrealdai	
	Euskal liburugintza 1976an	124
KULTUR BIDEETAN	Talde batek	
	Unibertsitateetako Euskal Kultur Mugimenduak, Bizkaian	130

Idazkaritza eta administrazioa	Soldadu kalea / Cuartel, 2 Tolosa (Gipuzkoa)
Jabegoa	Anaidia, Arantzazu
Dep. Leg.	S. S. 25/1977

ZENBAKI HONETAN

Hona *Jakin* berrituaren lehen zenbakia. Administrazioak beharturiko zazpi urtetako isilaldiaren ondoren, sorreratik 20 urtetara, postfrankismo honetan, berriz plazaratzen gara. *Jakin*-ek euskal kultur mugimenduaren azterbide eta eragile izan nahi luke.

Liburuen eta astekariaren arteko hutsuna bat betetzera dator *Jakin*. *Jakin*-en tankerako aldizkari batek badu bere berea duen eginkizuna, ez liburuak, ez astekariak bete dezakeena. Astekariaren arintasuna eta bizitasuna, liburuaren seriotasuna eta sakontasuna: bien arteko ezkontza izan nahi luke *Jakin*-ek. Kultur-, pentsamendu- eta saio-aldizkari kritikoa izanen da.

Dugun asmo hori aurrera eramateko, zenbaki gidatu edo zentratuak eginen ditugu. Zenbaki bakoitzak gai nagusi bat izango du ardatz bezala. Eta ikuspuntu eta azterpegi askotatik begiratuko diogu. Gai-ardatz hori, gainera, kontseilari baten laguntzaz eratuko da; Euskal Unibertsitateaz, kasurako, Paulo Agirrebaltzategi izan da kontseilari hori.

Monografia horren laburpenak espainolez eta frantsesez eman nahi ditu, bestalde. Zertarako? Gure azterketa-moduari begiratzeko, kanpokoek ere leiho tipi bat, besterik ez bada, ukan dezaten; eta batez ere, gainontzeko kultur minoriekin, nolabait bederen, harreman-modu bat sortu nahirik.

Monografia edo dossierrarekin ez da agortzen aldizkaria. Aurkez ditzagun, llaburki bederen, gainerako sailak:

Gure eritziz izenekoan, editorialeak agertuko dira, hainbat gairi buruz eta bereziki gai nagusiaz. *Orain eta hemen* sailarekin arintasuna, bizitasuna, gaurkotasuna lortu nahi genuke, iruzkin edo komentario bizi, biperdun eta llaburren bidez. *Gaiak* sailean, artikulu sakonak emanen ditugu. ...*hainbat aburu* sailean, aldiz, tituluak aditzera ematen duenez, pentsaera desberdinetako idazlanak agertuko genituzke. *Kultur bideetan* sailari inportantzia berezia dagokio gure ustez; euskal kulturaren au-

rrerakuntzan hain munta handia ukan duten zenbait talde, mugimendu eta erakunde azalduko bait dira hor. *Liburuak* deitu sailak ere badu garrantzirik. Ibon Sarasolak eramango du sail hau, eta hiruhilabeteroko liburuen kritika zorrotza eta gidatzailea egiteko asmoa du.

Bada beste sailik ere, premia sortu-ala irekiko denik: gutunentzako, agirientzako, mahain-inguruentzako, albisteentzako, oharrentzako, eta abar.

Lehen zenbaki honetan, Euskal Unibertsitatea plazaratu nahi izan dugu gai negusi bezala. Azterketa berezi bat eskaini nahi izan diogu; horrexegatik, gaiaren gaurkotasunagatik, inportantziagatik, sail honi normalki dagokion baino orrialde gehiago eman diogu Euskal Unibertsitateari. Modu eta era askotara ikusi nahi izan dugu Euskal Unibertsitatea, arazo historiko, kulturazko, politikazko, irakaskintzako bezala. Unibertsitatearen helburuak eta gizarte- eta kultur-funtzioa estudiatzen ditugu; Euskal Unibertsitatearen historia, egoera, ekintzak ikus-abartu nahi izan ditugu; gure ustezko helburuak eta bideak ere agertzen ditugu. Hitz batez: izan duguna, duguna, eta nahi genukeena. Behar duguna.

Jose Azurmendik Irlandaraz planteatzen duen arazoak badu muntarik franko: gaur-gaurkoa da, eta gure geurea izan daiteke. Alderdi politikoentzat bada hor pentsagai ederrik, zeren eta gure arteko politik alderdi eta olde zenbaitetan arrisku beretsuak nabari bait daitezke.

...*hainbat aburu* sailean eritzi libreak emanen ditugu. J. A. Otaegik, oraingoan, euskal politikagintzako arazo larrienetako bat aztertzen du.

Behin eta berriz entzuna dugu, Unibertsitate inguruko kultur erakundeen berri; baina inoiz gutitan jakin dugu elkarte horik zer diren zehazki. Azterketa bat egin ordez, nahiago izan dugu informazioa bildu. Bilbo eta ingurukoa, oraingoz. Nork bere aurkezpena egin dezan eskatu diogu.

Liburuen sailean, Ibon Sarasolak bere asmoaren berri ematen digu, liburu kritikan zernola jokatu duen adieraziz. Gero, ihazko liburuen zerrenda ere ematen dugu, azterketatxo batez lagundurik, euskaltzalearen laguntzarako.

JAKIN, hogei urte geroago

Bukatu berria dugun urtearekin bete ditu Jakin-ek bere lehenengo hogei urteak. Ez da adin txarra ekintza berri eta handiagoei ekiteko. Ikusten denez, asmo horrekintxo gatoz... Baina, geroaren bila goazela, zergatik ez murgildu poxi bat bizi izandakoen oroitzapenetan ere?

Euskaltzaindiaren gerrateondoko lehenen Biltzarre irekia egin zenean, irten zen plazara Jakin aldizkaria. Lagunarteko giro gozoa aurkitu zuen haur jaioberriak, 1956ko udazken hartan. Gogora ditzagun orduko gidariak: Fernando Mendizabai, Iñaki Bereziartua eta Iñaki Bastarrika. Orduantxe bertatik ekarri zituen luma berriak: Garatetar josulaguna, Osa laterandarra, Baztarrika beneditarra... Agian, orain bitxiak gertatzen zaizkigun elkar-lanak ziren haik.

Gazteen plazaratze hura, garaiko ingurumarian ikusi beharra dago. Bi aldizkarik zeramaten urte haietako gidaritza: lehen-lehenik Guatemalako «Euzko-Gogoa»k, eta Donostiago «Egan»ek. Urte guti barru, herbestearen mugek irentsiko zuten lehenengoa; «Egan»ek, ostera, orduantxe hasi zuen bere emanik beteena.

Orduko gazteok pozik irakurtzen genituen bi aldizkariak. Ez zen ereintza galdua hura. Baina, guk etxe barneetan ginharduen lanak argitara irten nahi zuen, eta gure luma apalarentzat zaila zen orrialde haietan lekurik topatzea. Hortaz gain, komentuete eta apezgaitegietan amets genituen egitekoek erabili gabeko gaiak eskatzen zizkiguten. Aipatu ere laster aipatu genuen, zaharragoek

agian sinestatzen ez zuten euskal Unibertsitatea ere. Izan-nahi eta berrikuntza-gogo bati erantzun nahi zitzaion: lehendikakoari eutsi nahia, geroari egokitu mina. Hoi zioen ale hark:

Gogo bat daramagu. Euskal-gogoa irarri zigun Yainkoak. Damuz, baño, **gogo** au aul da gugan. Txikitandik utzi genuan euskal-giro ori, eta ordutik erdalats indartsu batek inguratzen gaitu, beste kultur-ats bat... Edertu dezagun geure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu. Saia gaitzen edotariko gai ta arazo euskaraz erabiltzen.

Egungo tontoretik begiraturik, argi dago dei hura puntu-puntu egin zena. Euskal alfabetakuntza Eliz-etxeetan bakarrik zen posible, eta hantxetik etorri beharko zuten idazle berriek: lehenengo hamar aleetan 52 firma berri agertu ziren, 9 ikastetxetatik eta 111 lanekin.

1960ko urteak esanahirik handiena ukan zuen, orduan nabarmendu bait zen belaunaldien arteko etena. 1959-1961eko urteetan gordinik agertu zitzaigun eztabaidan, Jakin-ek etorkizunaren alde jokatu zuen, egiteko bikain eta premiazko baten alde: euskara kaletartu eta kultura osoa —maila eta mueta orotako jakitekoetan— euskalduntzearen alde. Eginkizun hori oso argi ikusi dugu beti, eta, une bakoitzean, idazlan konkretuetan mamitu nahi izan dugu. Denboraren etorriari garaian garaiko erantzuna eman nahi izan diogu, eta halaxe egin zen 1960an ere.

1961eko urtarrilean inprentara zen, anartean polikopia-tua azaltzen zen aldizkaritxo. Han poza... eta honagoxe atsekabea: baimenik gabe genbiltzanez, debekatu egin ziguten berehala. Hala gertatu zen Jakin-en lehen isilaldia. Hala ere, taldeek ez zuten lana baztertu.

1964ean berriz ere jendartean zen argitalpena. Eraberritua, komentuetxeetatik kanporako aldizkaria. Gizon eta aurpegi berriak ere agertu ziren, redakzioa ere beste giro batean zebilen. Donostian lekutu zen Redakzio hau 1968an. Jakin aldizkariaren urterik onenak izan ziren 1964etik 1969rainoko haik. Eta onenean geundela, gobernariaren erabakia: agertuak ziren idazlan batzurenatik ukatu egin zitzaion Jakin-i legearen babesa. Ez zegoen, beraz, aldizkari-rik.

Azken triste hori gorabehera, beteriko lanean aipatu beharra dago Jakin-ek euskara batuaren alde egindako lana. Honen historiari, ez da hau ohorerik ttipieneta-

koa. Bera izan zen 1964eko Baionako Erabakiak onartu eta betearazi zituen lehen aldizkaria.

1969an, beraz, aldizkako publikaziotan jarraitzerik ez zenez, errebista inguruan sorturiko taldea liburugintzara pasa zen. Gaur arte jarraitu dugu lan horretan, ustez euskal kulturaren abiada bizkortuz. Liburuak egitea bai, baina kultur animazioan ohitura berriak sortzea ere izan da gure asmoa; hona bien fruitu zori: Natur Zientziak. Hiztegia, «Jakín Hiztegien» aitzindari.

1977aren atalburu honetan, gure jatorrizko langintzari heltzen diogu: aldizkariari. Hogeitaz urteren buruan plaza-ratzen da atzera. Berritua nahi genuke Jakín: izen bera, Euskal Herriarekiko atxekimendu eta egokitasun bera, ikuspegi ugariagoak, luma zailduak, gai biziagoak. Bide luzea egiteko asmoz abiatzen gara. Hogeitaz urtetako historiak frogatua utzi du, ez dugula lanaren eta burrukaren beldurrik. Hogeigarren urte honek, urte-muga baino gehiago, historia luzeagoaren epe berri baten hasera markatuko al du!

Kultur aldizkaria da Jakín. Kulturaz, herri baten biziera, lana, sentiera, pentsaera, jakitatea, jokaera, sentikortasuna ulertzen dugu. Ez du Jakín sail, eremu edo ikuspegi batek soilik bereizten. Sailak eta eremuak oro (soziologia, ekonomia, deretxoa, filosofia, erlijioa, zientzia, literatura, etc.) erabil genitzake; eta ikuspegi desberdinetatik begiraturik erabiliko ditugu. Kultur-, pentsamendu- eta saio-aldizkari kritikoa izanen da Jakín.

Lan-tresna bat da, beraz, Jakín, euskal kultur eta politik ekintzaileentzat, unibertsitariarentzat, alfabetatzaileentzat, irakasleentzat, idazleentzat, kultur-eragileentzat, kazetarientzat. Emango dituen azterketengatik, sintesiengatik, ikuspegiengatik eta izango duen seriotasunagatik, gaurkotasunagatik, orokortasunagatik, onuragarri dakioko euskal langintzan dabilen edozeini.

Euskal Herrian errotzen da Jakín, eta Euskal Herriako. 1960az geroztik herri honek sortu eta bereganatu duen dinamika berriaren joerak eta ikuspegiak bezala ekarriak, haintzat eta ontzat emanik abiatzen gara. Aurrera jarraitzeko asmotan abiatu ere. Bai. Euskal Herriko eta kultura unibertsaleko bide berriak, arazo biziak behin eta berriz tratatuko ditugu. Euskal kultura, lehenbait lehen kultura modernu bilaka dadin, eta kultura unibertsalak euskal kulturaren berezitasuna onar dezan.

Euskal Unibertsitatearen izarra

Aldizkari batek berriki idatzia du: «Universidad Vasca, objetivo torpedeado desde el siglo XIII». Beste batek lehentxeago idatzia zuen euskal Unibertsitateari eta Euskal Herriari buruz: «Bazuen, behar du, zor zaio». Hirugarren batek, beikorrago, eta Udako Euskal Unibertsitatearen esperentziari begira honela idatzi zuen: «Badugu Euskal Unibertsitatea».

Esaldi antinomiko eta paradajiko hauen barnean haserre bat nabari da, Euskal Herriari bere Unibertsitatea ukatu egin zaiolako, behin eta berriro eta mende oso batetan; eskabide zorrotz bat ipintzen da, aspalditik zor zaiguna eman diezaguten. Euskal Herriaren protesta eta eskabidea errepikatzen ditugu gaur ere. Eta berehalakoan euskal unibertsital barrutia eskatzen dugu, lehenbaitlehen, Euskal Herriak bere Unibertsitate osoa ukan dezan.

Euskal Herriak bere kinka historiko larrienetan, bere nortasunari eusteko eta bere etorkizuna irekitzeko, bere Unibertsitatearen premia nabari izan du, eta aurrez-aurre ipini izan du Unibertsitatearen jabe izateko gogoia eta asmoa. Ukatu egin zaio! Honegatik, beharbada, idazle batek, piztu eta itzali, agertu eta ezkutatu egiten den izar batekin alderatu du Euskal Herriak historian zehar daraman bere Unibertsitatearen ametsa, gogoia eta asmoa: behin piztu eta indartu, gero itzali eta moteldu, handik urte batzutara berriz ere biziago sortzeko. Baina honek badu bere azalpena: nahiz eta inork kanpotik eta gainetik itzali eta estali Euskal Herriaren Unibertsitatearekiko ametsa eta gogoia, errauspean bizirik dirau asmo berberak. Euskal Herriak erabaki du bere Unibertsitatea behar duela.

Gure Herriari, berak sortu eta eman dituen gizon «unibertsal» eta «ospatsuak» aipatzen eta aupatzen dizkiote,

zeharbidez haren «txokokeria» salatzeko edo. Gizon horietaz harro dago Euskal Herria! Baina, hain zuzen ere, gizon horien unibertsaltasuna ezezik, Euskal Herriarena, euskal gizon guztiena eta euskal kulturarena baieztatzen eta agertzeko, bere «Unibertsitatea» eskatzen du, benetako euskal Unibertsitate batetik gure jakintsuek, artistek eta herri osoak beren irekitasuna eta unibertsaltasuna nabari dezaten.

Euskal Unibertsitatearen izarra piztu da berriz, eta indartsu gainera. Oraingoan ez dago prest Euskal Herria uzteko, ezin du utzi —bere etorkizunerako garrantzi handiegikoa du une historiko hau—, ez du utziko inork izar hau itzal diezaion.

Unibertsitatea, irakaskuntz instituzio bezala, krisian dago mundu osoan. Astinaldi honetatik sortuko da Euskal Unibertsitate berria. Baina euskal Unibertsitatearen arazo Herri txikien unibertsital eta kultur arazoaren barnean ipintzen eta «argitzen» da bereziki. Unibertsitatea Herri «handien» eta kultura «handien» pribilegioa izan da, eta horien dinamika herri txikiei ezartzeko bidea. Unibertsitatearik gabe, herri txikien kulturak erkinduta eta itota bezala gelditu dira gaurko mundu modernuan. Horregatik ere herri txikien unibertsital baieztapena iraultzailea da bi aldetatik: horien kultur zapalkuntza astinduz, gaurko eta biharko munduan duten lekua baieztatu nahi duelako, eta ezarri zaien unibertsitate gainhartzaile hori ukatuz, munduko kultura guztiak eta herri kulturak bereziki onhartuko eta bultzatuko dituen Unibertsitatea baieztatzen duelako.

Badakigu, benetako euskal Unibertsitatea eman ez zaigula emango; guk geuk prestatu eta eskuratu behar dugu. Gehienik emango digutena ere, nolabaiteko euskal unibertsital barrutia izango da: orain arte ukatu digutena hau ere. Euskal Unibertsitatea, unibertsital barrutia baino oso haruntzago doala uste dugu.

Euskal Herriak, ikastola ez du eskatu, lortu egin du: euskal unibertsitatea ere lortu egingo du. Berak sortu behar du; eta horretarako bideak urratu: ahaleginez, etengabeko lanez, makurtu ezineko erabakiz, burruka luzez.

Honetarako, beharrezko dugu euskaldunok zer nahi dugun, noraino joan behar dugun, zein bide urratu behar, zein urrats eman behar dugun jakitea eta elkarrekin erabakitzea.

Ez da aspaldikoa, K. Mitxelenak gai honetaz nor bere eritzia eta jokabidea argi eta garbi —eta idatziz— argitu beharra azaldu zueneko, akordio ttikienera iristeko: «a un acuerdo sobre nuestro desacuerdo». Honetatik hasiko gara gure eritzien ezberdintasuna leuntzen eta beharbada batasunera bideratzen. Gauza batetan ados gara: geure euskal Unibertsitatea nahi dugula esatean. Eta gure ustez, Unibertsitate honen asmoak, bideak eta helburuak zehaztean ere elkartu eta batu gaitezke. Mitxelenak eskaturiko lehen urratsa ematen ari garela uste dugu: azken aldian artikulu asko idatzi da aldizkaritan euskal Unibertsitateari buruz. Bigarrena ematen hasi behar dugu.

Eritziak, asmoak eta helburuak bateratzeko —batasunera ekartzeko—, eta horik lortzeko bideak, epeak eta urratsak zeintzu izango diren erabakitzeko, euskal kulturgingintzan ari diren gizon, talde, elkarte eta instituzioek elkarganatu eta bateratu beharra ikusten dugu. Lehenbaitlehen. Pozgarria eta itxaropenezkoa iruditu zitzaigun Durangoko Liburu eta Diskoaren Azokaren egunetan egindako bilera. Euskal kultur indar asko bildu zen. Lehen urratsa, eta aurrera jotzeko asmoa eta erabakia.

Euskal kultur batzarrea sortu behar dela uste dugu, euskal kulturaren politika eta egitarau zehatz baten barnean eta bidetatik, kulturgingintza bateratu bat eraman dezagun kulturgingizon, talde, elkarte eta instituzio guztiok. Oinharri eta baldintza zabal batzuren inguruan, guzti horik bilduko litzuzke Euskal Kultur Batzarreak. Eta honen eskuetan egongo litzateke euskal Unibertsitatearako bideak irekitzea.

Honela, Udako Euskal Unibertsitatearen joan zen udako «Manifestua»-ren bigarren puntua oso gogotan hartzen dugu; eta Durangon emandako lehen urratsa oso garrantziko iruditzen zaigu.

Batzarre honetatik sortu behar litzateke, Euskal Unibertsitatearen oinharriak eta proiektu bat aztertu, landu eta proposatuko litzuzkeen Batzordea: Euskal Unibertsitatearen Batzordea.

Euskal Herriaren une larri eta erabakizko batetan ari gara. Horren etorkizuna gaurko munduan salbatzeko, geure euskal Unibertsitatea behar-beharrezkoa dugu. Nahi dugu. Badugu itxaropenik!



j. a. artamendi mugerza
j. l. lizundia
j. m. larrazabal
j. m. torrealday
idazkaritza
k. mitxelena
k. santamaria
p. agirrebaltzategi

EUSKAL UNIBERTSITATEA

Unibertsitatea dela eta

Unibertsitateak bere buruaz duen ikuspegia. Unibertsitatearen errealitatea. Gaurko krisia nola gainditu?

Euskal Unibertsitatearen aurrehistoriaz

Oinatiko Unibertsitatea. 1866ko EHko Unibertsitatearen asmoa. Eusko Ikaskuntzaren asmoa. Errepublika garaian. 1937an Unibertsitatea eraiki.

UEUtik Euskal Unibertsitateerako bidean

UEUren bilakamenduaz. UEU eta euskal politikagintza, erlazio pedagogikoak, ikerketa. Bide berriak.

Kultur minorien (udako) Unibertsitatea

Minoriak Europan: uste baino gehiago. Udako saioak. Unibertsitate berriaren oinarriak.

Euskal Herriaren unibertsital egoera

Lau unibertsital barruti. Hiru Unibertsitate, zenbait fakultate, eta beste. Hainbat hutsune eta gehiegikeria batzu. Euskal kultur gaiak, bazter gaiak.

Unibertsitatea eta Irakaskuntza gure artean

Oñatiko Unibertsitatea eta Bergarako Mintegia. Estatu eta irakaskuntza pribatua. EHko Unibertsitatea eta Euskal Unibertsitatea.

Unibertsitateko kultura dela eta

Kultura unibertsala eta partikularra. Unibertsitatea eta euskara.

Biharko Euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitatearen bila. Biharko Euskal Unibertsitatearen aukera. Irakaskuntza, euskara, euskal kultura, euskal gizartea. EH eta Unibertsitatea.

Unibertsitatea dela eta

J. A. Artamendi Mugerza

«Bi bide dira, alabok, zeinetatik joan baitaitezke gizonak aberats eta honest bilakatzeko: bata jakituria, gudaritza bestea».

M. de Cervantes: *D. Quijote de la Mancha*, IV, 151.
1604-1614 urteak

«Burgesiak, orain arte, ohoragarri eta begirune handiko zituen ekintzei, zuten ospea kendu egin die. Sendagile, legegizon, apaiz, poeta, zientzizizon, denak soldatapean jarri ditu».

K. Marx: *Alderdi Komunistaren Agiria*, 1. zatia
1848 urtea

«Produkzio indarren hazkuntzaren industri eredu batetan, gizonak ez du erabilketa balioa baizik. Lan indar soila besterik ez da. Zientzi eta teknik iraultzan aldez beste da, hain zuzen. Zientziaren edukina da, giza ihardunean integraturiko produkzio-indar den neurrian, azken ardatz bihurtzen dena. Zientziaren eta teknikaren aurrerapena, neurri handi batetan, gizonaren indar sortzaileen desarroiaren mailaren arauerakoa da eta, ondorioz, gizonaren beraren heinekoa. Ekonomi hazkuntzaren eta historiaren eboluzio orokorraren arteko harreman berri baten aurrean aurkitzen gara: gure garai honetako iraultza zientifiko eta teknikoaren giltza den harremanaren aurrean, alegia».

Radovan Richta: *La Civilización en la Encrucijada*
1968 urtea

Sarrera

Unibertsitatearen aldeko garraisia ahobetekoa da gaur. Eskabide horretaz gogoeta zenbait egin nahi dut, zer eskatzen eta oihukatzen dugun argitu asmoz. Gure eskabidea efektiboa izatea lortzearren.

«Izan badenaz» pentsa dezakegu eta gogoeta egin. Horrela jokatzuz, izan baden errealitateaz gainera, pentsamendu bat ukanen dugu errealitate horretaz.

«Ez den» baina izan daitekeenaz ere pentsa dezakegu. Parmenide ez zen honen zale, baina Platonek ematen du horren irtenbidea: «ez denaz» eta balitz bezala pentsatuz, eta geroago, ez denaren munduan eraikitako pentsamendu hori badenaren mundura erakarrit. Honela jokatzek arrisku bat du berekin. Ezeztapenik eta bikoiztasunik gabeko mundu ideal batean eraikitzen da projektua eta haik nagusi diren mundura eraman nahi da. «Esku gosetiz eta altxor handiak aurkitzeko ustez arakutzen du gizonak mundua, baina horien orde zizaretxo bat topatzen badu, pozik gelditzen da» (Goethe: *Fausto*).

Hori da gure arriskua. Etxe eder bat, aurrekalde dotore bat duelarik, eta gainean «Unibertsitatea» hitza ager dadila: ez du horrek hala denik esan nahi. Dekretu batek eta gure kultur ekintzetan mahainburu egiten duten pertsonen izendatze batek ere ez dute garantizatzen unibertsitatea denik.

Baldin gure kezka Unibertsitatea bada, horren hutsunea sumatzen dugulako da, eta gure artean ukatea nahi dugulako.

Gure gogoetak, orain dugun unibertsitateaz ala izan beharko lukeela uste dugunaz, izan daitezke. Bi joera hauek zentzuz jokatzek eskatzen digute.

Orain dagoen Unibertsitatea ezarri nahi badugu gure artean, agian hilda, ondo hilda eta usteltzeko zorian dagoen zerbait ezartzeko arriskua ez-ezik, gure Unibertsitate eskabideak sortzen direneko funtsa bera desegin eta hutsean uzteko arriskua dugu. Zaharra, baina oraindik bizirik dagoen eta bizi nahi duen Herri bat da eskabide hori egiten ari dena.

Baina izanik gabeko Unibertsitate batetan pentsatzen badugu, gerta daiteke, egitarau eder bat eraikitzea, baina arazoari erantzun bat emateko gai ez dena. Hala ere, Unibertsitate bat behar dugu guk.

Har dezagun lehen jarrera: Baden Unibertsitatea. Egun jakinetan sortzen da hau: 1808an Frantziakoa, 1810can Alemaniakoa.

Urte horietan, egoera sozio-politiko berezi batek sorrarazten du Unibertsitatea. Egun, bere sorlekuetan, gaitzak joa dago. Ez litzateke burubide zuzena, sortu zutenak berak beste berri bat eraikitzeko asmoz desmontatzen ari diren etxe bera jaso nahian ihardutea gu, 1976an. Burugabekeria dirudi, gaur bere gizarte neokapitalistaren beharrei erantzuten ez dien Unibertsitatea, eta bere sortzaileek, berarekin bi gizaldiz lan egin ondoren, alferrikakoa erizten dutena, guregana ekarri nahi izatea.

Arazoa gehiago radikaliza genezakeela uste dut. Unibertsitatea beha-

irezkoa baldin badugu, Herri bat garelako eta izan nahi dugulako da. Kaltegarri litzateke Unibertsitatea eta Euskal Herria elkarrengandik bereiztea. Herri bakoitzak bere erako soluzioak eman ohi dizkie bere arazoei. Eta honela jokatzan duen neurrian hats ematen dio bere izateari. Beren arazoak, beren erara aztertu eta erabaki dituzten herriek iraun dute Historian zehar. Kanpoko herrietan azterturiko arazoak bere egin eta haien arabera konpondu dituztenak, herri bezala galdu egin dira, edo bestean epigono edo dialektu bihurtu dira. Zalantzarik gabe, herri guztiek dituzte elementu komunak, baina ezin uka daitezke egitura komun horien artean bereiztasunak sortzen dituen herria dela irauten duena.

Unibertsitatea, herri eta, zehazkiago, klase jakin batzuek erabiltzeko tresna bat da. Tresna hori gure artean besterik gabe onartzea, unibertsitateari eman nahi diogun zentzua, hau da, Euskal Herria, galtzea litzateke: epe luze edo motzera, heriotza ekar liezaiokkeen tresna bat gure artean ezartzea bait litzateke.

Bigarren jarrera, maximalistena litzateke. Den bezalako Unibertsitate bat proposatzen dutenen ondoan, guk, unibertsitaterik ez dugunok, tresna ezin hobea bat eraikitzea nahiko lukete hauek. Benetan, etxe ederrik gabeko lur saila ukatea, onuragarri zaigu. Baina ez da kalte ttipia, etxe batzu eraikita edukitzearen esperentziarik eza.

Hori horrela dela, gure pentsamenduak bi bide ezberdinetatik joan beharko lukeela uste dut; «ez denak» orain «badena» argituz, eta orain «baden»etik hasita «izan behar duena» pentsatuz. Eta «izan den» eta «baden» honek izan behar du gure abiaburua.

I. UNIBERTSITATEAK BERE BURUAZ DUEN IKUSPEGIA

Berkeley: 1966, Abendua. Berlin: 1967, Turin: 1967, Azaroa. Paris: 1968, Maiatza. Krisia lehertzen da Unibertsitatean.

«Pertsona bat, berak bere buruaz duen ideien arauera epaitzen ez den bezela, krisian dagoen aro bat ezin daiteke epai, berak bere izateaz duen kontzientziaren arauera; aitzitik, beharrezkoa da, kontzientzia hau bizitza materialaren kontradikzioen bidez adieraztea» (K. Marx: *Contribución a la crítica de la economía política*. Prefacio). Baina, ez derizkiot jokabide desegokia, Unibertsitateak bere izateaz duen ikuspegia aztertzeari, krisiari eman dizkion soluzio eta ondorioen aurrean, haren egocoraren sakoneneko sustraia bilatzeari, horrela krisiaren sustraia beragan ez duen unibertsitate bat zuzendu ahal izan dezagun.

A) Irakaslea Unibertsitatean

«Irakaslea, poliki baina erremediorik gabe uste dut, ezagutzen saltzaile izatera pasa da. Errukiz begiratzen zaio ezagutza hau bere interes materialerako era hobe batez baliazteko gai ez delako... eta gizabana-

koaren desarrolloarentzat, alienazio sozialaren ia prototipo izatera heltzen da eskola» (T. Adorno: *Irakaskuntz profesioari buruzko tabuak*). Irakaslea, dogmatismo handi batek eraginda, hizlari bihurtzen da. Eta ikaslea, irakasle taldeak berak landu ere egin ez dituen ezagutza, teknika edo programen metatzaile.

Unibertsitatea, dakitenek (irakasleek), eta ez dakitenek (ikasleek) osatzen dute.

Ondorioz, sasizientifismo bat gertatuko da. Argitasuna, estabilitatea, zehaztasun formala, arrazoinaketa moduaren abstraktutasuna eta deduktibotasuna izango dira baldintza akademikoak. Guzti hau, irakasleagoa transmitzaila besterik ez den erakunde baten espresio eta, aldi berean, haren iraupenaren baldintza delarik. Egunoroko bizitzak agertzen dituen atazoetan postura bat hartzea galeraziko dion nolabaiteko neutralitate batera mugatua izango da irakaslearen irakaskintza, sozial arazoetatik eta hauen ingurutik guztiz aldendua.

Hau honela izanik, kultur-iraun-erazle bat izanen da irakasleagoa, etekin ahuleko tresna arkaikoa, eta bera bizi deneko gizarte kapitalista nahiz neokapitalista nahiz sozialistari onuragarri izateko eta soluzioak eskaintzeko gai ez den zerbait.

Hauetaz, Marxek zioena esan daiteke: «Non plus ultra-tzat daukuzuen zuen lanbide kategoria hori, astakeria makur bat bihurtu da Wat erlojujileak lurrun makina, Aurkwright bizargileak chuntegia eta Fulton bitxi-gileak lurrun untzia sortu zituzten egunetik».

B) Ikaslea Unibertsitatean

Baldin hori bada Unibertsitateak irakasleago mailan bere buruaz duen kontzientzia, ez da atseginagoa ikasleagoak bere buruaz duena. Argitasunaren amoretan, ikasleagoaren ikasketa garaiko eta ikasketak burutu ondoko egoera aztertuko dugu.

a) Ikaslea eskola garaian.

1.—Lehenik, hau aipatu behar da: ikasleagoak jasan behar duen marginalitate luzecgia.

Oraindik orain, unibertsitateen sortzeaz geroko sozializazioa zihurtzen zuen, sozializazio hori nolabait aurreratuz. Gertatu den ikasleagoaren ugaltzea gertatuz gero, egungo ikaslea sozialki marjinatoriko izaki bat da, behinbehineko egoera batetan bizi dena, geroko sustraipen sozial baten zain.

2.—Luzecgi gertatu ohi den bazterketa sozial hau, gehitze kuantitatibo batek sortu hau, areagotu egiten da profesioaren ihardunean gertatzen zaion aldaketa kualitatiboari esker. Gaur hau kolektiboki, industrialki eta tresna material ugariz egiten da.

Ihardun profesional, artesanal, liberal eta materiale eskaseko baterako prestatzen duen unibertsitate bat jasaten du ikasleak.

3.—Ikaslearen egoera marjinatoria, gizartean, unibertsitatean, areagotu

egiten da jakintza munduko kualitatezko aldaketa dela medio. Hau halako eritimoz aldatzen da, non gai bat artean menperatzeko daukanean, haren jakintza zaharkitua geratzen baita.

b) Ikaslea eskola aroaren ondoren.

Ikaslea titulatu ondoren errealitate honekin aurkitzen da:

1.— Soziazki ezezaguna. Haren munduan, berak utzi izan duen unibertsitari mundua, eta atera berri duen titulua heldu nahi dueneko gizartea ezberdinak dira. Egoera honetan, tituludunak elkartzen saiatuko dira, mundu aparteko bat eginez.

2.— Giza ikuspegiz arrotz eta atzerritar dira atera zireneko munduaren aurrean eta orain itzultzen direnekoaren aurrean. Mundu bat gidatu nahi dute, baina hau bere pausoa doa. Hauei mintzatzen zitzairen Goethe Wagnerri, Faustoren morroiari, harengana zuzenduz esanarazten zionean: «Etengabe gabinetetan biziz eta mundua jai egunetan bakarrik, urrutitik eta gainera kristal artetik ikusiz, nola nahi duzue mundua gidatzen ikastea, bortxatuz?» (Goethe: *Fausto*).

3.— Ikasketa luzeen bidez ikusiriko elementuak zientifikoki birbihurtzera behartuak. Hau da, etendura bat biziz proiektuaren (ikasle aroaren) eta errealitatearen (lanbide ihardunaren) artean. Hauek ere Faustorekin esan dezakete: «Ezagutzen ez dena da, hain zuzen, erabili nahi litzatekeena, eta jakinarrentzat ez da erabilbiderik aurkitzen».

C) Jakintza eta Kulturaren balioztapena

Egoera honek, nahiz irakaslearenak nahiz ikaslearenak, posizio bereziak harrarazten ditu.

a) Misologia. Platonek *Phaedon*-en (89 D) eta geroago Kantek erabiltako hitza erabiliko dugu: «Askorentzat, baita arrazoina erabiltzeaz esperentziarik handiena egin duten haientzat ere, hau aitortzeko gauza badira behintzat, misologi maila bat gertatzen da, hau da, arrazoinarekiko gorrotoa» (E. Kant: *Grundlegung zur Metaphysik der Sitten*).

b) Jakitea eta kultura jendaurrean nabarmentzeko bide huts bilakatzeko dira, edo eta, ekonomi mailaz igotakoan, eskala sozialcan gora igoetako bide.

Honela, ekonomikoki jadanik utzia duten gizon arrunten maila, erabat uzten dute. D. Kixotek ez zuen alferrik gogoratzen: «Jauna, ez ezazu pentsa herri xehe eta apala deitzen dudarik nik hemen bulgo; ezjakin oro, dela printze dela jauntxo, bulgoaren multzoan sar daiteke eta sartu behar du» (Miguel de Cervantes: *D. Quijote* V-30).

Lehenengoan mespretxuari eginkizun bat emanez, gaitutia gelditzen da.

Molière-k bai bere trufetan eta bai bere komedietan, jakite honen es-
trukturaen kuadro bat eskaintzen digu. *Les précieuses ridicules* edo *Les Femmes Savantes*, esandakoaren adibide izan daitezke.

c) «Zer da heziketa on bat, era guztietako arseginetara zuzentzen duen hura baizik» (Diderot: *Le nouveau de Rameau*).

d) Jakitea, igoketa ekonomiko eta sozial bezala. «Gizarte honetan lehenago hartzen zaio pultsua edukitzeari jakiteari baino. Urrez estaliriko asto batek txalmaz jantzitako zaldi batek baino hobea dirudi» (M. Cervantes: *D. Quijote*, V-122).

Haatik, Iraultza Frantsesa aztertzean gauza nabarmena gertatzen da, alegia inflazioak iraultza horretan duen tamaina.

Gertakari baieztagarri bat badago. Inflazio konjunturalaren aurrean, burgesia agintera heldu den unetik, inflazioa etengabekoa da.

Harrigarria dirudi klase sozial batek eta orotan arrazionalitatea ezarri nahi duen historiaren aro batek, itxuraz hain irrazionala den inflazioa bezalako zerbait sortzea.

Hortik, harridura susmo bihurtzen zait, eta inflazioaren zergatiak exogenoak ez baino endogenoak direla pentsarazten dit. Inflazio egoera batean, ondasunak, mugikor nahiz mugikaitzak, balioa galtzen du. Mobilitate ekonomiko horrekin ados etorriko den aberastasuna sortzeko era bat sortu behar da. Eta hori jakintza da. Nahiz individual nahiz sozial mailan, tresna aberastasun-sortzaile bat izanen da jakintza.

II. UNIBERTSITATEAREN ERREALITATEA

Unibertsitateak berak bere burua nola ikusten duen aztertu dugu eta zein balio ematen dion bere etekinari. Pentsa dezagun izatez eta benetan zer den.

a) Cervantesek, lehen kapituluari D. Kixote deskribatzen digunean, honela agertzen digu: Zereginik gabe gehienetan, zalduntzako liburu irakurle, hauk eskuratzeko bere ondasun zati bat saltzen duena, eta honek burua galarazten diola.

Salbuespen batzu eginez, unibertsitatearen deskripzio on bat ematen digu azalpen horretan.

1. — D. Kixote zereginik gabe aurkitzen da denbora gehienean. Egunoroko bizitzaren arazoak, premiaren mundua arrotz egiten zaizkio; jenderik gehiena lurlanean murgildua dago eta bere beharrianak ase nahiaren arazoak menperatua. Gainera, hauetatik at bizi da. Bere egunoroko arazoek ez dute kezkatzen. Ekintza handiak bakarrik interesatzen zaizkio. Mancha handi bat den gizarte honetan, Unibertsitatea ere ez da gizonek bizi dituzten egunoroko arazoek menpean bizi.

Jakite, zientzi eta kultur itxuraz, egunoroko arazoek oso gainetik pasatzen da. Hauetan sustraitu beharrean, horien gainean hegaka dabil, Sartre Merleau Ponty-ren omenaldian azaltzen dizkigun kaioak bezala (*Les Temps Modernes*, 184-185).

Ondorioz, inguruan duen gizarteak planteaturik dituen arazoetatik urrun bizi den unibertsitate bat eta, gainera, akademikotasun eta zientifikotasunaren babesean, egunoroko arazoci buruzko axolarik eza azaltzen duena.

2. — Don Kixote, zalduntzako liburu irakurle bezala azaltzen zaigu.

Unibertsitateak ere berdin egiten du. Unibertsitateak, iraganaz hitzeginen du, bizi zuten garaiko arazoak konpondu zituzten gizonei buruz. «Arrazoinamenduaren indarrez iraganera joanez, orduko jakintsuek nola pentsatu zuten ikusiz, eta zientzien geroztiko aurrerapenak nabarmenduz, emango du bere denborarik gehiena» (Goethe: *Fausto*, Gaua) .

Burua horrelako jakintzaz, zientzia deitzen duten jakintzaz betez, eta handik irtendakoak gizartean kokatuz, benetako kultur kontserbatorio bat bihurtuko da unibertsitatea. Izan ere, «zerbait jakin nahi duten eta beren arimei gainezka egiten uzteko eta sentitzen eta pentsatzen zutena herriari irakasteko bezain zozo izan diren gizon guttiak, aldi guztietan sakrifika-tuak eta sutara emanak izan dira» (Goethe: *Fausto*, Gaua).

3. — D. Kixotek, bere ondasunen truke bereganatzen ditu zalduntzako liburuak. Hasera batetan, unibertsitate heltzen zirenek ere beren gain hartzen zituzten gastuak. Baina burgesia agintera igo zenean, era maltzurrago bat asmatu zuen. Unibertsitate estatala sortu zuen, hartara hel-tzen zenak, dohan egiten zuclarik. Haren zorra gizarte osoaren gain zeto-tren. Baina gehien zutenen semeak bakarrik sartzen ziren, eta horrela, burgesia, desberdintasunaren babesean, ordaindu beharraz askaturik, bere-tzat bakarrik duen unibertsitate prestuago baten jabe bilakatzearen kon-traesan zinikoa azaltzen da.

D. Kixotek ez zuen asmatu formula hori. Atzeratua geratu zen. Bere ondasunen zati batez ordaintzen zituen hark liburuak. Unibertsitateak, ongi nahiz gaizki, besteen ondasunez ordaintzen ditu, bere ateetara inoiz ager-tuko ez diren ondasunez. Argi da, zozoen dirua bizkorren esku dagoela. Baina, agian, hauek bizkorregizat har ditzakete beren buruak eta horren-beste ez direnak tontoztat eman. Eta herriek zerbait baldin badute, oso bizitza luzea dute eta izugarriko oroimena.

Honela, bizileku duen gizartetik aldenturik dabilen eta hari esker bizi den unibertsitate bat daukagu. Gizartea, herri xehea, indar material, zientifiko eta moralaren bidez tontoarena egitera bortxatu izan denean, ez da arazorik sortu. Baina gizartean gidari den klaslea, bere arazoak konpon-tzeko herriari deitzera beharturik aurkitzen denean, orduan beharrezkoa da klase herritarrek tontoarena egiteari uztea. Unibertsitatearen lamentazio zabaldua da, gizartea hartaz desinteresatu egin dena. Egia da, baina lehenen desinteresatu zena eta besteren kontura bizi izan zena, unibertsitatea bera izan zen.

Eta arazoa larritu egin da, unibertsitateak zalduntzako liburu gehiago erosteko ondasun gehiago behar duenez. Ordaintzen dituen ez dago horre-tarako prest.

4. — Zalduntzako liburuak irakurtzeak, D. Kixoteri burua galarazi zion. Platon-ek *Republica*-n (VII liburua, 576 a) adierazten du, nola tiranoak, herriak haren gobernua kritika ez dezan eta ez dadin subleba, ahaleginak eginen dituen hiritarrak zorpean jartzeko. Honela, zorrek hestuturik, leial eta apalak izanen zaizkio. Burgesia agintera altxatuz gero, zorpetzea lortu da, bai inflazio bidez, bai kontsumo gizartean gauza mitifikatzeaz. Honela, gizartearen sail zabal bat zoro bilakatua dakusagu.

Baina bada beste bat, ekonomikoki zorretara makurtzea zaila denez, burua gal dezan lortu behar dena. Zalduntzako liburuak dira. Iraganeko historioak, jadanik konpondutako arazoen soluzioak, ihardun profesionalan guttitan aplikatuko dituzten ikasketak. Zientzia eta kultura deitu horietaz burua beterik, zentzua galtzen dute; Bernanos-ek dioenez, intelektuala «horren sarritan da zoroa, non a priori zorotzat eduki behar bailitzateke bestelako frogarik ematen ez duen bitartean».

b) D. Kixote-ri zalduntzako liburuen irakurketak zentzua galarazi zion, horrela, ez zena ikusten zuelarik, eta bazena ez zuelarik ikusten. Unibertsitateetik pasatzen denari gauza bera gertatzen zaio.

Baina bada erraz aurki daitekeen makur bat, eta da: unibertsitatearen eta jakituria intelektualaren intrintsekotasuna beraingan bilatzea, alegia. Ahantzi egiten da, nahiz bata nahiz bestea arlo zabalago batetan kokaturik daudela, desarroilatzen direneko gizartean, hain zuzen. Neurri bateko autonomia onartuz, ez dezagun ahantz totalitatearen zatiak, osotasunaren arauera direla direnak. Eta horrek arrazoin sakonago bat aurkitzeko bidean jartzen gaitu. Unibertsitateaz, kultur kontserbaleku batetaz bezala hitzegin dugu. Esana dugu argitasuna, estabilitatea, zehaztasun formala eta nortasun abstraktu eta deduktiboa zirela haren jakituriaren ezaugarriak. Alferrak izateko eta zalduntzako liburuak irakurriz burua galtzeko bideak. Egoera «akademiko» hau ez dago aukerapen pedagogiko edo akademiko baten arauera esplikatzetik. Unibertsitatea kultur kontserbaleku izanik, kontserbaleku sozialerako tresnarik garrantzitsuen da. Gaurregungo unibertsitatea, Frantziako iraultzatik dator, burges iraultzatik alegia. Klase sozial hau, prozesu historiko konkretu baten ondorioa, dinamikoa da eta berritzailea. Berak sorrarazten duen unibertsitatea aurrerapen bat da, ekonomikoa, soziala, eta kulturala.

Iraultza honetatik estatu erdirakoi eta uniforme bat sortzen da; produktio bitartekoen, jendetzaren, erabakitzeko boterearen eta botere politikoaren kontzentrazioak, horren ondorio dira. «Nahi-ta-nahiezko ondorioa (burgesia agintera iristearrena) erdiratze politikoa izan da: probintzia independententeak, gehienez itunen bidez lotuak, interes, lege, gobernu eta aduana sistema desberdinak zituztenak, nazio bakar batetan bilduak izan dira, gobernu bakar batekin, klase interes nazional bakar batekin, aduana muga bakar batekin... Baina gaurko botere publikoak ez dira burges klase osoaren dirubide berdinek administratzen dituen batzorde bat besterik» (Marx: *Agiria*, 1 zatia). Eta baieztatzen hau egiztatzeko aski da ikustea E. Fioranti-ren «La élite del poder en la España franquista» (Cfr. *Negaciones*, 1. zenb.).

Botere politiko erdirakoi horrek, unibertsu berdindu, standarizatu eta argi bat eskatzen du. Bestela, bere pisuz eroriko litzateke. Erdirakoikeria horretatik sortzen den burokrazi ordenari beharrezko zaio formaltasun bat. Bepizkunde hasi eta Vienan (1815) burutu ziren disziplinaren eta obedientziaren erizpideak, azken ondorioetara eramatea uzten du arrazoinamendu era abstraktu eta deduktiboak. Arrazoinamendu era abstraktu eta deduktiboak kanpoko mundutik defendatzea permititzen du gainera.

Beraz, akademiko edo pedagogikotzat ematen diren ezaugarri horik ez dira klase sozial batek zuzendutako instrumentu baten piezak baizik, haien helburua kultur kontserbaleku baino gehiago kontserbaleku sozial izatea delarik.

Beraz, unibertsitatea erakunde klasista bat da. Ez horrenbeste klase batek eta klase batentzat egina delako, hartatik pasatzen dena sailkatu egiten duelako baizik. Ikaslearen miseriari graduatuaren aberastasuna kontrajartzen dio D. Kixotek

Honela, unibertsitatea irauñleku sozial eta ekonomikoaren instrumentu bilakatzen da, eta ez kultur irauñleku.

Klasista eta egoera horren betikotzaile izanagatik, zenbait arlotan liberal eta kritiko izan daiteke, oinarritzat duen horma-hezur sozio-ekonomikoa zalantzat hartzen ez duen bitartean.

III. UNIBERTSITATEAREN ERREAKZIOA BERE KRISIAREN AURREAN

Krisiaz jabeturik, erreakziotu egin du unibertsitateak. Jokacra hori era sinpletan tipifikatzeak, errealitatea faltsifikatzeko arriskutan jartzen gaitu. Hala ere, jokaera orokor hau ikus ditzakegu:

a) Konponbide erraz eta demagogikoetara makurtu ohi da, arazoa konpondu ez eta soilik atzeratu egiten dutenetara, alegia. Egitarauak laburtzeak, ikasleen absentismoa onartzeak, aprobaketa orokorrak emateak, unibertsitateak planteaturiko arazoak konpondu zituen; baina ez unibertsitatearen arazoa, ez eta, azken finean eta benetan, unibertsitariena ere.

b) 1. — Unibertsitatea, kultur irauñleku bat baino gehiago izan dadin lortu nahi da. Horretarako, gaurko sistema ekonomikoari egokitzea proposatzen da, errendimendu handiko makina bihurtuz. Ahalegin argiagoa da. Ahantzi egiten dute kulturaren eta gizartearen arteko harremana eta, batez ere, gizartearen dinamika eta haren eredu ekonomikoa ez doazela palarerloan.

Baldin gizartearen eta hau menperatzen duen eredu ekonomikoaren artean erabateko berdintasunik ez badago, tentsioa nabaria da. Eredu ekonomikoari egokitzeak ez du esan nahi gizarteari egokitzen zaionik. Beraz, konponbide hori ez da benetakoa. Krisia areagotu egiten da.

2. — Krisiaren honelako konponbidea frakasora galdua dago, ekintzaren izaeraz beraz. 1976.ean gauzak ondo antolatutik, eta aurretiazko analisi sakon baten ondoren bakarrik ihardun liteke. Alabaina, eredu ekonomikoaren ekintzaren helburua interesatua da, «gainbalioa» sortzen saiatu behar du. Unibertsitatearen ekintzaren helburuak desinteresatua behar du izan. Schiller-ek gogora arazten digunez, gizona alferrikakoen konkistatzaile da. Horregatik doa aurrera.

Eredu ekonomikoari egokitzeak, egocaren nolabaiteko lasaitzea dakar, analitikoki eta antolatutik ekiten bada. Baina inolako zalantzarik gabe, ere-

du ekonomikoan buru diren indarren menpera makurtzen du horrek unibertsitatea. Etengabeko krisian uzten du unibertsitatea.

c) Hirugarren erreakzio era, soluzioa «aldaketa pedagogiko»en arauera ikusten duena izan liteke. Kulturaren eta irakaskintzaren egoera aztertu ondoren, egoera horren akatsak konponduko lituzketen aldaketa pedagogikoak proposatzen dituzte. Lanerako mintegiak, disziplinartero ikasketak, problematika irekia.

Nahiz eta horrek aurrerapen bat suposatzen duen eta ondorio positiboak eragiten dituen, arazoak bizirik dirau. Unibertsitatea izaki autonomo modura analizatzen du, krisian dagoen eta bere englobanterik nagusia duen gizarte baten oihartzun kaxa bat besterik ez delarik.

IV. KONTRAESAN NAGUSIA

Gogoeta hauen haseran, norbere buruaren kontzientzian dauden kontraesanak, bizitza materialaren kontraesanen bidez esplikatuz behar zirela, esaten genuen.

Gaurko unibertsitateak bere buruaz duen kontzientzia eta krisiaren konponketarako saioak aztertu ditugu. Arazoa areagotu beharra dago. Unibertsitatea krisian dago. Gizartea ere krisian dagoelako dela hori horrela esatea, ez da konponbide bat aurreratzea. Krisiaren unibertsaltasuna modu askotara eta propiotara gauzatzen da. Eta konkretuaren analitiko eta konponketatik hasiz bakarrik konpon liteke hura. Bere iharduna jakituriaren eta kulturaren mundura zuzentzen duen erakundea da unibertsitatea. Honen zeregina, galderaren eta erantzunaren inguruan murgiltzen da. Galderak eta erantzunak sortzea, gizonaren ekintza berezi eta eksklusiboa da. Baina unibertsitate giroko galde-erantzunak, galdera eta erantzun burgesek dira, hitza bere konkrezio soziologikoaz ulertuz.

a) Gaurregun jakituria eta kultura deitzen dugunaren jaiotzaren eta gauzatzaren prozesua aztertuz, Grezian, K. a. V. mendean sortu zela esan dezakegu. Mediarren gerlek eta Peloponesokoek, krisi sozio-ekonomiko-politiko bat eraginez, gizarte merkataritza itsastar eta hiritar bat sorrarazten dute.

Nukleo horretan jaiotzen da, guk, geroztik, jakituriatzat eta kulturatzat jotzen duguna. Izpirituaren heziketa oinarritzko baldintzatzat emango da nahiz naturarekin, hots lanarekin harremateko (eta honela zientzia positiboak sortu ziren), nahiz soziabilitate eta elkarbizitzaren formak zuzentzeko.

Sofistek —«jakituriaren putanerrek»— aseko dute gizarte berriak eskaintzen duen beharrezan hori. Baina merkatarien semeak eta beren beharrezan aserik zituztenak joan zitezkeen haien klaseetara.

Honela, jakituriaren eta kulturaren mundua, Atenas-ko gizartearen talde baten eskuetan jaiotzen da: oinarritzko premiak aseak zituztenen eskuetan, alegia. Jakituria, badutenek egituratzen dute, badutenentzat, gehiago eta zihurrago ukan dezaten.

b) Geroago, XII. mendean, unibertsitateen sorrera eta burgesiaren presentzia batera gertatzen direla ikus dezakegu. Ezpatak eta gurutzeak menperatutako mundu batetan sortzen da burgesia, bietarik independente, baina bici lotua. Klase berri honek, gizartean lekurik ukan nahi badu, tresna bat eskuratu beharko du, ez ezpata eta ez gurutzea datekeen tresna bat.

Arrazoina izanen da haren bidea. Horregatik, burgesiaren azaltzearekin batera, unibertsitateak sortuko dira, arrazoina lantzeko tresna bezala; eta tresna hauk burgesiaren zerbitzutan egonen dira.

Klase sozial hau beste edozein baino egileagoa izanen da, eta gizona zenbatetaraino den gai, nahi duena egiteko, erakutsiko dio gizonari berari.

Hau ez da oztopo, Unibertsitatea, ezpatak eta gurutzeak duten boteraren aurrean, bere interesak defendatzeko burgesiak antolaturiko bide bezala jaio dela esateko.

Ez dira, bada, jakitea eta kultura soilik burges erakunde bat; baizik eta, jakitea eta kultura zabaltzeko antolatu den lehen tresna-hasikina bera ere burgesa da.

Haren iharduna gizarte osoari onuragarri izanen zaio; baina hau ez da lehen esan dugunari eusteko oztoporik: Unibertsitatea, badutenek badutenentzat sorturiko tresna bat da, gehiago eta zihurtasun handiagoz ukaten jarrai dezaten.

c) Goruntz doan giza maila edo klase hau bere hazkuntzaren gailurrera iristen denean, XVI-XVIII. mendeetan, jakitea eta unibertsitatea ez dira burgesak bakarrik izango; aitzitik, beren jarrera erabat gogortuko, radikalduko dute.

Voltaire, Diderot, D'Alambert eta beste entziklopedilari batzuren jakiteari buruzko iritziak harrigarri gertatzen zaizkigu, halako moduz, non XVIII. mendea kultura aldetik «malthusianoa» dela esan bait genezake.

Baina, goruntz doan giza maila honek gizonen arteko elkarbizitza modu bat sortu du, bere formatzat Estatua duena.

Frantziako Iraultzaz eta Vienako tratatuaz (1815) geroztik, arrazionalitatearen pentsamoldepean, Estatua da elkarbizitzaren era mormala; Estatua bihurtzen da Historiaren lehen pertsonaia. Horren ondorioak, lege, unibertsitate, militar eta ekonomi berrikuntza izanen dira.

Jakite-munduari bagagozkio, jakitearen eta kulturaren bideak eta helburuak Estatuak erabiliko dituela esan genezake.

Hau honela, Frantziako Iraultza iraultza burgesa da. Eta hartatik sortzen den Estatua, burgesiaren ondasunen administralgo kontseilua da. Honen ondorio gisa, Unibertsitatea, giza maila horrek behar duen heziketa profesionalaren zentrua izanen da.

Hortik dator haren kontraesan funtsezkoenetako bat: «guztientzakoa» deritzalarik, guti batzurentzat baita; publiko izena eraman arren, pribatu baita: bai hara iristen direnak, bai han ikasten dena, eta hau lortzeko modua bera ere klase zehatz baten interesen arauera eginik eta programaturik baitago.

Burgesia, gorago nioren bezala, klase egile eta iraultzailea izan da eta zet egiteko gai den erakutsi dio gizonari. Baina bera ere, Marxek bere Agirian gogora arazten digun sorgin-ikaslea bezala, ez da berak sorrarazi dituen indarrak menperatzeko gauza.

Nahiz eta egokitzeko duen gaitasuna ukan, elementu aldagaitz batek, jabeago pribatuak, egokitzapen erradikalagoak egiteko ezgaitu egiten du burgesia.

Horregatik, burgesia sorrarazten duen hazkuntza honek berak lagunarte osoaren presentzia eskatzen duenean, eutsi-etzina da klase jakin bat egile nagusi, eta beste klaseak subjeto pasibo direneko egoera bat. Baldin lagunarteko buru guztiak historiaren aurrerabidean egile badira, bidezko dirudi klase batek bere interesak defendatu eta zaintzeko sortutako tresna, erengabeko krisian aurkitzea.

Ondorioz, kinka larri hau ez da pedagogi irtenbidez garbituko. Hauzia erradikaldu egin behar da eta kulturaren edukina bera hauzitan jarri. Kultura, lehen genioenez, beharizanaren mundutik babestua dagoen klase batek sorrarazia da. Hortaz, haren helburua ezin daiteke klase jakin baten interesa izan, berau oso egile eta iraultzaile izanagatik ere, lagunarte osoaren interesa baizik. Haatik, bera egile denean eta bere ekintzaren destinataria denean bakarrik lor daiteke lagunarte osoaren interesa.

V. IRTENBIDE POSIBLE BATETARAKO PUNTUAK

A) Unibertsitatea, kulturari atxekiriko errealitate bezala azaltzen da. Jakitea eta kultura sortzen eta hedatzen dituzten organoetariko bat da.

Tresna, sortzen eta hedatzen duen errealitateari egokitu behar zaio. Horregatik, lortu nahi duen helburuari helpideak gaizki egokitzen bazaizkio, honek problemak sorraraz ditzake.

Baina arrazoin sakonago batek eragin dezake haren krisia. Kulturaren eduki objektiboak berak behartu du, eta ez ondo edo gaizki egokitze batek bakarrik.

Kontutan izan behar da, Unibertsitatea kulturari dagokion hitza baldin bada ere, hau ez dela helburu edo errealitate berezkoa, absolutua, baizik eta gizartean bizi den gizonarekikoa dela. Hemendik abiatuz, agian, irtenbide baten aztarrenak aurkituko ditugu.

a) Gizona libertatea da. Ez da askatasundun gizaki bat; askatasuna da. Haren ekintza guztiak, askatasun horren bide eta agerpide besterik ez dira.

«Filosofiak irakasten digu, Izipirituaren (gizona lagunartean, herria) propietate guztiak, askatasunaren bidez bakarrik direla izan, denak askatasunerako bide soil direla, denak askatasunaren bila dabilzala eta askatasuna sorrarazten dutela» (Hegel: *Lecciones de Filosofía de la Historia*, 42. or.).

Gizonak, libre delako eta libre izateko pentsatzen, lan egiten, maitatzen eta amesten du.

b) Askatasuna ekintza da, konkista da, burruka da. «Haren askatasuna ez datza izate aldakaitz batetan, askatasuna deuseztatzea mehatxatzen duenaren kontrako etengabeko ukapenean baizik» (Hegel: *o.c.*, 43. or.).

d) Hau horrela, gizona lagunarte batetan bizi da, partikularizaturiko unibertsal bat besterik ez den herri batetan. Gizonak, beharrianak sortuz eta beharrian horik asez egiten du bere historia. Beharrianak orokorrak, nundu osoarenak izanen dira, baina horik sortzeko eta betetzeko era, berezia. Herri bat da. Gizakia eta klase sozialak uste horretan bizi dira. Marr-en aurkako Stalin-en oharrak gogora genitzake.

Horientzat, gizakientzat eta klaseentzat, oinarri bat bezala, beharrian bat bezala da. Ez dezake inork gaindi uste hori. «Inongo gizakik ez dezake sustantzia hori gaindi; beste gizakiengandik bereiz daiteke, hori bai, baina ez herriaren izpirituagandik. Beste gizon askok baino buru-argitasun handiagoa ukan dezake, baina ezin dezake herriaren izpiritua gaindi» (Hegel, *o.c.*, 46 eta 47. or.).

e) Gizona askatasuna delarik eta hau burruka eta konkista, eta herria molde berezi batetan isuritako orokorra edo unibertsala delarik, gizonaren izatearen funtsean datzan oinarri hori, herria, askatasuna eskuratzeko era bat baino ez da. Eskuratze horrek gogoeta, adimena, irudimena eta ekintza behar ditu.

Horregatik, kulturaren aurrerabidea, askatasunaren aldeko burrukaren agerpena besterik ez da. Gizonak galderak egiten badizkio bere buruari, aske delako eta aske izateko egiten dizkio. Eta erantzunak sortzen dituenean, askatasuna lortzeko bere nahiaren arauera sortzen ditu.

Oinarri hauk onarturik, hots, kulturaren aurrerabidea askatasunaren aldeko burrukaren agerpen baino ez dela, eta askatasuna, orokorra izanik, herri bakoitzean bereziki egikaritzen dela, eta gizaki bakoitza eta bakoitzari dagokion klase sozialak berak ere, bizirik dirauten artean, beren herriak markatzen dizkien koordenaden barruan bizi direla onarturik, logiko eta bidezko dirudi, teori mailan, egiteko honetarako tresna bat eratzea.

B) Ondorio gisa

a) Unibertsitatearen helburuak herria izan behar du, eta ez klase bat. Hortaz, Unibertsitatean landuriko problemek eta erantzunek, egunoroko bizitzaren eta beharrian munduaren baitan dauden problemak eta erantzunak beharko dute izan; eta haiei egokitu eta zuzendu beharko die bere jakituria eta ez beharrian mundua aserik duen inguru bati.

Unibertsitateak herri baten askapen-tresna izan behar du. Benetako askapen baten tresna, eta ez itxura hutsezko askapen batena.

Zehatzago, konkretuago, Unibertsitatearen helburua zera izanen da:

1. — Bera ezarria dagoeneko errealitatea, eta errealitate honen dituen problemak aztertu.

2. — Problema horien irtenbideak asmatu.

3.— Irtenbide era konkretuak sortu.

4.— Askatasun horren aurka dauden elementu natural, sozial, kultural eta gizatar guztien kontrako burrukaren tresna izan.

b) Baldin unibertsitatearen helburua hau bada, haren egilea herria da. «Dena herriarentzat, baina herririk gabe» delako printzipioak ez du balio. Zapalkuntzatik irteteko bide bakarra zapalduaren egiazko ekintza da, haren zapalketaren arloan bertan.

Beraz, herriak izan beharko du ekintza honen eragile eta programatzaile. Gogora dezadan ez dela Estatua helburua eta xedea, orain arteko giza historian goragoko estadio bat izanik ere. Gertatzez, lehenago nioen bezala, Estatua klase baten interesen administrazio kontseilu bilakatzen da. Pribatu-estatal oposizioa, irudi berri baten bidez gainditu beharra dago: nik popular edo herritar deituko nukeen baten bidez. Aurkako bi elementuok, formalki bakarrik bait dira aurkako, biak pribatuak dira eta.

Dударик gabe, gaurko jostioa eta programazioa ez daude herriaren beharrezan arauera taxutuak, baizik eta klase baten arauera (burgesiaren, alegia), inguru baten arauera (hiri giroarena, eta ez nekazal giroarena), barruti baten arauera (herri desarroilatuarena, eta ez desarroilobidean direnarena).

d) Helburu hau eta eginpide eta programa horren egile hau suposatuz, bidezko dirudi herria izatea haren sujetu jasalea. Beste klaseetakoak baztertuz, klase bakarreko elementuz betetzen den unibertsitatearen aurka, diru oztopoek itxitako aterik ukanen ez duen unibertsitatea proposatu beharra dago.

Baldin kultura eta beronen tresna den unibertsitatea, unibertsitate burgesa eta burgesiarentzako bada, ez du honek horrela izan behar duenik esan nahi. Behin izaten hasi zena, nahi-ta-ez heriotzerantz doa.

Herria, partikularizaturiko unibertsal hori, egile, programatzaile eta ekintzaren destinatari izan dadinean bakarrik, eta haren problemetan denek partehar dezatenen bakarrik izango da unibertsitatea benetako Unibertsitate.

Izan ere, helburu bat antolatzea, eta helburu honetara iristeko helpideak eta aurrerabideak antolatzea, ezinbesteko izanik ere, oso gauza desberdinak dira. Baina helburu horretara iristeko, geure errealitate historiko zehatzetik abiatu beharra daukagu; errealitate historiko hau ez da guk egina, horretan bizi gara; baina, nahiz eta desatsegina izan, kontutan hartu behar dugu etorkizunerako proiektu zehatz bat lantzerakoan.

J. A. A. M.

A PROPOSITO DE LA UNIVERSIDAD

Para una solución a la crisis actual de la Universidad, es necesario partir tanto de la Universidad hoy existente, pero en patente crisis, como de los proyectos de la futura y nueva Universidad.

La Universidad ha analizado su propia crisis actual que, a su vez, se concretan particularmente en el desarraigo social tanto de los enseñantes como de los estudiantes. Pero aparte este diagnóstico que la Universidad se ha hecho a sí misma, la realidad de la actual Universidad es la enfermedad de Quijote: alejada de la realidad concreta de la sociedad, se ha convertido en el conservatorio no sólo de la cultura, sino también de las estructuras sociales y políticas, dominadas por una clase: encerrada en viejos problemas y alienada (enajenada) de los problemas actuales.

La misma Universidad actual parece buscar salida a la crisis actual mediante soluciones parciales y marginales: acomodaciones académicas fáciles y demagógicas, adaptaciones al sistema económico actual, cambios de tipo pedagógico.

Pero la contradicción fundamental de la Universidad tradicional está en que es una Universidad clasista, al servicio de la clase burguesa y de la tradición burguesa de la cultura occidental: tradición que ha sido adoptada por el Estado burgués, nacido el siglo XVIII, que ha puesto la Universidad al servicio de su concepción estatista y centralista de la cultura.

La solución a la crisis actual de la Universidad debe venir, pues, desde una nueva concepción de la cultura como vía de la libertad del hombre, que se concreta y se canaliza en el ámbito del propio pueblo. Por eso, la Universidad es un camino de la liberación del Pueblo, negando la Universidad estatal burguesa, que es tan privada como la privada.

El sujeto y el fin de la Universidad es el Pueblo, no el Estado.

A PROPOS DE L'UNIVERSITE

Pour arriver à la solution de la crise actuelle de l'Université il faut partir tantôt de l'Université existante, mais en évidente crise, tantôt des projets de la future et nouvelle Université.

L'Université a elle-même analysé sa propre crise qui consiste, à son avis, particulièrement dans le déracinement social et des enseignants et des étudiants. A part cet «auto-diagnostic», la réalité de l'actuelle Université se symbolise dans la maladie du Quichotte: éloignée de la réalité de la société, elle est devenue un conservatoire non seulement de la culture, mais aussi des structures sociales et politiques, dominées par une classe; enfermée dans de vieux problèmes et aliénée des problèmes actuels.

L'Université actuelle, elle-même, essaie de trouver une issue à cette crise par le moyen de solutions partielles et marginales: accommodements académiques un peu trop faciles et démagogiques, adaptation au système économique en place, quelques changements dans le domaine pédagogique.

Mais la contradiction fondamentale de l'Université traditionnelle est que elle est classiste, au service de la classe bourgeoise et de la tradition bourgeoise de la culture occidentale: tradition qui a été sanctionnée par l'Etat bourgeois, né au XVIIIe siècle, qui a mis l'Université au service de sa conception étatique et centralisatrice de la culture.

La solution de la crise actuelle de l'Université doit partir, donc, d'une nouvelle conception de la culture comme voie de la liberté de l'homme, qui se concrétise et canalise à l'intérieur du Peuple lui-même. Ainsi donc, l'Université est une voie de la libération du Peuple. Elle doit nier l'Université étatique bourgeoise, laquelle est aussi privée que la privée.

Le sujet et le but de l'Université c'est bien le Peuple, et non pas l'Etat.

Euskal Unibertsitatearen aurrehistoriaz

Jose Luis Lizundia

Oinatik Unibertsitatea

Nafarroako erreinuan unibertsitatearen nolabaiteko asmoak egon baziren ere, zoritxarrez ez ziren egiztatu, eta dudarik gabe Euskal Herriaren bihotzean dagoen herri batetan egon ere: orain 120 urte arte inongo herrialdetako ez zena, ez Gipuzkoako, ez Arabako, ez Bizkaiko, ez bestetako; baina denetatik zerbait duena: Nafarroatik ez urrun, hizkuntzaz bizkaitarra, Arabarekin mugakide eta mendetan harreman franko ukana, gaur Gipuzkoa da eta, beraz, gipuzkoarra, nahiz eta ez giputza, ez bait da gauza berbera. Igerriko zenioten zein herri den: Oinati.

Merkado Zuatzola apezpiku oinatiarraren eraginak sortu zuen Euskal Herrian egon den lehen unibertsitatea, eta Paulo III.ak 1540ko apirilaren 23an emandako Buldaren bidez eraiki zen, Salamanca, Bolonia, Paris eta Alcalá de Henares-koen pribilegio berberekin.

Foruak galdu arte, Bergarako Konbenioaren ondoren Esparterok lehen haizkorakada eman arte, iraun zuen Unibertsitate honek, orduko istilu guztien barnean. Euskal Herriak mende horietan po-

litik erakunde bateraturik ez ukatea zatekeen nabarmenentarikoa, bizitza oparo bat ez ukateko. Oinati bera konte-pean egotca, eta ez herrialde batetan, ez zen tipiena izanen. Erretorgoa beti zegoen konterri honen saltsetan sartu beharrean, eta era berean eliz gaietan ere: San Migelgo Abadearekin haserretu beharra izaten zuen. Gero, Zuzendaritzan partehartzten zuten Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, eta urrunago Nafarroa, bakoitza bere aldetik zebiltzan eta, egia esan, ez ziren askorik arduratzen unibertsitateaz.

1794ean frantsesak sartu zirenean, irakasle eta ikasleak Gasteiza ihes egin zuten, eta hortik dator Gasteizko Unibertsitatearen historio hori. Baina hurrengo urtean berriz Oinatira datoz.

XIX. mendearen haseran, Unibertsitate honen kontra hasten da Madril; 1807an, Karlos IV.ak ixten du lehenbizikoz, dekretu bidez. Zazpi urte geroago, lau Diputazioek eskatzen dute berriz irekitzea, eta lortzen.

Zer irakasten zen

Urte bat hartzearen, 1820a hartuko dugu. Matematikak, Logika eta Metafisika, Filosofia, Legeak, Zuzen Kanonikoa irakasten ziren. Euskal herrialdeek, Oinatiko Hiriak, Unibertsitatearenak ziren zortzi baserriek ematen zituzten errenta eta abarren diruekin bizi zen.

Geroago, 1871-1876 bitartean, Zuzena eta Notaritzza ziren ikasketarik nagusienak; eta, mendearen azkenean, bi horietaz gainera, Filosofia eta Letrak.

Lehen ate ixteak eta karlistadak

Oinatik bere lehen eraso 1807an jasan bazuen, Esparterok emanda hartuko zuen gogorrena, 1842an, dekretu-agindu batez: Instituto bezala utzi zuen —gaur duen maila berean—, eta 1850ean hori ere kendu egin zion. 1869an, Unibertsitate Libre bezala sortu zen.

Fetxarik interesgarriena, beharbada, 1874a dateke: zeren Karlos VII.ak urte horretan emandako Erret-Aginduen bidez —Durangotik otsailean eta Lizarratik urrian—, berrito martxan jarzten bait da.

Agindu horien zatirik interesgarrienak aldatuko ditugu hona

hitzez hitz: «...Artículo 1.º Las cuatro Provincias Vasco-Navarras formarán, para los fines académicos, un Distrito Universitario, de que será centro y cabeza la antigua Universidad de Oñate, restablecida por Real Orden de 12 de Febrero último con los Estudios de Filosofía o Segunda Enseñanza, y las Facultades mayores de Teología, Cánones y Jurisprudencia. Art. 2.º Todos los Establecimientos de Segunda Enseñanza o de Enseñanza Profesional que hoy existen o en adelante se creen con la debida autorización en dicho Distrito Universitario, dependerán del Rector y Claustro de la Real y Pontificia Universidad de Oñate, á la cual estarán incorporados. ... Art. 5.º Para la Segunda Enseñanza regirá en todo el Distrito Universitario el mismo plan de estudios que se adopte para la Universidad. ... Art. 7.º Los títulos académicos y profesionales de todas las clases correspondientes á los estudios hechos en los Establecimientos del Distrito, con la excepción contenida en el Art. 3.º [eliz ikasketak], se expedirán por el Rector y Claustro de la Universidad de Oñate en la misma forma que si los ejercicios se hubiesen practicado en ella...»

Ikus daitekeenez —nahiz eta erdaraz egon, eta euskal kontzientzia argirik ez izan garai hartan—, ene ustez, guretzat ere baliagarriak dira zatiok, oinarri hauekin, eta egungo baldintza eta kontzientziara bihurtuz. Batez ere, Hegoaldeko lau herrialdeei ematen zitzaizen kohesio eta batasunagatik: ez bait genukeen egun dugun sakabanaketa negargarria ukanen, baldin bide horretatik jarraitu bagenu. Etxeak dozenardi bat lekutan, lau hiriburuak elkarren tirabiraka, Euskal Herriari baino beren zilberrari begirago, distrito eta administralgo arazoak Valladolid, Zaragoza eta Bilboren artean banaturik, etabar.

Baina karlistek galdu egin zuten gerla, eta Unibertsitatea koartel bihurtu zen, zapalkuntza nabarmenago egiteko. 1896an, herriz zabaltzen ditu atak, baina Zaragozaren menpean; bost urte bakarrik irauten du.

1968an, Bilbon Unibertsitatea eraiki baino lehentxoago, nork eta Salvador Madariagak esan zuen: Madrilen, Catalunyan eta Euskal Herrian unibertsitate berriak jasotzekotan, Alcalá de Henares-en, Vich-en eta Oinatin jarri behar zirela. «ABC»n idatzi zuen hori. Oinatar herri gizonak ez zuten nonbait irakurri; zeren, horren arabera, eta Diputazioek altura pixka bat ukan balute, ez zen Bilboren eta Donostiaren arteko sokatirarik emanen, eta Oinatin ukanen genuen unibertsitate bakarra.

Inoiz esan dugu, munduko toki askotan, hiri ttipietan eta ez

hiriburuetan daudela Unibertsitateak. Hor ditugu adibidetzat Heidelberg, Tübingen, Jena, Alemalian; eta Ipar Ameriketako Estatu gehienetakoak hiri ttipietan daude: Berkeley, Monterrey, Harvard, etab. Gurerako hori aipatzen badut (errepikatzen, nahi baduzue), ez da mimetismoz, ez eta erromantizismoz; Oinatik, gure Herriaren histori tradizio bati jarraipide emanez, izugarriko batasuna emango lioke etorkizunerako, eta hau da garrantzitsuena. Gipuzkoa acesala izanik, nola arraio hartu du hibirukeriarren zentralismo kutsua; berdin Bizkaiak, beti Bilboren kontra ibilita gero. Ez diezaiogun horren errua faxismoari bakarrik bota, gure herrialdekeria ere tartean bait da: ez dago foru edo estatutu kontua abertzaleen artean ere nola aipatu den ikusi besterik.

1866ko Euskal Herriko Unibertsitatearen asmoa eta ondorengoak

Urte honetako asmoa ere aipagarria da, zeren Nafarroatik hazi eta lau hego-herrialdetara hedatu bait zen. Oinarrietan esaten da, lau Diputazioek erabakitako tokian ezarriko zela eta lauen artean distrito bakarra osatuko zutela. Zuzena —sail bitan: Jurisprudentzia eta Administralgoa—, Medikuntza, Farmazia, Filosofia eta Letrak eta Zientzietako fakultateak ukanen zituen, has-teko. Gernikako Batzarrak ere, bere baietza eman zuen; baina 1868ko iraileko iraultzaren gertakariek bertanbehera bota zuten.

Gasteizen 1860-1870 ikasturtean, eta hurrengokoan Bizkaiian, proiektu eta asmorik ez zen falta izan; eta 1886an, Deustuko Jesuitena eraiki zen; baina, bere fruituak eman arren, beti errenka erantzun dio honek euskal Unibertsitateari, ez bait zuen, eta ez bait du, ofizialtasunik.

Donostiako Udaltzarrean ere egin zen Unibertsitate ofizial baten eskabidea, 1890ean, eta Udaletxe berean entzun zen beste bat, 1914ean. Bilboakoak 1923an eskatu zuen; baina, beti bezala, Madilek entzungor egin zuen.

Eusko Ikaskuntzaren asmoa

Eusko Ikaskuntza — «*Sociedad de Estudios Vascos*» delakoa, Oinatik Unibertsitatean sortu zen 1918an. Haren asmoetako bat, Euskal Unibertsitatea sortzea zen. Bigarren bileran, urte bi geroago Iruinean egin zenean, asmo batzu onartu ere egin zituen; hirugarrena, Gernikan 1922an egindakoa, berariaz horretarako izan zen, hau bait zen gaia: «constitución y organización de la

Universidad Vasca». Zoritxarrez, ez zen giro onegirik, lehen Diktadura hasia zen eta; baina, hala eta guztiz ere, hamabi puntutako oinarri batzu erabaki ziren.

Uste dut, oinarri horiek ez gaituztela egungo pentsakerakook asetsen, ni ez behintzat; *euskal* —bai *euskal* azpimarkaturik, *euskara*-rekin bat egiten bait dugu— Unibertsitatearen asmo hori ez bait zen egun bezain argi ikusten. Hala eta guztiz ere, komeni litzateke oinarri horik hitzez hitz ezagutzea. (Ik. J. ESTORNES LASA, *Los vascos y la Universidad*, II, 175 or.).

Erregek eta Gobernuak espreski ukatzen dute Euskal Herriko Unibertsitatea

Eusko Ikaskuntza elkarteak bere jectio lanetan darrai, lehen Diktadura bitarte guztian, batzutan bakarrik, bestetan Diputazioen laguntzarekin. Honetaz esan beharra dago, Bizkaiko Diputazioaren laguntza, Esteban Bilbao lehendakari izan zen garaian, oso eskasa izan zela, kontrakoagoa izan ez bazen. Esteban bedekatuak, 1918an Oinatin esan zituenak ordurako ahaztuak zituen nonbait, eta, maldan behera, gailenduz zihoan Neguriko oligarkiarekin, Cadaguako kontearen etabarren esanetara makurtzen hasia zen. Baina utz dezagun beste egun baterako gizon nefasto horren bizitza, eta goazen aurrera.

1914eko Urtarrilaren 19an Gobernuak Eusko Ikaskuntzari egindako gutuna aipagarria da. Zenbait eritzi barregarri eta zitalen ondoren, ezezko biribila, ukapen osoa egiten dio unibertsitatearen eskabideari. Hara azken hitzak: «En su vista, S.M. el Rey (q. D.g.) se ha servido disponer se desestime la petición.— De Real Orden comunicada por el Excmo. Sr. Presidente del Directorio Militar, Jefe de Gobierno lo digo a V.S. para su conocimiento y demás efectos.— Dios guarde a V.S. muchos años.— Madrid, 19 de Enero de 1924.— El Subsecretario encargado del Ministerio, Leaniz (Firmado).— Señor Presidente de la Sociedad de Estudios Vascos (Palacio de la Diputación de Guipúzcoa), San Sebastián».

Nik dakidala behintzat, ez da behin ere horrelakorik gertatu Espainiako Estatuaren lur eremuan. Gauza bat da jectioen luzamendua, eskabide askorekin jazotzen dena, eta eremu horretako beste Herri edo herrialderen batekin ere gerta zaitekeena unibertsitate arazoan; baina harrigarriena ezetza, ukazioa, espreski,

eret-dekretu bidez erabakitzea eta esatea da. Gure Herriak jasan dituen zapalkuntzetariko bat, eta ez ttipiena.

II. Errepublika garaian

II. Errepublika 1931ko apirilean etorri zela, edonork daki. Hurrengo hilean, Maiatzean, unibertsitate eskabideetan hasten da Bilboko Udalbatzarra. Beste lau hiriburuetakoko agintariak, Diputazioak etabar gomitatzen ditu batzar batetara.

Hartan hortan, hurrengo urteko otsailean egiten da batzar hori. Mahainburuan, Indalecio Prieto, garai hartan Errepublikako ministro, Jose Antonio Agirre eta Marcelino Oreja, diputatuak. Prietok ireki zuen batzarra, unibertsitate bat edukitzeko une oso egokia zela esanez, Deustuko jesuitena han bait zegoen hutsik, konpainiakoak herbesteturik zeuden eta.

Prietoren joko maltzurra ageria zen, orduko abertzale elizkoiak proba zail batetara behartuz: eliz erakunde baten kontra jarri, unibertsitatea hartuz, ala unibertsitaterik gabe gelditu. Bistakoa zenez, ez zen onartu haren alternatiba.

Ondoren, Iruineko Estaturako, hots, 1932ko Ekainean hiri-buruan eztabaidatuko zen proiektuaren prestatzaile batzordearen eskuetan utzi zen Euskal Unibertsitatearen arazoa. Eta Estatutuen burruka eta luzamendu berberetan galdu zen Unibertsitatea ere.

... eta gerratean, 1937an, Unibertsitatea eraikitzea

Eta azkenean gerrarekin batera, derrigorrez edo behintzat la-guntza beharrez, Estatutu zeken bat eman ziguten Madrilgo Errepublikako agintariak, Mendebaleko hiru herrialdeentzat; bere zekentasun eta guzti ere —eta Gipuzkoa eta Araba gehiena faxisten eskuetan zeuden arren— bere balioa ukan zuena.

Estatutu horen barnean sartzen zen Unibertsitatearen eskubi-dea ere; Euskadiko Gobernua Urriaren 7an sortu bazen, 9an izendatua zegoen batzordea, eta Azaroaren 18an agertua zen Unibertsitatea sortzeko dekretua «Euzkadiko Agintaritzaren Egunkarian». Zoli eta bizkor mugitu ziren, gerran egonik gainera.

Midikuntz Fakultatea eraiki zen hasteko; eta, Oinatikoa bezala, gerra galtzearekin galdu bazen hau ere, interesgarria izan zen alde askotatik. Uste dut, garai hartan lanean ibilitako batekin hizketatzea datekela egokiena, biziena gainera; eta hara nora jo

dugun: Viar jaunarengana, hau izan bait zen orduan kudeatzailerarik bat. Berak emango digu, gure historiak baino zehatzago, gerrateko euskal unibertsitatearen berri. Nik honekin amaitzen dut, tartean Unibertsitate horren eraikitzeko agindu edo dekretoa sartuz, interesgarri bait deritzagu honi ere.

DECRETO

Art. 1.º Queda creada con carácter oficial la Universidad Vasca, cuyo rectorado y órganos de representación y gestión serán designados por el Consejero de Justicia y Cultura.

Art. 2.º Se acuerda la apertura en Bilbao de la Facultad de Medicina de la Universidad Vasca, cuyo curso comenzará a funcionar el día 1.º de diciembre del corriente año.

El Consejero de Justicia y Cultura dictará las disposiciones oportunas para el acondicionamiento de dicha Facultad, el nombramiento de su personal docente y auxiliar, la determinación del plan de estudios y forma de proceder al establecimiento de los correspondientes a los distintos cursos y disciplinas y las demás disposiciones reglamentarias necesarias para el funcionamiento de dicha Facultad.

Art. 3.º El establecimiento de las restantes Facultades de que haya de constar la Universidad Vasca se dispondrá por ulteriores decretos del Gobierno de Euzkadi.

El Presidente del Gobierno provisional.

JOSE A. DE AGUIRRE

El Consejero de Justicia y Cultura,

JESUS M.º DE LEIZAOLA

Hona Viar jaunaren testigutza:

Euskal gazteria osoak irrikatzen zuen Euskal Unibertsitatearen sorrera 1920-1930 hamarraldian, eta haren lehen epe bezala, Midikuntz Fakultate batena, Bilbon lekutua, honen Hospitale handia oso ongi hornitua bait zegoen Fakultatearen Hospitale Klinikoa izateko. Ez da harrigarria, beraz, Euskal Herriak 1936ko abuztu aldera Estatutu Autonomu bat lortua zuelarik, haren lehen erabakietako bat Midikuntz Fakultatearen sorketa izatea; 1936ko abenduaren 3an inauguratu zen ofizialki, Bilboko Hospitale Zibilean, Jose Antonio Agirre, Leizaola eta Viar jaunen mintzaldiekin. Ez da harritzekoa Euskal Gobernua azkar ibiltzea Medikuntz Fakultate hau sortzen, Euskal Herriko giroan bait zegoen horren nahia. Bilboko hiria hautatu, lehenago esan bezala, Basurtoko Hospitalea helburu horretarako egokientzat jotzen zelako hautatu zen. Hiri handietan lekutua behar du izan Unibertsitateak, ikasle-irakasleen elkarrizketatik sortzen den «unibertsital izpiritua»ren aldekoago bait dira haik; hala gertatu zen Pariseko Sorbonako Unibertsitate zaharrean, «unibertsital izpiritua»ren eredu bikain

hartan. Unibertitate orok estatala behar du izan. Unibertitate baten sorrera eta euspena kostosoak dira oso, eta Estatuak bakarrik erantzun diezaizkie Unibertitate batek dituen gastu ikaragarriak. Estatuak, bestalde, Herri guztietan irakaskuntz etxeak sortzeko obligazioa du.

Bilboko Midikuntz Fakultateak gerla guztia zehar funtzionatu zuen Euskal Herrian; ikasle gutirekin, egia, gehienak soldaduska adinekoak bait ziren; hala eta guztiz ere, nazionalak Bilbon sartu arte guztian irauin zuten ikasketek.

Gaske intelijente orok ukan behar du Unibertitaterako helmena: ikasketak egiteko diru biderik ez baldin badu, Estatuak behar adinbatean jarritako bekaren edo «Ikasketa boltsa»ren bat lortzeko ahalbidea ukan behar du.

Euskal Gobernuak Midikuntz euskararen katedra bat sortu zuen, ikasleentzat obligaziozkoa: gibela, barea, birika, bihotza, e. b., adierazteko euskal hitzik badagoenean, erabili egin behar dira; baina hezurak izendatzeko hizkuntza internazional bat dago (e. b., escafoides hitzak «barkillu itxura» esan nahi du; cuboides-ek «kubo itxura», eta horien adiera internazionala da): denak grekotik datoz.

Kimikan ere gorde egin behar dira unibertsaltiki onartutako grekotiko hitzak, e. b., «karbonuaren tetra kloruru»a e. a.

Fakultate guztietan ezarri behar da euskararen ikasketa, gaur ingeleseko edo alemana ikasten diren bezala. Ardurazkoa ez da garbi-garbia izan dadila, praktikoa izan dadila baino.

J. L. L.

SOBRE LA PREHISTORIA DE LA UNIVERSIDAD VASCA

La Universidad de Oñate. Situada en el centro del País Vasco, es la primera Universidad en el País Vasco. Su vida no muy próspera se debió, entre otros factores, al hecho de que estuviese localizada en un condado autónomo, y no integrado en una región; lo que comportaba una serie de vicisitudes a causa de las autoridades civiles y religiosas locales. Después que Espotero la convirtiese en simple Instituto, su momento más importante fue cuando Carlos VII constituyó el Distrito Universitario Vasco. En la línea general de que las Universidades no estén localizadas en las grandes ciudades, Oñate sería lugar apropiado para la futura Universidad Vasca.

El Proyecto de la Universidad Vasca (1866). Proyecto surgido en Navarra y adoptado por las Diputaciones de las cuatro Provincias que trataron de constituir el Distrito Universitario Vasco, cayó por el desenlace de la segunda guerra carlista.

Sociedad de Estudios Vascos (1922). La principal preocupación de la Sociedad y sus Congresos fue la constitución de la Universidad Vasca, aunque no propiamente euskaldun, por lo que su proyecto deja mucho que desear desde nuestro punto de vista. Contra la oposición del Presidente de la Diputación de Vizcaya, Esteban Bilbao, el proyecto fue presentado al Go-

bierno, que, en contra de toda la práctica en la historia del Estado español, dio una rotunda negativa.

La Universidad Vasca y la Facultad de Medicina (1937). Con el proyecto del Estatuto de 1932, cae también el proyecto de la Universidad Vasca, que, por el contrario, constituyó una de las primeras preocupaciones del Gobierno Vasco. Esta Universidad fue fundada a las pocas semanas de la constitución del Gobierno Vasco. Durante los meses de la guerra funcionó la Facultad de Medicina.

SUR LA PREHISTOIRE DE L'UNIVERSITE BASQUE

L'Université d'Oñate. Placée au centre du Pays Basque, c'est la première Université au Pays Basque. La raison de sa vie pas trop prospère était, entre autres, le fait d'être située au milieu d'un comté autonome, non intégré dans une région: cela impliquait un tas de vicissitudes à cause des autorités civiles et ecclésiastiques du lieu. A la suite de la décision d'Espartero de la rendre simple Institut, son moment le plus important fut lorsque Charles VII constitua le District Universitaire Basque. Aujourd'hui, dans la nouvelle ligne qui prône les Universités non localisées à l'intérieur des grandes villes, Oñate pourrait être une place très convenable pour la future Université Basque.

Le Projet de l'Université Basque (1866). Projet né en Navarre et adopté par les Députations (=Conseils généraux des départements) des quatre provinces qui essayèrent de constituer le District Universitaire Basque, fut anéanti à cause de la deuxième guerre carliste.

La Société d'Etudes Basques (1922). Le premier souci de la Société et de ses Congrès était l'établissement de l'Université Basque, mais non pas euskaldun ou basqueparlante. (Ce projet n'est donc pas le meilleur). A cause de l'opposition du Président de la Députation de Biscaye, Esteban Bilbao, le projet fut présenté au Gouvernement de Madrid, que, violant l'habitude dans l'histoire de l'Etat espagnol, donna une claire négative.

L'Université Basque et la Faculté de Médecine (1937). Le projet de l'Université Basque tombe à l'eau en même temps que le Statut de 1932 (=Constitution). Ce projet fut une des préoccupations premières du Gouvernement Basque. L'Université se fonda peu après la formation du Gouvernement Basque. La Faculté de Médecine seule, fonctionna pendant les mois de guerre de 1936.

UEUtik Euskal Unibertsitaterako bidean

Jesus Mari Larrazabal

«Biharko Euskal Unibertsitate baten oinarriak finkatu nahi ditu». Halaxe aldarrikatzen zuen bere helburua IV. UEUren deiak. Helburuaren zuzentasunaz ez da, nire ustez, duda handirik. Lortzen duen ala ez, eta UEUk zein gisatako oinarriak finkatu nahi dituen..., hortxe dago gakoa.

Azken lau urte hauetan¹, hamabost egunetz edo, *Ikas-en* babesean Iparraldean bildua delarik UEU (eta V. UEUren gertaketarako lanak martxan daudela), urrats minimo batzuekin dira, eta aztergaitzat har ditzakegu.

Hasteko, gauza jakina da Euskal Herrian zehar ez zaio la behar bezalako garrantzirik aitortu UEUri. Optimismo faltsuak alde batetara utzirik (76ko deian agertzen den grafiko «interesatuegiak»² sor ditzakeen modukoak, halebria), zerau esan daiteke: UEUk ez duela oraindik oihartzun zabalik euskal populua baitan. Eta honen kausa ongi aztertzekoa da. Bistan da, bestalde, oihartzun ahulagoa duela, azken orduko zenbait diru laguntza gorabehera, euskal populua xedeetatik urrun samar dabilen nagusigoaren klase euskaldun erdihegemonikoaren baitan. Ez nau honek kezkatzen, ordea. Eta bai axolatzen besteak: Donibanen nahiz Uztaritzen, hain fabrika langile gutti ikusleak, hain gutti maila sindikal eta politikoan dihardutenak, hain ikastoletako irakasle gutti, hain ikasle unibertsitari gutti, hain irakasle eta ikerle gutti (hauetaz, 40 urtetik gorakoez mintzo naiz, mintegietara lanera etortakoez, ez hitzaldi batekin eskapo egitera).

Azpian, egoera honen azpian, UEUren funtzionalitate problema bat dagoelakoan nago.

Denok, ia denok, Euskal Unibertsitatea esijitzen dugu. Eranskailuak medio, «Euskal Unibertsitatea, bai» dugu oihukatzen. Euskal Unibertsitateaz, haatik, ez dugu guztiok gauza bera ulertzen. Normala da. Horregatik, erabat premiazko zaigu Euskal Unibertsitate *baten* oinarriak finkatu nahi dituen UEUren proposamenduak (izkributan eta batez ere lau uda hauekako praktikan agertuak) kritikoki arakatzea.

Unibertsitatea, guk ezagutu eta ezagutzen dugun unibertsitatea, sistema kapitalista eta desnazionalizatzailearen aparatu ideologiko eta sostengu politiko trinko den unibertsitatea, zeharo desprestijiatuak dago gure artean. Eta arrazoinez. Desprestijiatuak eta hiltzorian. Usteldua, hil aurretik arras usteldua. Unibertsitate hitzari, hartaz, kirats usaina dario edonondik. Behin betirako baztertu behar dela ere, batek baino gehiagok dio.

Haatik, guk ez dugu, ez, unibertsitate hitza saihesten. Inoiz baino ozenkiago aldarrikatzen dugu Euskal Unibertsitatearen beharra. Eta UEU halaxe ulertu behar dugu, «unibertsitate paralelo»³ bat bezala (paraleloaren zentzu lobatchevskiarrean): hategia, «urte osorako sortuko dugun herri unibertsitatearen haserak».³

I. UEUren BILAKAMENDUAK

Gauzak horrela hartuz, bistan da Donibane Lohitzunen 73an egindakotik Uztaritzen 76an egindakora, bide luzea burutu dela. Donibaneko «katedra hitzaldiak», orohar, funtzio ahulekoak gertatu ziren (nola ikerketari hala zabalketari begira). Areago, barregarri ere bai behin baino gehiagotan, unibertsitate klasikoaren hierarkia —bere ohizko «seriotasuna» eta guzti— eskuartean suertatu ziren hizlari bontzo zenbaitekin berproduzitu «nahi» izan zelako. Eta ez pentsa, diodan hau kontu herri bat denik. Ohar kritiko bezala, Donibanen bertan azken egunean agertutakoa da, aurrerantzean unibertsitatearen ardatza mintegietan finkatu beharko litzatekeela erabakiz; esan nahi baita, urte osoan zehar prestatuko liratekeen lanen bil-, eta aztertoki genituzkeen mintegi berezietan. Bide honetatik abiatu da geroztik UEU.

Mintegiak indartzen etorri zaizkigu Donibanetik Uztaritzera, nahiz gehienetan aldeztetik programatuegiak ez izan. Frogarako, hor ditugu azken uda honetako saioetan aurrera eramane diren 114 mintegiak (pedagogia-psikologian, hizkuntzalaritzan, midikuntzan, zientzia zehatzetan, filosofian, ekonomian...). Aurrera begira ere, mintegi lanak osatu beharko luke unibertsitatearen bizkar hezurra.

Bide markatze honetan, seinatzekoak dira, ezpairik gabe, bi urrats garrantzitsuok, hots: 75eko Agerpena eta 76ko Manifestua⁴. Batak eta besteak merezi dute, bai, azterketa xehetu bat.

Ez naiz 75eko Agerpena komentatzen hasiko hemen. Komentario honetarako lehen urrats batzu, beste nonbait⁵ proposatu nituen, populua/

demokrazia/plangintza hirukotearen inguruan artikulaturik. Hori bai, 76ko Manifestuaz ohar labur zenbait egin nahi nuke:

a) 75eko Agerpenaren bidetik dator Manifestu hau. Eta Agerpenak sorrerazten zituen nahasmendu berak sortzen dizkigu Manifestuak, «herri» kategoriaren zelai eztabaidatu honetan:

- Euskal kultur erakunde orokor eta koordinatzaile baten sorrera komenigarria dela eta..., besteren artean, herri oinarri baten premia markatzen da (2. puntuari).
- Herriak pairatzen duen egoera diglosikoaz hitz egin ondoren, Herri bakoitzak bere hizkuntzan hezia izateko eskubideaz mintzo da 3. puntuaren azken partea.
- Herri kultura aipatzen da 4. puntuari.
- Amnistia orokor bat esijituz, Euskal Herria eta Español Estatupeko beste herriak seinatzen dira 5. puntuari.
- 7. puntuari dugu aberatsena. Zapalkuntza nazionalaren kontra Herriak ikastolak sortu ditu... UEU herri unibertsitatearen haseratzat hartu behar da... Egiteko hau Euskal langileria eta Herri osoari dagokio...

Batek daki, orduan, «herri» hitzaren azpian zer gordetzen den. Begien bistan dagoen galdera, hau da: «herri»ren esangura zein zentzutakoa da, nazionala ala popularra? Modu batera ala bestera erantzun, bada alderik aski Manifestua ulertzeko maneran. Bai eta —inportanteago dena— UEUren bilakamendua zuzentzeko eran.

b) Herri eta demokrazi oinarriak esijitzen dizkio UEUK euskal kultur erakunde orokor horri. UEUK berak oinarri horik dituelako, hain zuzen. (Honetan ere Manifestuak Agerpenari segitzen dio). Ez naiz demokrazia kualifikatu gabe hori salatzen arituko hemen⁶. Demokrazia modan dago. Demokraziaren Amerika Berria aspaldi samar deskubritu zuen populuak —hor European zehar— ez du hainbat maite demokrazia huts hori... Baina, guk bai; gu hiperdemokratak gara, gu, euskaldunok, beti izan gara hiperdemokratak!

c) Oligarkia dominatzailearen kontra, Herriak erresistentzian dihardu. Hor ditugu ikastolak. Orain sistema kapitalistaren eskulan/burulan bereizketa dela eta, eskola profesionalen planteamendua errotik aldatu behar dugu. UEU bereizketa hori gañditzeko asmotan dabilela proklamatzan du Manifestuak. Egiaz, hala ote? Asmoak asmo, uste dut ez dela gauza handirik egiten lan zatiketa horren aurka: 76an Uztaritzeko asanblada batetan norbaitek zioenez, UEU popularretik, benetan, aski urrun gaude oraindik.

d) Aurrera begiratuz, Manifestuak bide efektibo bat markatu nahi du. Horrela ulertzen ditugu horko eskabideak: laguntza, bereziki diru laguntza; Euskaltzaindiari, UEU Euskal Unibertsitatez atar dezala (Akademiarri ba ote dagokio horrelakorik?); politik, erlijio eta kultur erakunde guztiek, Agerpena eta Manifestua ofizialki onar ditzatela. Eskabideetatik at, bada bidegintza horretan pauso garrantzitsuago bat: idazkaritzarako pertsona bat liberatzea. Egia esan, 75eko Abenduaren 26an Donostian egindako

bilkura orokorrean jadanik hartua izan zen erabaki hau, sei hilabete lu-zetan praktikara eramán gabe utzi bazen ere. Puntu honetan, efikazagoa gertatu da Manifestua. UEUk badu bere idazkari liberatua⁷. Hurrengo urratsa —Manifestuari jarraikiz— sailburuak erdiliberatzea litzateke.

Horrelako neurriek bakarrik ekar dezakete, ez duda, UEUren errotzea eta finkatzea. Izan ere, UEUtik Euskal Unibertsitaterako bidean, gakoa Euskal Unibertsitatea egundik *erakunde oso* bilakaraztea baita. Burrukaren burrukaz, kultur aparatu bihurtzea, beste maila apalago eta oinarrizkoago batetan ikastolekin burutu dugun bezalatsu.

II. NON GAUDE ETA NORA GOAZ

Non gauden diodanean, ez dut inolako moduz gaurko UEUren argazkiren bat taxutzeko asmorik. Argarkiaren prozedura ez zait gogoko, labur bizpahiru puntu kritiko azpimarratu nahi ditudan honetan. Hona puntuok:

1. — UEU eta euskal politikagintza

UEU ez da kasualitatez edo mirakuilu batez sortu, are guttiago indartu. UEU ezker abertzaleak sortu eta indartu du, abertzale sozialistek sortu eta indartu dute. (Badakit gaur edozein dela abertzale, edozein sozialista: edozein beraz, abertzale sozialista. Demokrazia modan dagoela, nioen arestian. Demagogia modanago oraindik. Duela bospasei urte ez bezala, egunotan demagogiaz da asko eta asko abertzale sozialista).

Likidazionistak —horrelaxe, bai, blokean harturik— UEUtik at egon dira eta daude. UEU arrotz zaie, euskal kultur mugimendua, orohar, arrotz zaien bezalatsu. Donibanen nahiz Uztaritzen parte hartu duenak badaki ongi honen berri. Eta urtean zehar unibertsitate lanak euskaraz prestatzen dabilenak hobeto daki baieztapen hau zein egia galanta den. Diot, likidazionistek ez dute UEUn lekurik, horretarako lan egiten dutela frogatzen ez duten bitartean. (Nik neuk lanik eginen ez dutenaren segurantzia dut. Nola hasiko zaizkigu, bada, horrelako gauzatan denbora alferrik gal-tzen!). UEUren espazio politikoa ez da, eraikuntzaz beraz, espazio neutru bat, ezker abertzaleko zozo bakarren batzuk besterik pentsa dezaketen arren.

76ko Manifestuan, zera eskatzen zaio talde politiko orori: Uztaritzeko bi agiriak ofizialki onartzea. Hemendik abiatuz —eskabidea eskabide huts ez dadin—, jadanik *conditio sine qua non* bezala ezarri beharko litzateke, hain zuzen, manifestu biok ontzat ematea, talde politiko gisan presentatu ahal izateko UEUn. Ontzat eman, ez hitzez soilik, deklarazio dotore horietakoren baten bidez edo, batez ere egunoroko ekintzen praktikan baizik. Gauzak era honetan eginez gero, 76an Uztaritzen soportatutako eztabaida franko lekuz kanpo legoke. Eta, bestalde, horrela bai urrats bat gehiago aurreratu litzatekeela, UEUk oinarritzat euskal populua eta, bereziki, proletaigoa har ditzan.

Espazio politiko neutru ez, baizik espazio politiko guztiz markatu hori areago markatzeko, aitzinzatzeko; desarroilatzeko leku genuke horrela UEU.

2. — UEU eta erlazio pedagogikoak

Tristea da, baina hala da. Nahiz janzki disimulatuago bat erabili, irakasle/ikasle erlazioak, beste edozein unibertsitate klasikotan bezain autoritario eta hierarkikoak dira UEUen. Jakin, irakasleak daki; ikasi, ikasleak ikasi behar du... Eta erlazio hau ez da suntsitzen klaseak mintegi moduan emanez, adiskidantza handian, mahain borobil baten inguruan... Erlazioak hor dirau, irakasle estatutu tradizionalak hortxe baitirau.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko distantzia ez da ezabatzen borondate hutsarekin. Ez da borondate problema. Diskurtsuaren jakintzako mekanismoen jabe bakarra irakaslea dencan —zer esanik ez irakasle sonatuaren jakintza «garantizaturik» datorrenean—, zer eginik gutti gelditzen zaio ikasleari, diskurtsu hori irenstea ez bada. Bost axola diskurtsua egiaz komunikazio den ala ez, bideratzen duen informazio kantitatea zein neurritakoa den, ahalitzen duen formazio kalitatea zer nolakoa den...

Bortxazko jokaera hauk aski orokorrak ditugu UEUen. UEU erakundetuz doa eta tipo honetako konportamenduak ere bai; edozein gai tratatzerakoan atzeman daitezke: Termodinamikaren 2. printzipioa esplikatzerakoan, Hüsserl-en erredukzio eidentikoa aztertzerakoan, edo euskal populuak eraike behar dituen kontraboterezko aparailuez mintzatzerakoan...

UEUen, hau dela eta, produkzio modu kapitalistari dagokion sistema sozial osoaren erroak berproduzitzen ari gara. Nahi dugularik ala ez, gako ez dago hor. Erro horik, azken finean, funtsean beste nonbait berproduzitzen diren arren (produkzio erlazioen sarean), UEUen ere berprodukzio horri laguntzen ari gara.

Egoera honen gaindipena ez dago erabat UEUren eskutan, zeren, bestela, sistema sozial guztiaren gaindipena UEUren eskutan legokeela pentsatzera obligaturik gengozke eta. UEU, ordea, bide egokirik proposatu beharrean aurkitzen da situazio hau kontraktatzeko. Denok dugu honetaz zer esanik, pedagogiaz eta soziologiaz arduratzen direnek bereziki.

3. — UEU eta ikerketa

Ikerketak apenas izan duen lekurik UEUen. Orain arte, zabalketa lanari lotu zaio gehienbat. Hitz desegoki batez, «dibulgazio» deritzaion horri.

Ez dut nik ukatuko zabalketa lan horren premia gorria, ez eta lan honek betetzen duen funtzio garrantzitsua. Hor dugu gai ezberdinetan aurrera doan hiztegi gintza, lekukorik onena bezala. Hor dugu, halaber, hainbat eta hainbat unibertsitate gai euskaraz jarririk. Testugintza ere hasia da, martxan da.

Ikerketa, ordea, ia zeharo abandonaturik dugu UEUen. Egia: horrek eskatzen dituen bitartekoak (taldeak, finantziamentua...) ez dira nolana-

koak. Haatik, lan honek aurrebaldintza bat du esijitzen: ikerketaren beharren premia eta posibilitatea onartzea. Dudan nago, gaur aurrebaldintza hau kunplitzen denentz. Badirudi *ad calendae graecas* utzi dugula ikerketa.

Horregatik, V. UEUri begira, zerbaiti garrantzia ematekotan, ikerketan zentratuko lirakeen mintegiei emanen nieke. Diot, zabalketa lanari (klaseei) beren lekua kendu gabe. Euskal Unibertsitaterako bidean, bide luze bezain oinarrizko bat burutuko genuke.

* * *

Hau esanik, goazen orain azken puntua ukitzera: nora jo behar du UEUK? Ez da dudarik, UEUtik Euskal Unibertsitatera pasa behar da. Oraintxe batek daki, ordea, zer gordetzen den Euskal Unibertsitate izenaren azpian; zer gorde nahi den, zehatzago esan. Bakoitzak bere errotara daramatza urak... eta jakin ezazu zein interes sekretu (eta ez hain sekretu) izkutatzen diren hor azpian, gauregun honako esijentzia ezberdinak plazaratzen dizkigutenean: Euskal Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Unibertsitate Popularra..., Universidad Vasca, Universidad Popular...

Begien bistan da, UEU ezin daitekeela printzipioen deklarazio batekin kontenta, goiko panorama horren aurrean. UEUK, Euskal Unibertsitateaz zer ulertzen duen garbi adierazi behar du; ez nahitaze manifestu luzeagoak eginez, xedetaz hartzen duen Euskal Unibertsitatera iristeko estrategia eta taktika egokiak mugatuz baino. Esan nahi baita, epe luzerako eta ez hain luzerako plangintzei helduz. Puntu honetan programaketa xehe eta sakon baten premian aurkitzen da UEU.

Egundantik hasi behar lehen pausoak ematen. UEUK erakundetuz joan behar du, autonomoki erakundetuz. Hasteko, mila aldiz efikazago da —gaurko egoeran— Hegoaldean funtziona dezan (Iparraldea abandonatu gabe), ez Uztaritzen uztea. Badirudi —nahiz tristea den— ezen Iparraldeari begira hainbateko funtzionalitaterik ez duela. Bestalde, denbora luzeagoaz ari beharko luke UEUK, eta urtean zehar kurtsilo gisa ere bai³ (Agian, zertxobait ofizialtzeko, xartelen batzu zabaldu beharko litzuzke, sozialki onartuak eta balioztatuak lirakeen xartelak). Azkenik, publikazioaren alderdia zaindu beharko luke: aldizkari propio bat⁴, testuak, liburua, tesi nahiz tesinen artxibo bat...

Programaketa dela eta, debatea jadanik irekia da. Helburuak, bitartekoak eta prozedura egokiak erabaki behar dira. Posizio bat baino gehiago dago honetaz. Azken aldian gehien bistaratu dena posibilstena izanik (bistaratzeko ere toki eta okasio aproposak ez zaizkio falta eta), ohar zenbait egin nahi nuke posibilismoari buruz.

Posibilistek dioskutenez, «posiblearen» politika omen da politika. Hau da, sistema soziopolitikoaren sustraiak bortxatu gabe, ezarritako marko horretan negoziaketaren bidez egiten den hori. Politiko eta negoziante, gauza bera nonbait! Muga hauetatik ateratzen diren oro, zera omen: utopikoak, idealistak, maximalistak..., zozo, ergel... eta nik dakit zer gehiago.

Zentzuzko identifikazioak, zerauk dira: posibilismo berdin minimalismo berdin errealismo.

«Posible» zer den posibilistek erabakitzen digutenean, badakigu posibilitetasun hori zein mugaren barnean mugatzen den. Eta erantzun azkarrik badugu honen aurrean. Nahiz, agian, posibilistek ahantzia duten, euskal populuak eta bereziki proletarگوak posible bihurtu dute behin eta berriro posibilisten «inposiblea», burrukaren burrukaz. Aski da, esaterako, azken hogeit urte hauetako «inposible garaituak» gogoan hartzea.

Minimalismoaren eta delako «maximalismoaren» arteko diferentzia oso sakona da. Gauza czaguna da —analogia analitiko bati jarraikiz— lehen mailan marka bera daramatela biek. Ez, ordea, bigarren mailan. Funtsezko determinazio teorikoa bigarren mailakoa denez, bereizketa biziki inportantea da. Lehen mailan bat datoz, alternatiba tektikoan bat egin dezakete, baina estrategiaz ezberdinak dira. Hau guztiau hain linearitate formalizakoa balitz, oso ongi. Kontuak ez dira hain sinpleak. Estrategiaren eta taktikaren artean dialektikazko koerlazioak daude, strategiaren lehenetsunaren pean. Hau ezin ahantz dezakegu. Minimalistek, halaber, gainontzekoei akordio taktikoak eskatzerakoan, ez lukete hori ahantzi behar.

Errealismoaren bandera hartzeaz ez dut deus esan nahi. Hori baino idealismo (ideologismo) galantagorik! «Errealiterik» balego bezala, «idealiterik» balego bezala... Estatismo horretan, gauzak, arazoak eta soluzioak jadanik emanak baleude bezala... Aldiz, gauzak, arazoak eta soluzioak burrukaren dinamikan definituko ez balira bezala...

UEUtik Euskal Unibertsitatearako bidean, posibilisten projektu «praktikabletatik» at, haiek «utopikotzat» salatzen dituzten projektuetara pasa behar da. «Utopia» hori ez baita hain utopia, «ukronia» hori ez hain ukronia. Euskal populua, eta bereziki proletarگوa, utopia nahiz ukronia hori errealizatzeko ahalmen eta kontzientziarik aski frogatzen ari delako. Posibilismotik askoz urrunago jo duelako eta jo nahi duelako. Posibilisten «inposibilismoa» posibilitatu nahi duelako; eta, gatazkan diharduenek, esperantzarik aski badu helburu «utopiko» horik lortuko dituela, bai, topos berri batetan materializaturik.

¹ Bazter batetan utzi behar dira, ene eritziz, lehentxeagotik Oinatin egiten ziren «unibertsitate saio» direlakoak, zeren Euskal Unibertsitatearen aldeko burruka ez baitzuten argi eta garbi beregain hartzen. Euskarari eskaintzen zioten toki urria, horixe dugu lekukorik onena.

² Ikus zein neurri proportziotan eraikia den ikasleen kopurua azaltzen duen koordenatu bertikalen ardatza; eskala esponenzial batetan egina dirudi.

³ Cf. «Udako IV. Euskal Unibertsitatearen Manifestua», in *Zeruko Argia* 702 edo *Anaitasuna* 323-4.

⁴ Ez dut hemen aipatuko 74eko saioen azken eguneko eztabaida. Biziki inportantea berau, ez neuk probokatu nuelako, diskusioan jarri genuena arras funtsezkoa zelako baizik. Ikerketa mailan, euskaratik kanpoko

beste hainbat mintzairaren leku mugaketa zegoen kuestioan. Egun oraindik, kuestioak bere horretan dirau. Deus erabaki gabe, urtebeteko epean puntu hori finkatzekotan gelditu zen arren, geroztik ez baita debatea berriro ireki, eta, hartaz, ez baita inongo akordiotara heldu.

⁵ Cf. *Zabal* 16 eta 17, Baiona, 1976.

⁶ Cf. *Zabal* 17, Baiona, 1976.

⁷ Ezin inolaz aipatu gabe utzi lau urte hauetan Manex Goienetxek, idazkari bezala, egindako lan neketsua. UEUK asko zor dio berari.

⁸ Beste proiektio zabalago bat ere hor luke: hitzaldi, mahain inguru, kultur aste, eskola sozial, aldizkari, irrati, telebista (?)..

⁹ Erabaki hau 74ean jadanik hartua izan zen, bete ez den arren. 76ko azken asanbladan eskabide berdina egin zen.

J. M. L.

DE UEU A LA UNIVERSIDAD VASCA

La UEU o la Universidad Vasca de Verano es una experiencia reciente. Amparada y organizada por la Asociación cultural del Norte IKAS, la UEU abrió sus puertas por primera vez en Donibane Lohitzun (San Juan de Luz), el verano de 1973. Los dos últimos años se ha celebrado en Landagoien (Us-taritz, Laburdi). Por espacio de 15 a 20 días, son cientos los estudiantes, «andereños», profesores y alfabetizadores que acuden a las clases y seminarios de la Universidad.

La UEU intenta dar una respuesta —provisional y parcial, por supuesto— a la demanda unánime de una Universidad Vasca. Se presenta en sus manifiestos como una Universidad paralela, en contra de la Universidad actual desprestigiada por ser el aparato reproductor del sistema capitalista y des-nacionalizador. La UEU, en sus manifiestos de 1975 y 1976 más que en su praxis universitaria, quiere establecer las bases de una Universidad popular, democrática, socialista. Y se presenta como alternativa pedagógica, política y cultural.

La UEU o la Universidad de verano, que ocupa un espacio político bien definido (abertzale y socialista), exige en su crecimiento una Universidad de signo nuevo, por encima de todos los posibilismos que en definitiva aceptan el sistema sociopolítico en vigor.

DE L'UEU A L'UNIVERSITE BASQUE

L'UEU ou l'Université Basque d'Été est une expérience neuve. Elle a ouvert ses portes pour la première fois à Donibane Lohitzun (Saint-Jean de Luz) pendant l'été de 1973, et elle s'est déroulée les deux dernières années à Landagoien (Labort), toujours sous la protection de l'Association culturelle IKAS du Pays Basque Nord. Ils sont plusieurs centaines les étudiants, professeurs, enseignants et animateurs culturels qui participent chaque été, pour l'espace de 15 à 20 jours, à des cours et des séminaires.

L'UEU est une réponse —quoique provisoire— à cette demande unanime et pressante de l'Université Basque. L'UEU se veut une Université parallèle, par rapport à l'Université classique, système de reproduction capitaliste et

dénationalisateur. Elle aimerait établir les bases d'une Université populaire, démocratique et socialiste, et de fait elle se présente comme une «alternative» pédagogique, politique et culturelle.

L'UEU, ou l'Université Basque d'Été, occupe un espace politique bien précis (patriote et socialiste) et exige avec force comme un avenir non seulement souhaitable mais possible, une Université Basque de signe nouveau. L'UEU méprise toute sorte de possibilisme actuel parce qu'il suppose, au fond, l'acceptation du système socio-politique en place.

Kultur minorien (udako) Unibertsitatea

Joan M. Torrealday

Minoriak Europan: uste baino ugariago

Ihaz Sardignan (Cerdeña) bilkura bat ospatu zen, hain zuzen kultur minorien Unibertsitate bat eraikitzeko asmoz. (Asmoz ala gogoz?). Korsikarrek ere behin baino gehiagotan aipatu dute arazo bera.

Izan ere, ezagutzen ditugun Unibertsitateak (pribatuak direlarik ere, esango nuke) estatalak dira, hots, Estatuaren eta haren kulturaren zerbitzukoak. Esan nahi baita, herri tipien hauziak erakunde «beneragarri» horietarik landa gelditzen direla. Katedra bat edo beste sortu ohi da, dela herri horren hizkuntza ikertzeko, dela minoria hori «fenomeno etnologikotzat» aztertzeko, horren folklorea eta tradizioak medio. Berdin da Bilbon, Salamancan, Barcelonan ala Parisen izan katedra hori.

Bada besterik. Kasu horietan ere, atsegin handiagoz aztertzen dira Ameriketako eta Afrikako minoriak Europakoak baino. Hauk kultura «unibertsalaren» kutsaduraz gesaldurik bide daude. Baina batez ere, hauk etxeko dira, eta beraz mingarriago. Dena den, gauza segurua hau da: ez direla ia-ia aipatu ere egiten, 1968az gero zerbait, baina ezteusa orain ere. Europan minoriarik egon ere ez dagoela pentsatzeko moduan. Hauetaz mintzatzen

denean, politik arazo larriren bategatik mintzatzen da, ez hauen kulturagatik. Hala ete, askok uste baino gehiago dira gurearen motako minoriak Europan. Sergio Salvi jaunak, *Le Nazioni proibite* liburuan «15 nazio egiazko baina debekatu» kontatzen ditu Europan. Hamar dira garrantzizkoenak: Alba (Eskozia), Breizh (Bretainia) Catalunya, Cyrmru (Gales), Euskadi, Friül, Fryslan (Frisia), Karnow (Kornwall), Occitania, Sardigna (Cerdeña). Denean artean 34 milioi biztanle, problematika beretsutan dabiltenak zenbait arazori buruz; horien artean, Unibertsitateari buruz. Hauetaz gain, Sergio Salvik beste bost ttipiagi aipatzen ditu: Man, Foroyar, Rezia, Dolomites, Lapponia.

Are gehiago. Estatu gabeko etni arazoetatik ateratzen bagara, eta kultur minoriei soilki heldu, beste hauk ere erantsi beharko dizkiogu zerrenda horri: irlandarrak, gailegoak, flamandarrak, Suizar Jurakoak, Alsaziarrak, Siziliarrak, Korsikarrak.

Honekin zera adierazi nahi da, alegia, kultur minorien arazoa hor dagoela, soluziotu gabe. Mendebaleko Europakoak aipatu ditugu soilik, bestalde. Nork ez daki Ekialdeko Europa minorien mosaiko bat dela?

Euskal Unibertsitatearen arazoketa planteatzerakoan premiazko iruditu zaigu, arazo horri berez dagokion marko hau ematea. Ez bait da gure arazo pribatua bakarrik. Arazo honi soluzio bat emateko bilaketa ere —*Udako Unibertsitatea* eraikitzea, alegia—, ez da gurea bakarrik. Bide beretsutan dabilta, gutienez, katalunyarrek, okzitanoak, korsikarrak. Udako Unibertsitateaz galdezka, beste batzuringana ere jo izan dut (irlandarrak, bretoiak, galesak, eskoziarrak, esaterako); baina ez dut erantzun eta dokumentazio zehatzik eskuratzerik izan. Batzuk Unibertsitateari eduki ere ez daukate gainera, ez udakorik ez negukorik.

Udako saioak

Gure UEU (Udako Euskal Unibertsitatea), UE (Universit  d'Estate) da korsikarrentzat, UOE (Universitat Occitana d'Estiu) Okzitaniarrentzat, eta UCE (Universitat Catalana d'Estiu de Prada) Katalunyarrentzat.

Denak dira udakoak, izenburuak berak dioenez: hona herri hauen baxterkeriaren beste seinale bat, hots: udan eskolara joan behar, aisia eta opor-egunak horretarako eman behar, neguan «beste unibertsital maila eta hedadura» batetan ibili beharra bait dago. Baina kasu! Udako Unibertsitate hau ez da negukoaren

osagarri. Negukoaren ukapenetik hasten den zerbaiz baizik. Esaterako, Landagoien-en bertan (!), Okzitaniako Tolosako Institutu Katolikoak udaoro kurtsutxo batzu prestatzen zituen, edo espezialista batzurenzako edo gai berezi batzutan sakontzeko. Unibertsitate askok egin ohi dute holakorik.

Oso bestelakoa da kultur minorien Udako Unibertsitatearen planteoa. Hitz batez adierazteko: gaurko Unibertsitate kapitalista eta desnaziotzaileak ezin eman dezakeena lortu nahi da. Hura, honen osatzaile ez baino, ukatzaile da.

Labur bederen, egiten denaren berri eman nahirik, ager ditzagun Udako Unibertsitate hauen berezitasun zenbait:

1. Nik dakidanez, Europako minorietan lehen udako Unibertsitatea ireki, katalanek ireki zuten. 1969an egin zuten lehen-bizikoz; ihaz, beraz, zortzigarrena ospatu zuten. Jende asko izan ohi dute. 1971an, jadanik, bazituzten 300 ikasle eta 50 irakasle. Ihaz bi txandatan egin beharra izan zuten ikastaroa, 10 egun bakoitzean. Ipar aldeko Katalunyan antolatu dute orain arte, Pradan.

Okzitaniarrek ircki zuten berea gero, 1972an, 10 egunekoa hauek ere. Azkenekoa, ihazkoa, Marseillan antolatu dute, hiri problematika ere jasotzeko asmoz.

Urte bete geroago, 1973an, hasi ginen korsikarrak eta gu. 100 bat ikaslerekin hasi zen UEU, eta ihaz, 332 ikasle eta 60 irakaslek lan egin zuten Landagoieneren. UEU ere 10-12 egunetako izan ohi da.

2. Udako Unibertsitate hauk Unibertsitate irekiak dira. Ez da titulurik, karrerarik, adin mugarik eta diplomarik eskatzen bertan eskuhartzeko. Denetarik izaten da partehartzaileetan. Gehienak, hala ere, gazteak. Dei berezia egiten zaie ikasle, irakasle, eta kultur animatzaileei, UEUn bezalatsu:

- «Unibersitat bàsicamente oberta, tothom s'hi pot inscriure, sense consideració d'edat, de sexe o d'estudis fets» (UCE, 1971, programa).
- «...cette Université est ouverte à tous ceux que son programme intéresse, qu'ils soient enseignants, étudiants ou non» (UOE, 1972, programa).
«L'UOE est ouverte à tous: enseignants, étudiants, jeunes travailleurs» (1972, programa).
- «Toutes les ethnies sont invitées à y participer» (UE, 1973, programa).

— «...Le contenu de nos «Ghiurnate» implique la chaleur. Chaleur dans la recherche, l'échange, la fête... etc. avec tous ceux, enseignants ou non, étudiants ou non, érudits, curieux, «militants»... que sont au coeur de notre culture et de nos problèmes Corses» (1973).

3. Programatan badago alderik batetik bestera. Gaien tramenduen aldetik, binaka bereiztuko nituzke: alde batetik, katalunyarrik eta euskaldunak, eta bestetik, okzitaniarrak eta korsikarrak.

Pradan eta Landagoienen beste bietan baino askoz ere gai gehiago erabili dira. Katalunyarrik dira horretan txapeldun, zailantzarik gabe. Edozein gai erabili dute horiek. Aipa ditzagun, esaterako, 1973ko programan agertzen direnak: Oinarriko Hizkuntza, Hizkuntzalaritza eta Literatura, Rosselloko eta Okzitaniako azterketak, Euskal azterketak, Gizarte komunikabideak eta Dospolitizapena, Antzea, Teatroa, Zinema, Pedagogia, etc.

Katalunyak baino askoz ere apalago, baina UEUko 1976ko programak badu hedaturarik: Fisika, Kimika, Matematika, Hizkuntza, Artea, Literatura, Pedagogia, Zinema, Geografia, Antropologia, Historia, Ekonomia, Soziologia, Deretxoa, Zientzia politikoa, etc. Baina jakintza hauk denak, nahiz euskal hizkuntza eta kulturari nahiz Euskal Herriari loturik daude; aski hurbildik egon ere.

Gai hedadura eskasagokoak dira okzitaniarren eta korsikarren programak, zehaztasun gutiagokoak, zientzi mailara eta kultur alor zenbaitetara iritsi gabeak. Okzitaniarren programan, hizkuntza, animazio-teknikalak eta Okzitaniaren azterketa sartzen dira ia bakarrik.

Halatsu Korsikan ere: hizkuntza irakastea, irakasleak prestatzea, Korsikarren analisi sozio-politiko-kulturala.

Gai hauekin eta iluntzetako ekintzekin betetzen dira 10 egunak.

4. Ikastaroaren antolamendu akademikoan hiru parte bezala bereizi ohi dira: irakasle-eskolak (katedra-irakastaldiak), mintegiak (sailetako lanak), eta hirugarren, informazioa, eztabaida eta atsedengarriak. Denborarik gehien, mintegietako lanari eman ohi zaio, elkarlana izanaz gain urtean zehar etengabe eginikakoa eta iker-lana delako. UEUk ere hortik jokatu nahi izan du hase-ratik, beti lortu ez badu ere.

Iluntzetako ekinaldiak ere indar-hartuz doaz, gurean bederen, inguruari irekia egon nahian: elkarrizketak izan daitezke, ezta-

baidak, aurkezpenak, testigutzak, mahain inguruak, antze-erakusketak. Talde politikoeak, kantariak, artistek dute hitza. I haz UEUn, hainbat talde politikok agertu zituen bere bideak; jaialdirik ere izan zen. Marti okzitaniar kantaria izan da inoiz Korsikako Unibertsitatean, Katalunyarrek ia gauoro antolatu ohi dituzte espektakuloak (teatroa, musika, zinema, kantua).

Unibertsitate berriaren oinarriak

Haien manifestu eta programetan ondoriozta daitekeenez, biginkizun nagusi ditu oraintxetik hasita Udako Unibertsitate honek: bateko, ingurua integratzen eta potentziatzen duen bilgune bat izan; eta besteko, etorkizuneko unibertsital erakundearen oinarriak prestatu.

Bai Udako Unibertsitatea eta bereziki gerokoa, oraingoa ez bezalakoak egin nahi lirateke. Horregatik, behin eta berriz, nahiz eta manifestutan programatan baino areago izan, nahiz eta egin-tzetan baino gehiago asmotan izan, Unibertsitate berri baten oinarri gisa eta oraingoaren alternatiba moduan ulertzen du bere burua Udakoak. Hona berritasun honen zenbait puntu argigarri:

1. Minoria eta elite batena ez baino ororena nahi litzateke Unibertsitatea. Oraingoz ez da titulurik eskatzen, adinik esijitzen. Irakasle, ikasle, andereño, langile izan liteke.

2. Jakintz arloko hierarkia desegin nahi litzateke. Talde lana aupatzen da, irakaslearen goitik beherako jakintza emate hori gutiatsiz. Mandarin-aroa amai dadila eskatu da behin eta berriz.

3. Herri Unibertsitate izan nahi luke. Hasteko, herriko hizkuntzan egina. (Korsikarrek bakarrik onartzen dute oraingoz elebitasuna). Herria, gainera, bere osotasun geografiko, politiko-administratibo, kulturazko eta ekonomiazkoan hartzen da. Horrela, ez alferrik bildu dira katalunyarrek eta cuskaldunak Ipar aldean Unibertsitatea udan egiteko.

Ingurutik urrun bizi delakoa salatzen zaio oraingo Unibertsitate moduari. Herrian murgildua egon nahi luke berriak. Okzitaniantzatzat, kasurako, Udako Unibertsitatea topaketa bat da: ikertzaile eta okzitaniar militanteen artekoa, ingurune soziologiakoarekin harremanak sortzeko eta ekintza okzitaniantzarako animatzaileak lantzeko.

Korsikarrek ere bide beretsutik doaz. Harreman-gune bat li-

tzateke hauentzat, Korsikako problema kulturalak ekonomiazko eta politikazkoekin lotuz aztertzeke. Azterleku, beraz, baina baita ekintza-sorburu ere.

4. Behetik gora eraiki nahi litzateke Unibertsitatea. Bistan da, kultur minorien problemak, inguruko kultura handienak ez direlako. Egunoro bizi dugu tirandura hori. Haiei jaramon egin behar die minoriñen Unibertsitateak, zapaltzaile gerta ez dadin. Kultur egoera hori haintzat harturik, udako ikastarotan, denbora asko ematen zaio hizkuntza aztertzeari, prestatzeari, batikbat irakaskuntz mailan.

OCeko hizkuntza, lan hizkuntza bezala praktikatu: hona okzitaniarren helburuetarik bat. Korsikarren asmorik funtsezkoena, hizkuntza irakastea, irakasleak prestatzea, irakasmetodoak gertutzea izan da orain arte. Katalunyarrek ere garrantzi handia ematen diote hizkuntzaren jakintza-prestaketari. Eta zer esanik ez guk, dela ikastola mailan, dela zientzian (bereziki zehatzean, oraingoz).

5. Unibertsitate salatari eta erreibindikatzaila da minoriena.

Sistema kapitalistaren euskarri eta organo erreproduzitzailetzat jotzen da oraingoa. Eta desnaziotzaila da, kultur minoriak azpian hartuz, kultura «unibertsal» horren birsortzaile eta justifikatzaile. David eta Goliat bezalatsu daude orain biak aurrez aurre.

Minorien Unibertsitatearen euslerik zintzoenak, abertzale ezkertiarrak dira gehienbat. Gurean eta bestetan. Korsikarren bila-kaera eta egoera, beste zenbaitena ere badelakoan nago. Hango Unibertsitatearen antolatzaileetako batek, J. B. Stromboni jaunak, oraintsu idazten zidanez, jaiotzatik abertzalea izan da hango Unibertsitatea eta ezkertiartzat joan da berrikitan. Barne autonomiaz asetzen ez direnak dira orain kudeatzaile. Beti kanpoan gelditu nahi izan duenik ere bada: PCF eta CGT. Abertzale ezkertiarren ekintza bezala jotzen da Udako Unibertsitatea lekuri gehienetan.

6. Udako Unibertsitatea, Udakoa bakarrik izan, damurik eta ezinbestean da hola. Arestian esan bezala, osagarri ez baino salatari bait da. Bestearen hutsuneak betetzeko ez, baizik eta berria sortzeko eraikia. Korsikarrek, beren helburu nagusienetzat, horixe zuten espreski jarria: lehen bait lehen, Korsikan unibertsital egiturak sortzeko soluziobide zehatzak bilatzea. Urteak pasa dira, katalunyarrek Unibertsitate katalanaren asmoa agertu zutenetik. Euskal Unibertsitatearen guraria aldarrikatu eta haren

oinarri minimoak jarri nahi izan dituzte UEUko azken bi manifestuek. Oraingo Unibertsitate ofizialetik ez baino, Unibertsitate berri bat kreetzetik abiatzearen aldekoa dirudi UEUk.

Urte osoko, etengabeko Unibertsitatearen atzetik doaz denak.

Minorien Unibertsitateak Unibertsitate klasikoaren alternatiba izan nahi luke; baina, oraingoz, lehen urrats apal bat da. Edo nahiago bada, garraisi bat. Premia aldarrikatzen da urteoro 10 egunez, guraria agertzen, egin daitekeela frogatzen agian; baina, azken finean, honen soluzioa ez da, dakigunez, kultur hesparrukoa, ez eta ekonomi arlokoa, ez eta arazo tekniko bat. Europako herri tipien politik etorkizunak erabakiko du hauen Unibertsitatearena.

J. M. T.

LA UNIVERSIDAD DE VERANO DE LAS MINORIAS

Hay que comenzar por constatar un hecho demasiadas veces interesadamente olvidado: la existencia de las minorías étnicas y culturales en Europa. Son muchos millones los que forman parte de estas minorías y de sus problemas.

Todos ellos luchan con problemáticas similares en muchos dominios. Uno de ellos es precisamente el universitario. Parece, pues, evidente que al estudio de la Universidad vasca se le de su cuadro teórico y cultural correspondiente: el de las minorías. Poseemos información de las minorías catalana, occitana, corsa, además de la vasca.

Por ahora las minorías culturales europeas no poseen sino la Universidad de verano. Son de creación reciente. La primera, la catalana, surgió el 69, en Prada (Estado francés). El 72 nació la occitana. Y al año siguiente la corsa y la nuestra. El promedio de duración es de 10 a 15 días. Tienen lugar en la época de vacaciones. Reúnen a cientos de profesores, estudiantes, animadores culturales, alfabetizadores y militantes.

En ningún momento pueden considerarse estas Universidades como complementarias de las oficiales. Las niegan más bien: se oponen radicalmente (más en la teoría que en la praxis) a la Universidad clasista capitalista y desnacionalizadora tradicional. La Universidad de verano es una Universidad reivindicativa. Se presenta como alternativa pedagógica y sociocultural, y es sostenida mayoritariamente por la izquierda «abertzale». Se presenta como una Universidad democrática y popular, y no utópica sino situada, inmersa en su pueblo asumiendo su problemática tanto nacional como social.

L'UNIVERSITE D'ETE DES MINORITES

Il faut d'abord constater un fait trop oublié par intérêt: l'existence des minorités ethniques et culturelles en Europe, chez nous. Ceux qui font partie de ces minorités et de leurs problèmes sont au nombre de plusieurs millions.

Ils luttent tous avec des problèmes similaires en beaucoup de domaines. Un de ces domaines est précisément l'Université. Il paraît, donc, évident de donner à l'étude de l'Université Basque le cadre théorique et culturel qui lui revient: celui des minorités. Nous possédons des informations des catalans, des occitans, des corses, et, pour cause, des basques.

Pour le moment les minorités culturelles n'ont que l'Université d'été. De création récente, la première, la catalane, date de 1969, à Prada (dans l'Etat français). En 1972 naquit l'occitane. Et un an plus tard, la corse et la nôtre. Elles durent de 10 à 15 jours en moyenne. Elle a lieu pendant les vacances de l'été. Plusieurs centaines d'enseignants, d'étudiants, d'animateurs culturels, des militants s'y réunissent.

A aucun moment on ne peut les considérer comme des universités complémentaires des universités officielles. Elles sont plutôt leur négation: elles s'opposent dans leur principe (davantage dans la théorie que dans la pratique) à l'Université classiste capitaliste et dénationalisatrice. L'Université d'été est revendicative. Elle se présente en tant qu'alternative pédagogique et socioculturelle; elle est soutenue par la gauche «abertzale». Elle se veut une Université démocratique et populaire; non point utopique mais située, dans son peuple et assumant la problématique nationale et sociale.

Euskal Herriaren unibertsital egoera

1. — Lau unibertsital barruti

Euskal Herria lau unibertsital barrutitan banaturik dago: Araba eta Gipuzkoa, Valladolid-ko unibertsital barrutiaren barruan daude; Nafarroa, Zaragozako unibertsital barrutiaren barruan; Iparraldeko hiru Probintziak, Bordaleko unibertsital barrutian; eta Lejoako Unibertsitateak bere unibertsital autonomia du.

— *Euskal Herriak ez du inolako unibertsital eta bezkuntz politikaren batasunik.*

— *Euskal Herriko unibertsital politika eta programaketarik handiena kanpotik zuzentzen dute.*

2. — Hiru Unibertsitate, zenbait Fakultate, eta beste

Hiru Unibertsitate daude Euskal Herrian: *Lejoako Unibertsitate ofiziala* (Hiru Fakultate, Eskola Tekniko Goiko bat eta lau Unibertsital Eskola); *Deustuko Jesuiten Unibertsitatea* (Bost Fakultate, hiru Institutu eta bost Eskola berezi); Filologiaren eta Historiaren sailak Donostiako EUTGn ere baditu; *OPUSen Universidad de Na-*

varra delakoa (Bederatzi Fakultate eta hainbat Institutu eta Eskola Tekniko Goiko: Donostian dauka finkatuta Zientzi Fakultate bat eta Industrial Injinaritzaren Eskola Tekniko Goiko bat).

Hauetaz aparte, Valladolid-ko Unibertsitateak hiru Fakultate ditu Donostian finkaturik: Zuzena, Kimik Zientziak eta Ekonomi Zientziak; eta Unibertsital Kolegio bat Gasteizen. Zaragozako Unibertsitateak bi Unibertsital Eskola ditu Iruñen. Bordaleko Unibertsitateak Zuzenaren Fakultate bat du Baionan. Hauetaz gainera, Teologi Fakultate bat dago, Burgosen eta Gasteizen artean banatua: Facultad de Teología del Norte.

- *Unibertsitate ofizialaren aldean, indar haundia du Unibertsitate pribatuak Euskal Herrian: Espainiako Estatu osoan dauden lau Unibertsitate pribatutatik bi Euskal Herrian finkaturik.*
- *Unibertsitate ofizialen hutsunea, nolabait —oso nolabait bakarrik— «Universidad a distancia» delakoaz bete nahi izan da nonbait: Horietako hiru Zentru daude Euskal Herrian: Gasteizen, Iruñen eta Bergaran.*

3. — Hainbat hutsune eta gehiegikeria batzu

Unibertsital Barruti bat bakarrik ezean, eta hainbat zuzendaritzaren artean, eta Unibertsitate ofizial eta pribatuen koordinaketarik ezean, sakabanatze ikaragarria dago, alde batetik; hutsune handiak, bestetik, eta gehiegikeria batzu ere bai.

- *Alor batzutan Fakultate gehiegi dago: Euskal Herrian Zuzenaren lau Fakultate daude (Baionan, Donostian, Iruñen eta Deustun); hiru Teologiaren Fakultate (Gasteizen, Deustun eta Iruñen).*
- *Fakultate asko falta dira, batez ere Unibertsitate ofizialari begiratzen badiogu eta euskal unibertsital Barruti osotu bati begiratzen badiogu. Berezik, hutsune handia dago «Filosofía y Letras» deitzen den Fakultatean, Valladolid-ek Gasteizen duen unibertsital Kolegioaz aparte ez bait dago ezer Unibertsitate ofizialetan.*
- *Orokorki harturik, giza jakintzak (Herri baten kultur bizizan hain garrantzizkoak direnak) Euskal Herriko irakaskuntza ofizialetik kanpo daude.*

4 — Euskal Irakasleen eta ikasleen arazo handi bat

Euskal Herriko Unibertsital egoera honegatik, euskal ikasle asko eta hainbat irakasle Euskal Herritik kanpora dabiltza, nahiz eta horien gogoia hemen ikastekoa eta irakastekoa izan. Euskal gaietan berezituak diren zenbait irakasle, beren gaiak kanpoan irakasten ari dira, gogoz hemen irakatsiko luketelarik, baldintzak bestelakoak balira: Mitxelena, Haritchelar, Monreal, etab.

- *Ikasleek, beren herritik kanpo eta sarritan urruli joan behar dute, beren herriko ingurunetik aparte bizi eta dirutan gastu handiagoak egin beharrean.*
- *Gure jakintsu asko beste herritarako ari dira lanean, Euskal Herriak horien premia handia izan arren.*

5. — Euskal Kultur gaiak, bazterreko gaiak

Euskal Herriko Unibertsitateetan, euskal kultur gaiak ia baztertuta eta ahantzita daude, edo, bestela, «hirugarren edo laugarren» mailako gai bezala ematen dira. Iruñen badago «Lengua y Cultura Hispánicas» deituriko Institutu bat, baina ez dago euskal Kulturaren eta Hizkuntzaren Instituturik, J. M. Barandiaranek Etnologiaz ematen dituen eskoletaz aparte. Deustun, Unibertsitateetik aparte bezala, «Departamento de Estudios Vizcaínos» delakoa ihardun da orain arte. Aurtendik hasirik bakarrik, Unibertsitateak berak jarri du Euskal Filologiaren sail bat Deustun bertan eta Donostian.

- *Euskal kultura partikularra baztertua eta zokoratua egon da eta dago Euskal Herriko unibertsital irakaskuntzan.*
- *Euskara bera ia oraintxe arte erabat baztertua egon da Euskal Herriko Unibertsitateetan. Donostian eta Bilbon oraintxe hasi dira alor horretan zerbait onbartzten, ikasleen eskabideek eta burrukak eraginda.*

Bide honetatik zaila izango da Euskal Unibertsitatearen asmoa aurrera eramatea.

Unibertsitatea eta Irakaskuntza gure artean

Koldo Mitxelena

Bi hitz

Aspaldi eskatua nuen (eta neronek hitzemana ere bai) artikuluren bat *Jakin*-erako, gai hontaz. Azkenik, hemen nator bestetan irakurri berria dudan gauzatxo batekin. Hitzaldi delako hori Bergaran egin dut, azaroaren 4ean. Beheraxeago ikus dezake irakurleak nondik sortu zen ni han mintzatzea, egun haietako jaialdiak zirela medio beste zenbait ere mintzatu ziren bezalaxe.*

Gure Unibertsitateaz mintzatzea, nik uste, gure Irakaskuntzaz mintzatzea adina da, honek dituen eta izan ditzakeen gaitz eta makurrak, maiz aski, haren faltaz sortzen baitira. Zorionean, hasiak gara, gero eta usuago, asmoak eta iritziak agertzen. Nor geure zokotik, noski, baina komeni da hangoak eta hemengoak entzutea eta biltzea, goragoko ikuspuntu batetik arazozen ingurumariak zabalkiago eta zehazkiago aztertzeke gauza izan gaitezen.

Gaiak —orapiloak eta orapiloen askabideak— ongi hautatu behar genituzke, aldian aldikoak ditugularik beti begien aurrean: oraingoak orain, eta gerokoak gero. Nik behintzat ez nituzke, arrazoi

Iarririk gabe, orain eskura ditzakegun hala-holakoak bertan behe-
ra utziko, geroko on eta hobeen truk. Esperimendu bideak lilu-
ragarri dira gehienetan, baina ez gaude behar bada hor barrena
abiatzeko garairik egokienean.

Irakaskuntzan, erabat harturik goitik beheraino, istilu la-
rriak ikusi beharrean gara, lehengoz gainera, oker ez banabil,
erdian harrapatuko gaituzten indarrak prest baitaude dagoe-
neko, zizpaz harmaturik. Alde batetik Espainiako ezkertiarak,
bai baitute kekakizunik aski berrogeizaro aspergarri hontan iku-
si eta nozitu izan behar dituzten bidegabeekin: Irakurria bide
duzue «Una alternativa para la enseñanza» deritzan dokumen-
tua. Bestetik, berriz, FERekoak, Elizaren izena daramatenak:
zein eskubidez daramaten, bestek esan beza. Hauek ez dute
fitsik ere galdu nahi indarkeriaren indarkeriaz sakeleratu dute-
netik. Eta bada ezpada ere, galduko duten beldurrez, eskean da-
biltza, inoiz baino gehiagoren eske. Baita gure artean ere, bes-
tetan bezanbat. Nik bederen horien ordezkariekin topo egin dut
bi aldiz, gutien uste nuen lekuan.

Hor, dirudienez, delako sukursalismoa ez da bekatu, harro-
harro eta lotsagabeki azaltzen baitute. Euskal herria, hor kon-
pon: badaude goragoko interesak, dudarik gabe. Badugu ordu,
beraz, gure Herria gogoan dugunok nondik eta nola jo behar
dugun pentsatzen hasteko. Bestela, maiz gertatu zaigunez, ardi
galduak izango gara berriz ere, otso harraparien artean.

Oñatiko Unibertsitatea eta Bergarako Mintegia

Ezinbesteko dirudi, gure artean aspaldidanik datorren ohi-
turari amore emanaz, Bergarako Mintegia eta Oñatiko Uniber-
tsitatea, maila hortan izan dugun irakastegirik beteena, bata bes-
tearen segidan aipatzea. Horrela egingo dut, bada, nik ere. Ez,
ordea, bata bestearekin berdintzeko, maiz egin ohi denez, bata
besteari kontrajartzeko baizik, legezkoago den bezala. 1750 ingu-
ruan, izan ere, eta lehendanik zetorren gaitza, Erdi Haroan sor-
tu ziren Unibertsitateak aski zaharkituak agertzen zaizkigu
gehienbat. Erdi Haroan eta Erdi Harokoen eredura sortuak, gehi
dezadan, gure Oñatiko hau ere, nahiz XVI. mendean jaio, ez
baitzen istudioak eraberritzeko asmotan etorri, garai beretsuan
Alcalákoa edo Collège de France, esate baterako, etorri ziren
bezala. Eta, jatorrizko bekatu hontaz dena den, gurea ez zen
skula sortaileak gogoan zuen mailara heldu: hori, gainera, egia
baldin bada bere lehen abiadan, are egia garbiago da hirurehun

urtez geroago, biptiak joa aurkitzen dugunean. Hemen ez ezik, orobat gertatzen zen bestetan ere, izen gehiago zuen Salamanca-koan, esate baterako¹.

Bergarakoa, berriz, bide berriak urratzeko eta zabaltzeko izan zen eraikia. Bascongadakoeak, eta jokabide horri zuzen de-ritzat, ez ziren sekula Oñatiren kontra saiatu. Aitzitik, norbait-tek egia hori ixilpean gorde nahi izan badu ere, haren alde jo-katu zuten ahaleginean, Madrilen eta. Ez zuen uste, ordea, Uni-bertsitate zaharrak orduko beharrak eta premiak hase-bete zitza-keenik, arrazoi osoz, noski. Haren aldamenean, haren aldame-
nean eta ez haren aurka, jaso zuten, beraz, irakastegi berria, jakite «berriaren» (berria baitzen oraindik gurean) bizileku izan zedin eta teknikaren bitartez Probintzia hauen ekonomiak falta zuen gidaritzza har zezan.

Hemen esango du agian norbaitek «klase» jakin batek sortu zuela bai Bascongada eta baita Bergarako Mintegia ere: bestela esan, XVI. mendeko apezpikuak egin zuen gisa egin zuten XVIII.eko zalduntxoek. Hori egia da, dudarik gabe, eta, egia izateaz gainera, I. Gurrutxaga zenak aspaldi esana, oraingoen zain egon gabe. Beste kontua da, ordea, hemen dihoakiguna: ea orduko klase gidari eta nagusi horrek, klase interesen alde jo-
katzen zuelarik, ez ote zuen gainera herri interesen —orduko-
en eta gerokoen— alde jokatu, kontra baino areago.

Gerokoeak, behintzat, ez dute beste horrenbeste egin, gauza ez zirelako edo gogoak eman ez zirelako, berdin da. Frantziako Iraultzak, hainbeste gauza egin eta desegin zituenak, Bergarako Mintegia ahuldu zuen eta azkenean irentsi. Eta Iraultza horren ume, jatorra bezain borta, zen Napoleonen eskutik etorri bide zen Europak ezagutu duen Unibertsitate klasikoa: haren deitura darama behinik-behin izengoitiz. Eta Unibertsitate horrek ekarri behar zuen azken buruan Oñatikoaren ondamendia. Historiola-
rien eginbidea da, izatekotan ere, hori zergatik gertatu zen era-
bakitzea. Bitarteko izan ziren, nolana ere, askoren axolakabe-
keria eta gehiagoren seta. Lege zaharreko egiturek ezin zezake-
ten lehengo egituretan iraun Lege berriaren mendean, hots, ezin
iraun zezaketen aldakuntza eta antolamendu larririk gabe². Eta
guztia osorik gorde nahi zutenek deus ere gabe, edo horrelatsu,
gelditu behar izan zuten, maizenez gertatu ohi denez.

Lege berrien markoan bide berri bila abiatu garenean, duela
ehunen bat urtez geroz, ez dugu gehiegi atara. Halabeharrez,
asmo eta jakitez jokatu ez genuelako, ez dakit. Nolanahi ere
den, beranduxko ibili ohi gara: Nafarroako Diputazioak egin

zuen proposamendua 1868ko Iraultzaren bezperan agertu zen, eta Bilboko Medikuntza Fakultatea tiroka ari ginenean sortu. Bat bakarrak aurkitu zuen kokalekua lege berrien barruan. Mende honekin bateratsu jaio zen Deustukoa, gero argi eta garbi ikus dezakegun neurrian hazi eta zabalduko zena³.

Estatua eta irakaskuntza pribatua

Unibertsitate gaia luzaz ukitu dut mundu guztiak beti pentsatu duelako hor dagoela, nolazpait ere, gure irakaskuntza osoaren giltzarria. Gaitza, irakaskuntza sailean, aspaldidanik dator kigu. Gure agintariak, eta foruen garaiko agintariez ari naiz, ez ziren inoiz gehiegi arduratu ez euskaraz, ez euskal kulturaz, ezta, batez ere, kulturaren zimentarri den irakaskuntzaz. Eskola euskararen eta euskal gauzen etsai izan zen garai hartan bertan ere, batek baino gehiagok dioenez, eta etsai segitu du izaten, gero eta etsaiago, oiainsu arte.

Estatuaren eskuetan —hau da, Madrilgoen eskuetan— gelditu zitzaigun gehienbat irakaskuntza, haur-eskoletarik hasi eta gorengo mailaraino. Monopolio kaltegarri horrek, ordea, laster aurkitu zuen sendabidea, handik eta hemendik, lehengoz gainera, sartu zitzaizkigun erlijio ordenekin, fraile eta mojekin. Izatez ziren, dakigunez, moja eta fraile; lanbidez, berriz, irakasle, tituluak gora-behera. Eta horren ondotik nabarmendu zen gure arteko irakaskuntzaren erdibitzea, hirugarren biderik ez baitzuen inork asmatzen.

Erdibanatze horrek bazuen, bistan da, klase erroa. Hiri larri xamar batean, behartsu kontukoak joaten ziren «publiketara»⁴; zerbait zezaketenek, nahiz izandunegiak ez izan, fraile-mojen ikas-tetxetara bidali ohi zituzten haurrak. Leku egokiagoak zituztelako, irakasleak saiatuagoak zirelako, eta abar. Izana zuten hobea ala izena, ez dakit, baina horrelatsu gertatu ohi zen.

Kristautasunaren aldetik —eta hemen dago, segur aski, haur-ziaren muina—, batzuek bero omen ziren eta besteak hotz, gehienez ere epel. Hala zen, behar bada, baina ez da hau niri hemen dihoakidan gaia: gure arteko ondorioei bagagozkie, gainera, ez da hori hain garbi agertzen. Beste zerbait ere nahasten zen, ordea, hortaz landa, eta beste zerbait horrek erdiz-erdi hartzen du darabilgun arloa.

Estatua, eta Estatuarengandik zetorkigun irakaskuntza, etsai omen genuen, hizkuntzaren eta euskal kulturaren etsai. Baina

egia horrek hain egiazko ez den beste puntua zeraman ondotik: etsai dugu Estatua, besteak ditugu, beraz, lagun eta laguntzaile. Hori, salbuespen guztiak salbu, gezurra zela, ordea, guztiok dakigu, bai haurrek, bai gurasoek: geure buruak zuritzeko asmatu genuen gezurra. Pribatukoak maizegi saiatu ohi ziren, bere «abertzaletasuna» erakusteko⁵, nazionalekoei gainak ematen. Eta gu ez ginen gauza izan —indarrrik ez genuelako, nola joka erakutsiko ziguten gidariak falta zitzaizkigulako, begiramen itsu batek mututzen gintuelako— zor zitzaiguna eskatzeko eta eskuratzeko. Dena zor zigutelarik, gainera: lurrak eta etxeak berak, nolana-hiko laguntzak, egunoroko dirubidea. Gai hortan inor esker gaiztoko azaldu bada, ez gara gu izan. Ez, arraioa!

Gero, azken aldi hontan, gertatu zaizkigunak ez dago luzaz kontatu beharrik, gogoan eta are gogoanegi ditugulako. Arazo hontan, laburtzea da zaila, ez luzatzea. Neure laburpena eskainiko dizuet, bada, besterenik eman ezinean, irakaskuntzari nagokiola eta ez beste ezeri. Gerratea igaro genuen, gure arteko hirugarrena, oker ez banabil. Galtzaile nor izan zen garbi dagoela uste dut: ni neroni, adibidez. Horrek, ordea, axola guti du. Axolazkoa beste zerbait da, guztiok bihotzean daramagun arantza: Euskal herria, oro har, galtzaile izan zela. Eta galtzaile izan zen, esate baterako, Katalunia galtzaile izan ez zen neurrian. Noren erruz gertatu zen horrela, ez zait ardura: geure erruz gertatu zela, eta ez bestegatik, aitortuko dizuet, nahi baduzue. Errudunak salatzeak, hor dago koska, ez baititu makurrak zuzenduko.

Irabazleen orapiloa askatzeari nekezago deritzat. Ugari izan ziren, baina, beste guztien gain, irabazle bakar bat gelditu zen, jaun eta buruzagi. Bazekien horrek, buruzagitza gordeko bazuen, besteren interesen zerbitzari bihurtu beharko zuela: zerbitzari, baina neurri jakin batean. Sarraskirik aski bazegoen gerra ondoan pizti-hegazti harrapariak bere gose hase-czina pixkaren bat berdin zezaten. Eta buruzagitza bakarraren mendeko ziren bitartean, haren esaneko mirabe ixil, borroka bidez eskura zituen irabazkinak bake moduz parti zitzakeen, nagusi bezain morroi-neskame zituenak elkarren lehian, elkarri mokoka, Goikoa salbu, zebiltzaino.

Bere zentzoei buruz, maltusianismo gisako zerbaitetara jotzen Estatuak luzaroan, pribatuak errazkiago zabal eta heda zitezten: ez dago gogoratzea besterik nola bat-batean giltzatu zituen Irunen, Oñatin eta bestetan Errepublikak ireki zituen Istituto edo Instituto-kideak. Gero, zorioneko autarkia —gaitz guztien erremedio behar zukeena— baztertu zen bezalatsu, berriz

lehengoak eta gehiago han-hemenka barreiatzeko. Nora-ezekoa izan zen haize-aldaketa hori, nora-ezeko bultzadek eragina. Gurean, ordea, ez dira berez hazi, normaltasun batean behar zuketenez, Euskal herri osoari begira, jendeak —jende arruntak eta ez hain arruntak— ez baitu hitzik atera, mintzatzea ukatu zaiolako, bai zuzenean eta bai zehar-bidez ere. Madril aldekoen gogo gaiztoa aski ez genuelarik, etxekoek sortu digute nahikoa traba, eragozpen eta nahaspila. Orain, ez edukitzeaz gainera, ez dakigu hagitz ongi zeren beharrean garen berehalako batean eta zeren premian geroxeagoko. Hobeki esan, badakiela uste badu ere zenbaitek, jakitunen iritziak ez datoz beti bat, are punturik nagusienetan.

Ilunbe beltzen artean, haatik, agertu zitzaigun argia, eta inork espero ezin izan zezakeen adinakoa. Galzorian zegoen hizkuntzari eutsi nahiak sortu zituen gure arteko ikastolak⁶, izkutuan lehenbizikoz, erdi-agirian gero (ez ikusia egiten zieten hartan), legez azkenik. Ikastolak heldu ziren lizeo mailara eta horien inguruan ernatu eta hazi dira hainbeste mota bateko eta besteko lantegi. Euskara eta euskal irakaskuntza egunean eguneango premiari aurre emateko gai izan zitezten egin direnez ari naiz, testugintzan eta irakasle prestaeran, adibidez.

Azkenean, deiaren larriak eta ozenak ernarazia, Rip van Winckle-ren antzera aspaldidanikako lozorroan zetzan Euskaltzaindia bera ere iratzarri zen eta, iratzarririk, batasunerako bideetan pentsatzen hasi. Ez zen hori, zenbait erdal-euskaldunek uste duenez, saltsero batzuen egitekoa izan, ez alderatzeko ere. *Compulsa feci*, esan dezake Euskaltzaindiak egitari kalterik egin gabe, harako Aita Saindu sonatu hark heriotzeko orduan esan omen zuenaren arabera. Eta ez noa aditzera ematera zein ordenatakoa zen eta zein ordena zeukan gogoan.

Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskal Unibertsitatea

Gorago ere jo da, gorengo mailaraino. «Badugu Euskal Unibertsitatea!» oihu egin du oraintsu *Anaitasuna* aldizkariak, 323-324garrengoan, Uztarizko azken udaldiko irakastaldiaren ondoan. Beheraxeago, egia esan, aitortzen ere du, nahiz oraindik ez izan, izateko bidean gaudela bederen: «Berriro ere..., ez dugun, nahi dugun eta behar dugun *benetako eta urte osoko* Euskal Unibertsitate demokratiko eta herritar baten oinharria eta sustraia izan nahi duela adierazi du».

Hitz bi esan nahi nituzke hontaz, Unibertsitateari buruz behin

eta berriro eragile gisa agertu naizenez gero. Ez beza inork, mesedez, harrokeriatzat har erabili dudan hitza. Euskaraz dakienak ongi daki zerbaiti eragiten ari dena zerbait nahasten ari dela. Eragilek, beraz, bazter-nahastaile edo esan nahi du hemen. Nahasketan ibili bainaiz ni, buru-belarri, ea eraginaren eraginez eta nahasiaren nahasiaz zerbait bereizten ote dugun, pisuagoak behe-
ra eta arinagoak gora doazelako, besterik ez bada ere.

Bistan da, Unibertsitate eskea gurean nabarmendu zenez gero (eta ni jaio orduko entzuten zen oihu hori), ez gabiltzala guztiok gauza bat-beraren bila: are gehiago, bat-bederak ere ez duela beti gauza berbera eskatzen. Bitara har daiteke hori, gutienez, oraindik orain Karlos Santamaria jaunak (ik. *Zeruko Argia*, 708. zenbakia) erakutsi digunez. Ederki berezi eta egoki izendatu dituen Unibertsitate horiek hauexek dira: Euskal Unibertsitatea, alde batetik, eta Euskal Herriko Unibertsitatea, bestetik. Hura, dirudienez, zailago date eta urrutiago legoke, azken helburu bezala agertzen zaigunez gero; hau, itxuraz, errazago eta lehenago erdiets dezakegu. Ez dira gauza bera, ezta alderatzeko ere, baina ez daude elkarren kontra. Eta, horrexegatik, ez genuke inolaz ere deus egin behar elkarren osagarri liratekeenak elkarren etsai tankeran ager daitezen.

Ezberdintasun franko badago bataren eta bestearen artean, baina ezberdintasun guztien funtsa eta erroa hitz bakar batean bil daiteke: hizkuntzaz lirateke orain ezberdinak. Gainerakoak gora-behera, eta gainerakoak ez dira hutsaren hurrengoak, ez dut uste, ez dugu uste, euskararik gabe deus denik euskal kulturaren izena eskubide osoz har dezakeenik. Eta Euskal herriko Unibertsitatean, geure eskuan bagenu ere, ikas- eta irakas-gai izan daiteke euskara: hala behar luke izan aurren-aurrenetik, hobeki esan. Ezin izan daiteke, ordea, oraingoz, ikas- eta irakas-bide nagusi. Nahi-ta-etzko genuke hortarako ikasle-irakaslerik gehienak euskaldun euskaldunduak izan litezen, ez onenean ere euskalduntzen ari direnak.

Euskara ez da (ba ote dago esan beharrik?) beste edozein hizkuntza baino zailago nahiz errazago. Zailago da, ordea, inguruko erdaldunentzat beste edozein inguruko erdara baino. Ezin genezake, bada, egin Errepublika garaian Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan egin ohi zutena: gogoko zuten hizkuntzaz mintzatzen zirela irakasleak, ikaslea, katalana ez izan arren, esaten zenaz beti jabetuko zelakoan.

Euskal herriko Unibertsitatea berehala behar dugu, gerora gabe, eta Euskal herriko Unibertsitate ofiziala. Unibertsitate ofi-

zial osoa, bere barruti eta guzti: barruti legeak alda daitezke Espainian (*distrito universitario*, izenez eta izanez, Frantziako *ressort académique*-tik mailebatua da)', baina, lehengoan dirauteino, hor aurkitu beharko du gureak ere bere bizilekua. Behar bezala jokutzen badugu, ez da Unibertsitate ofizial hau orain dugun bezain etsai izango, makurrenean ere. Gure ikasle-gaiak, gure ikasleak eta are gure irakasleak horren premia gorrian daude. Hizkuntzak ere sarbidea aurki lezake, neurri apalean aurrenik, ikas- eta irakas-gai bezala, noski, eta agian, zenbait gaitan, ikas- eta irakas-bide gisa.

Ezin dezakegu hor planto egin, Santamaria jaunak ederki erakutsi duenez, gure hizkuntza «diglosiaren purgatoriotik libratu nahi badugu». Berak bi Unibertsitateak lerro paralelo gisa ikusten ditu, hots, behar den geometria hautatzen badugu, nonbait elkar joko duten leiroak. Eta hor datza ene kezka: non, noiz eta nola? Ez ote daiteke gerta, elkarganatuz joan beharrean, bata bestearengandik gero eta saihestuago aurkitzea? Orduan, *absit*, euskara, diglosiaren purgatorioan egon beharrean, ghettoaren infernuan sartuko genuke.

Gure herriak, bortxaz eta ezin bestean, ikastolak sortu ditu, eskoletarik aparte. Orobat hasi ginen, beharturik, Lizeoak sortzen, Istitutoen aldamenen, baina Istitutoetarik kanpora. Bide beretik abiatzen da Euskal Unibertsitatea, Uztarizkoaren eredura, Euskal herriko izan dezakegunatik alboratua. Ez du horrela jokatu, esate baterako, Valenciako *Secretariat per l'Ensenyament de la Llengua* delakoak: eskoletan ari dira sartzen eginahalean katalana, ez ikastola berezietan.

Kondizioak, segur aski, ez dira berdinak eta ez dut horrenbestez esan nahi oker ibili garenik gu, besteak zuzen zebiltzan bitartean. Pausoak ongi neurtu eta zuzendu beharrean aurkitzen garelako diot, soil-soilik. Pentsa dezagun egunen batean, eta hobe dugu laster eta lasterka abiatu, *Euskal herriarena* behar duela izan orain *Euskal herriko* bakarrik den irakaskuntza osoak.

Duela aste guti, Manuel Irujo jaunari idatzi nion kezkatuak neunkan eta berak *Garaia*-n aipatu zuen gai batez galdezka: 1936ko Estatutoak, alegia, lehenagokoetan agertzen ez den baldintza gogorra ipintzen diola eta gure autonomiari, irakaskuntza arloan. Hona, itzulirik, erantzunaren bukaera: «Miresgarria eta bihotz-ukigarria da, politika aldetik, ikastolekin gertatu dena. Halaz guztiz ere, nik uste, *eskola* behar dugu geure esku izan Euskadi euskaldunduko badugu».

Ez da frogaketan ari beharrik, eskola ofizialaz jabetuko ba-

gara (eta eskola ofizialaren bitartez adierazi nahi nuke kontrol ofizialaren azpian dagokeen edozein irakastegi), irakasle euskaldun eta euskaltzaleen beharrea gaudela erakusteko. Eta badirudi, eta izan ere horrela da, aski urri gabiltzala sail hortan: duela zenbait urte bezain urri, ez; baina aski eta gehiegi oraindik. Hona zer dioen hortaz Santamaria jaunak: «Baina, Unibertsitatearen geuretzakotze hori erdiesteko, beharrezkoa izango da gure irakasle gazte askoren Estatuaren zerbitzurako gogo txarra eta eznahia lehenbizi gainditzea».

Gogo txar hori, egia esan behar badut, aldakor xamarra iruditzen zait, alde batetik: garai batean, neronek ezagutu ditut maisu-maistra euskaldun franko gure artean, eta gehienak Estatuaren zerbitzari bihurtzeko asmotan zebiltzan, behinik-behin. Debekuak gainditzeko, gainera, bada bide jakina: sarbide errazago eta erosagoa, eta irabazpide hobea. Eskas eta ahul bagara ere, garen apurrok indar eta jakiteen *pool* gisako zerbait sor dezakegu, Gregorio Monrealek aspaldi asmatu zuen bezala. Gazteek, bestalde, hau pentsatu behar lukete: guztiok, haiek eta gu, beste Estatu baten zerbitzari izateko ustetan gabiltzala. Estatu hori autonomia baizik ez bada ere.

Plangintza zehatz eta zorrotz baten beharrea gaudela uste dut: premiak, kemenak, ondasunak, debekuak eta gainerakoak neurtzeko daude, oraingo eta etorkizunerako. Bultzada, eragina, eraso behetik etorri da, behetik dator eta behetik etorriko da, gero ere. Plangintzak ez du inor mugituko. Barrenak agintzen diolako mugitzen denari, ordea, erakuts diezaioke nola eta narrantz mugit.

Gure Herria, horra gure xedea, birreuskaldundu nahi genuke osorik —gero eta gchiagok, dirudienez—, izenezko eta alegiazko Euskal herria egiazko Euskal herri bilaka dadin. Bat gatz hortan Uztarizkoak, Santamaria, ni eta aipatuko ez ditudan hainbeste eta hainbeste. Lana gaitza da eta ez genituzte eragozpenak gutietsi behar. Bata, politikaren tentazioa da, oso gogoko ez dudana Valmasedar baten esanari banagokio, politika ez baita ahalguztiduna, alde batetik, eta irakaskuntza ere politika baita, bestetik. Bestea, euskaraz adieraz daitekeena (baina erdaraz ez hain errazki), erdal-euskaldunena da edo, nahiago bada, erdaldun euskaltzaleena.

Eragozpenak eragozpen, plazara ginen (enparantzara, dio besteak) Etxeparez geroz, eta plazan iraungo dugu, gerta ala gerta, baldin asmoz eta jakitez (ausarki, eta halere neurritz) jokatzeko badakigu.

P.S. Galdera pare bat ere egingo nuke orain, gerorako utzi gabe. Sindikatu lanean berriz abiatuak omen gara, eta ez naiz noski Leioakoez ari. Ez dakit, halaz guztiz, ez zertan gauden ezta noraino heldu garen ere. Ba ote dugu, hau da jakin nahi nukeena, gure arteko Irakaskuntzako Langileak bil ditzakcenik? Gabe bagaude, badugu ordu horrelako zerbait sortzeko, bestek gure ordeaz sor dezan baino lehen. Izan ere, arras aurpegi berezia dute gurean bai irakaskuntzaren eta bai irakasleen istiluek.

Eusko-Ikaskuntzak, hona bestea, goian aipatu ditudan hitzak zituen harmarrarian. Herri elkarte izan zen hura ez zuen inork, oraindik orain besterik idatzi bada ere, debekatu, izendatuki bederen. Lazaroren gisa lurpean egona dugu, soil-soilik, horrenbeste urtez. Gero, paperetan irakurri nuenez, berriz agertzekoa omen zen bizien artean. Nork bereganatu du, bada, ixil-gordean, bitzu berria genuelarik?

(*) Bi gertakari ospatuz, alegia, *Bascongada*-k jaso zuen Mintegiaren bigarren ehunurteurrena eta *Universidad a Distancia* delakoaren ordezkariaren sortzea dela eta, Bergaran egindako hitzaldia.

¹ Ik. NORBERTO CUESTA DUTARI, *El maestro Juan Justo García (1752-1830), segundo catedrático de Algebra de la Universidad de Salamanca y creador de su Colegio de Filosofía*, Univ. de Salamanca, 1974. Autorea ez da historiolaria, matematikoa baizik. Horrexegatik beragatik, behar bada, besteek ixilpean uzten dituzten gauza franko salatzen ditu.

² Karlistek, Karlos VII.aren izenean, azkenik Oñatikoari eskaini zioten laguntza, istimatzekoa delarik, kaltegarri gertatu zitzaion gero, Bilboko Euskal Unibertsitateari jaio zen eskutik jaiotzea gertatu zitzaion bezala. Ik. EVARIST OLCINA, *El carlismo y las autonomías regionales*, Madrid, Seminarios y Ediciones, S.A., 1974, 43 ss.

³ Lehendanik, begiz joa zuten jesuitek Bilbo. Lekuko, han 1600 inguruan ireki zuten ikastetxea.

⁴ Lehen, oker ez banabil, baziren «publiketan» hiri eskolak, alde batetik, eta «nazionalak», bestetik. Maixu-maistrak, behintzat, bitarikoak ziren.

⁵ Ibili nintzen ikastetxeakoak, bederen, frantses etorkikoak ziren eta artean, oraindik, frantsesak zeuzkaten buru. Chauvin-en eskolakoak izateaz gainera, jo ta ke aritu ohi ziren, espainolak baino espainolago zirela erakutsi nahiz.

⁶ Eta hemen aipatu behar nuke Zipitria andereñoa. Baina bere pertsonaz eta eginez *ongi* mintzatzea aspaldi debekatu zidanez gero, ixilik gelditu beharko dut, gaizki esaka hasteko arrazoirik ez baitut ikusten.

⁷ Ik. AURELIO GUAITA, *División territorial y descentralización*, Madrid, 1975, 297 ss. («El distrito universitario»).

UNIVERSIDAD Y ENSEÑANZA ENTRE NOSOTROS

El problema de la enseñanza y de la Universidad vasca en particular va a constituir en el próximo futuro un campo de dura lucha entre diversas fuerzas políticas y eclesiásticas.

Dos realizaciones principales de Universidad Vasca han sido la de Oñate y el Seminario de Vergara: no pueden identificarse ambas, porque la primera respondía a una concepción tradicional y medieval de Universidad, mientras la segunda venía a abrir nuevos caminos. Pero tampoco pueden oponerse las dos realizaciones.

Frente a la despreocupación de los entes oficiales del País Vasco respecto de la enseñanza, han sido el Estado y las Ordenes religiosas las que se han apoderado de la misma. El predominio eclesiástico en la enseñanza en el País Vasco ha sido realmente notorio en los últimos cuarenta años. Contra ese doble predominio han surgido las ikastolas, como acción del mismo pueblo.

Y tras la ikastola surge de nuevo el proyecto de la Universidad Vasca. Hay que distinguir la Universidad del País Vasco (Euskal Herriko) y la Universidad Vasca (euskal), pero sin contraponerlas. Su distinción radica fundamentalmente en el hecho de que se considere el euskera como objeto de enseñanza universitaria o como medio de la misma.

Es necesaria la inmediata implantación del Distrito Universitario Vasco. En el camino hacia la meta de la euskaldunización del Pueblo Vasco es necesario evitar la constitución de un ghetto cultural tanto a través de la ikastola como de la Universidad puramente euskaldun.

UNIVERSITE ET ENSEIGNEMENT PARI MI NOUS

La question de l'enseignement, et de l'Université en particulier, va devenir dans un futur très proche un champ où les différentes formations politiques et ecclésiastiques vont se livrer une dure bataille.

Dans l'histoire, l'Université Basque a eu deux réalisations importantes: l'Université d'Oñate et le Séminaire de Vergara. Il est impossible de les identifier, puisque la première répond à une conception traditionnelle et médiévale de l'Université; et l'autre, par contre, ouvrait de nouvelles voies. Mais il ne convient pas de les opposer non plus.

Face à l'insouciance des corps officiels du Pays Basque, par rapport à l'enseignement, ce sont l'Etat et les Ordres religieux qui s'en sont emparés. La prépondérance ecclésiastique dans l'enseignement au Pays Basque a été réellement notoire dans les dernières quarante années. Contre cette supériorité ont surgi les ikastola ou écoles basques comme action du peuple même.

Et avec l'ikastola naît à nouveau le projet de l'Université Basque. Il faut distinguer l'Université du Pays Basque (Euskal Herriko) et l'Université Basque (euskal), mais sans les opposer. La différence se trouve fondamentalement dans le fait que l'une considère l'euskera comme objet d'enseignement universitaire tandis que l'autre la prend en tant que moyen d'enseignement.

L'immédiate implantation du District Universitaire Basque est nécessaire. Sur la voie de la basquisation du Pays Basque il faut éviter la formation d'un ghetto culturel autant à travers l'ikastola que l'Université purement basque-parlante.

Unibertsitateko kulturaz

Karlos Santamaria

Asko mintzaten da, egungo egunean, Euskal Unibertsitate delakoari buruz. Baina, zer da Euskal Unibertsitatea?

Euskaldun askorentzat, Euskal Unibertsitatea, Euskal Herrian dagoen unibertsitatea da.

Niretzat, berriz, Euskal Herrian egotea ez da nahikoa. Nire ustez, egote huts horrek ez du zilegi Euskal Unibertsitate izena erabiltzea. Terminologia egoki batetan, holako unibertsitateari «Euskal Herriko Unibertsitate» izena edo, nire adiskide batek txantzetan esan ohi duen bezala, «Euskal Herriango Unibertsitate» izena eman beharko litzaioke.

Nahiz eta «Euskal Herriko Unibertsitatea» gure herriaren etorkizunerako oso onuratsua izan (hau ez du inork ukatzen, gauzak alde praktikotik hartuz gero behintzat), hori Euskal Unibertsitatea ez dela *opportune et importune* esango dut nik, izen-truke horretan arrisku handia ikusten bait dut.

Bi kontzeptu horien arteko desberdintasuna azaltzen saiatuko naiz artikulutxo honetan.

Gaia behar den bezala erakusteko, nolana hiko unibertsitatearen xedeak zeintzu diren jakin behar da lehenik.

Hortaz, ordutik honera hamaika aldaketa izan bada ere, baliorduna omen da oraindik Ortega y Gasset jaunak 1931. urtean egindako proposamendua. Proposamendu honen arauera, hiru dira unibertsitatearen helburuak.

Lehenengoa: kulturaren mandatua gizaldi berrietara helaraztea.

Bigarrena: gizarteak behar dituen goi mailako profesionalak eskolatu eta titulaztea.

Hirugarrena: zientzi bilakuntzarako ikertzaile berriak edukatu eta trebetzea.

Beraz, Euskal Unibertsitatearen helbururik nagusiena, kulturaren mandatua euskal gizaldi berrietara helaraztea dela onartuko dugu. Baina zer nolako kultur mandatua? Hontaz da gure kezka.

Jakina denez, kulturaren definizio eta mugatze asko utzi digu Maisuak bere entsegu jorietan zehar.

«Cultura es labor; hacer cosas humanas»... «Cultura es creación de pasiones nuevas y de ideas nuevas»... «Cultura es pasión de sí mismo»... «Cultura es repertorio de convicciones íntimas». «Sistema de ideas vivas». «Catálogo de actitudes ante la vida»... «Cultura es ansia de permanecer»... «Cultura es resolución de contradicciones». «Cultura es aparato de facilidades frente a la existencia»... «Cultura es agitar los brazos ante la propia perdición»...

Eta abar, eta abar; aipatzen ez genuke sekula bukatuko.

Berehala ikusten denez, kulturari buruzko Ortégaren pentsaera guztiz gairatutik dago, gaurko egunean. Arras atzeraturik gelditu dela esan daiteke, haren kontzeptuak, gure gaurko sozial mentalitatetik urrutik dagoen intelektual-individualismo batetara makurtzen bait dira.

Ortega liberal handi bat zen, eta haren pentsaera orduko Espainiako ideologia liberalari loturik zegoen. Pentsaera horren individualismoaz konturatzeko, nahikoa da aipatu ditugun fraseak berrirakurtzea. Gaurko egunean, ordea, kulturarekiko kontzeptuek sozialak izan behar dute, ala ez dira izan.

Dena den, Ortégak ez gaitu zalantzatik ateratzen; hau da, ez digu argi eta garbi esaten, unibertsitateak belaun berriei eraman behar dien kultur mandatua hori zertan datzan edo zertan etzan beharko lukeen.

Bi aldetatik ikusten dut nik unibertsitateko kultura. Alde batetik, kultura orokor bezala. Bestaldetik, kultura herritar bezala.

Humanitate osoak, mendez mende, belaunik belaun, bildu duen esperientzia eta jakintza guztia deitzen dugu kultura orokorra. Zientzia, ederti eta teknika guztien multzo hori ez da herri jakin baten etorkia, Gizadi osoarena baizik.

Kultura berezia, haatik, herri jakin baten kultura da. Haren hizkuntza, haren bizi-moldeak, haren ohiturak eta usteak. Herri honek munduaz eta biziaz duen interpretazio berezia.

Ez uste izan, ordea, kultura berezi bat kultura orokorraren zati bat denik. Gai honetaz, sujetu-objetu dialektika famatua sar-tzen da, nonbait, nolana hiko kultura bi aldeetatik ikus daiteke eta.

Kultura unibertsalak kanpotik ikusi behar du, nahi eta nahiez, herri jakin baten errealitatea: objektu bezala, alegia.

Haatik, herri horren kultura bereziak barnetik bezala ikusten du errealitate hori berori, hori ezagutzea bere burua ezagutzea duenez gero.

Har dezagun, esate baterako, edozein hizkuntzaren esenplua. Inork ez du ukatuko, hizkuntza hori kultura unibertsalaren ezagutza-objetua denik. Jakintza orokorrak hamaika gauza esango digu hizkuntza horri buruz, bai linguistikaren aldetik, bai soziologiaren aldetik, eta abar; baina beti kanpotik, azaletik, lekoretik.

Aldiz, hizkuntza horri dagokion kultura bereziaren aldean, oso beste gauza bat da, hizkuntza kultura horren osatzaile esentziala denez gero.

Nola hizkuntza pentsaeraren erreminta nagusia den, hizkuntza ez da ezagutzaren objektu huts bat; aitzitik ezagutzaren sujetua ere bada.

Adibidez, Salamanca edo Tokioko unibertsitateetan irakats daiteke euskara, beste nolana hiko hizkuntza bat bezala, hots, kultura unibertsalaren ezagutza bat bezala. Baina ezagutza hau ez da sekula Amezketakoko bertsolariak duen euskararen ezagutza bera izango, zeren, bertsolari horren kasuan, ezagutzailea guztiz murgildurik bait dago bere ezagutzaren objektuan bertan.

(Oroitaraz dezagun Gabriel Marcel pentsalariak agertutako *problème* eta *mystère* kontzeptuen arteko berezitasuna. Terminologia honen arauera, misterioaren kasuan ezagutzailea misterioan bertan sarturik dago; ez, ordea, problemaren kasuan).

Beraz, kultura unibertsala eta herri baten kultura bereziaren arteko diferentzia ez datza kantitatean; zerbait esentziala da.

Kultura unibertsalak ez du inoiz kultura berezi bat ordainkatuko. Historiaren Erroma ez da sekula erromatarrek bizi izan

zuten Erroma bera izango. Antropologoek deskribatzen duten kultura papua ez da sekula papua herriak bizi egiten duen kultura bera izango, indijenarentzat kultura hori biziaren muina bait da.

Espainiako intelektual gehienek ez dute honelako berezitasunen beharrik sentitzen —hau da, hain zuzen ere, Ortega y Gasset jaunari gertatzen zitzaiona—; horientzat bi gauzak —kultura unibertsala eta kultura espainola, alegia— bat bera dira eta. Horiek, espainolek, ez dute problemarik izaten, kultura unibertsala espainolez ikasten dutenez gero. Baina euskaldun jator batek euskal kultura, euskal literatura, euskal pentsaera espainolez ikasi behar izatea, *contradictio in terminis* iduritzen zaigu. Honelako gertaera, trajeria kultural bat dela esan daiteke, nahiz eta euskaldun asko hortaz konturatu ez.

Hau da gure diglosia delakoaren egiazko trajeria. Eta gure herria ez da hortik aterako, egiazko euskal unibertsitate bat ukan arte.

Irakurle argi eta zorrotzak erraz ulertuko du zeinen diferentzia handia dagoen, Euskal Herriko unibertsitatea eta euskal unibertsitatea direlakoan artean.

Lehenengoak, kultura unibertsala emango dio gure herriari, erdaraz bada ere. Alde horretatik, guztiz beharrezkoa dugu gaurregun eta —euskara dagoeneko egoeran— luzaro ere ukamen dugu beharrezko. Etor bedi, beraz, lehenbaitlehen, Euskal Herriko Unibertsitatea, unibertsitate ona, modernua eta ongi antolatua izatekotan.

Baina, esan berri dugun bezala, euskal kultura diglosiazko egoeratik ateratzeko, euskal unibertsitate bat behar dugu, euskal kultura euskaraz irakats dezana eta haren *alma mater* izan dadina. Beste arazo bat da hau ere, eta garrantzi handikoa.

Ez dezagun ahantz, mesedez.

K. S.

SOBRE LA UNIVERSIDAD Y LA CULTURA

Es fundamental la distinción entre la Universidad en el País Vasco y la Universidad Vasca. Ello se patentiza particularmente en la relación entre la Universidad y una de sus finalidades fundamentales, que es la transmisión de la cultura a las nuevas generaciones, siguiendo a Ortega y Gasset.

Pero la cultura tiene hoy sentido social, en contra de la concepción li-

beral-individualista de Ortega y Gasset. ¿Cuál es entonces la cultura que debe transmitir la Universidad?

La cultura que transmite la Universidad debe ser universal, por una parte, y popular, por otra. Son dos aspectos de la misma cultura. La cultura universal ve desde fuera como un objeto la cultura particular; pero para el que vive en la cultura particular, ésta es el sujeto de su propio conocimiento.

Eso mismo ocurre con la lengua: ésta puede ser objeto de estudio del lingüista, pero cuando se trata de la propia lengua, es el sujeto de la cultura propia. Un español capta su cultura universal desde el sujeto de su propia lengua; pero para el vasco existe una contradicción cuando tiene que apropiarse de su propia cultura vasca desde una lengua extraña.

Para salir de esta contradicción de diglosia es necesario crear la Universidad propiamente Vasca, junto a la Universidad del País Vasco.

SUR L'UNIVERSITE ET LA CULTURE

La distinction entre l'Université au Pays Basque et l'Université Basque est fondamentale. Cela est démontré en particulier dans le rapport entre l'Université et une de ses finalités primordiales comme c'est la transmission de la culture aux générations nouvelles, d'après Ortega y Gasset.

Mais la culture a un sens social, par opposition à la conception libéro-individualiste d'Ortega y Gasset. Quelle est donc la culture que l'Université doit transmettre?

Elle doit être une culture universelle, d'un côté; et populaire, de l'autre. Ce sont deux aspects de la même culture. La culture universelle voit la culture particulière dès l'extérieur comme un **objet**; mais pour celui qui vit dans cette culture particulière, celle-ci est le **sujet** de sa propre connaissance.

Il en est de même avec la langue: elle peut être l'objet d'étude du linguiste, mais quand il est question de la propre langue, la langue est le sujet de la propre culture. Un espagnol, par exemple, capte sa culture universelle à partir du sujet de sa propre langue; mais il en est autrement pour le basque: il y a une contradiction quand il est obligé de s'approprier de sa propre culture basque à partir d'une langue étrangère.

Pour sortir de cette contradiction de «diglossie», il est nécessaire de créer l'Université proprement Basque, à côté de l'Université du Pays Basque.

Biharko Euskal Unibertsitatea

Paulo Agirrebaltzategi

Atzoko asmo luze bat, gaurko hutsune ilun bat, biharko helburu nagusi bat da Euskal Unibertsitatea.

Biharkoa? Noizkoa eta nolakoa?

«Biharkoa» esateak urruti batetara eta behin batetara bidaltzen gaituela dirudi, ez noizkoa eta ez nolakoa zehaztu ezinak dituen garai batetara. Eta horregatik, «biharko Unibertsitate» horren asmoak agertzea, asmakeria eta ameskeria direla esango du «errealista» batek; eta, beraz, iheskeria ere bai, gaur bertan lortu beharreko eta lor daitekeena alde batetara utzirik edo, «irudimezko» euskal Unibertsitate baten bila ibiltzea.

Baina «biharkoak» ez du euskal Unibertsitatearen *noizkoa* adierazten zuzenean, horren *nolakoa* baizik. Ez da epe luzeagoaren ala motzagoaren arazoa, asmoarena eta ereduarena baizik. Arazoa ez da, euskal Unibertsitate jakin bati buruz nor den baikorragoa ala ezkorragoa jakitea, eta bai zein den horren asmorik eta eredurik jatorrena eta egokiena.

Honela, bada, «biharko euskal Unibertsitateak» bi aldetatik mugatu nahi du bere asmoa eta erdua: bere abiaburua eta bere helburua argituz.

Abiaburuari dagokionez, «biharko euskal Unibertsitatea» gaurko «erdal» Unibertsitatearen ukapena da. Eten bat adierazten du.

Helburuari dagokionez, berriz, «biharko euskal Unibertsitateak» bere jomugari begiratu beharra adierazten du, ez erdibideko euskal Unibertsitateak ukatzeko, baina bai erdipurdiko euskal Unibertsitateak salatzen. «Gaur arratseko» erdibideko euskal Unibertsitatearen jomuga non den gogoratu nahi dio biharko helburuko euskal Unibertsitateak.

Helburuko euskal Unibertsitatearen asmoa eta erdua —ez programak eta estatutuak— geure ustez nondik norakoak izan behar duten argitzen eta zehazten saiatuko gara hemen. Helburuari begiratzeak ez du irudikeria, utopia eta amets hutsa esan nahi; jartzen den helburu horretarako oinharriak eta baldintzak gertagarriak baldin badira eta hartarako bidea irekigarria baldin bada, orduan helburua bera eskuratzekoa izango da.

Biharko euskal Unibertsitatearen *nolakoa* argitzen badugu, horren *noizkoa* geure eskuetan gelditzen da, neurri handi batetan. Helbururako baldintzak eta oinharriak finkatzen eta bideak irekitzen saiatzen garen neurrian aurreragotu ala atzeragotu egingo da biharko euskal Unibertsitatea. Biharko euskal Unibertsitatea ez dela ez ameskeria baten ez nahikeria baten fruitua egiztatu behar dugu.

Izatez, erdibideko euskal Unibertsitate «erreal» ameskeria handiagoa gerta daiteke —benetako euskal Unibertsitatea ez deanean—, helburuko euskal Unibertsitate «irudimenezkoa» baino. Arriskua hortxe dago: helburua erdibidean jartzean.

I. EUSKAL UNIBERTSITATEAREN BILA

Euskal Unibertsitatearen asmoak bere aurrehistoria eta historia du: zazpi bat mende luzetakoa beharbada. Euskal Herriaren une bakoitzeko egoera politiko eta sozio-kulturalari zegokion Unibertsitatea asmatzera —gehienetan asmatzera bakarrik— iritsi ziren euskaldunak. Asmo horrek, ordea, aurrerabide bat du: benetako euskal Unibertsitaterunzko bidea, halebaga.

Gaur arteko unibertsital historia honetan emaniko urratsak eskema batetara bilduz —eskema soilegira agian, historigileen barkamen eta guzti—, Unibertsitatearen lau eredu agertuko di-

tugu hemen: Euskal Herrirako Unibertsitatea; Euskal Herriko Unibertsitatea; Euskal Herriaren Unibertsitatea, Euskal Unibertsitate herritarra¹.

1. Euskal Herrirako Unibertsitatea

XVI-XVIII. mendeetan hiru Unibertsitate dira bereziki Euskal Herrian dihardutenak: Oñatikoak (1540-1901), Iratxekoak (1597-1824), Santiagorena, Iruñien (1621-1771). Historia luzeena eta ezagunena Oñatikoak du; Gipuzkoarako, Bizkaiarako eta Arabarako Unibertsitatea izan nahi zuen bereziki, nahiz eta beste Probintzia batzuetara ere irekia egon; Iratxekoak eta Iruñekoak, berriz, Nafarroan kokatuak zeuden bereziki. Oñatikoari begiratuko diogu gehienbat.

Gizon batek, bere kabuz, sorturiko Unibertsitatea da Oñatikoak; Rodrigo Sánchez de Mercado y Zuazola oñatiarra izanik, bere herrian sortu nahi izan zuen Unibertsitatea. Unibertsitate honen asmotako Euskal Herria, aipaturiko hiru probintziak ziren; honelako Euskal Herritan lekutua egoteaz aparte, euskal jendeentzat eraikitako Unibertsitatea da: geografikoa eta demografikoa da bereziki Unibertsitate honen euskaltasuna.

Kulturaren aldetik eta hizkuntzaren aldetik, ez du euskal kulturik: labor esanik, euskal Herriaren kultura eta euskara ez dira haintzakotzat hartzen. Oñatiko Unibertsitatea Euskal Herrian lekukuriko eta euskaldunentzako Unibertsitate unibertsal bat da gehienik ere, aipaturiko mende haietan behintzat.

2. Euskal Herriko Unibertsitatea

XVIII. eta XIX. mendeak biltzen ditu bereziki asmo honek. Bergarako Real Seminario zelakoak (1776-1892) eta Nafarroak prestatuturiko *Universidad Vasco-navarra* (1866) izanen zenaren proiektuak ematen digute honelako Unibertsitatearen eredia.

Unibertsitate tradizionala gaindituz, Europako liberalismoak dakarren ikuspegi berri baten bidetik doaz bi hauk. Elizaren babesean ez, baina klase burgesek beren agente ofizialaren babesean eta zerbitzuan jartzten dute Unibertsitatea; bestalde, sekulartu egiten da Unibertsitatea eta zientzia modernu eta esperimentalek beren leku nagusia hartzen dute unibertsital programetan.

Bergarako Seminarioak «nación vascongada», hau da, «la

unión de las tres provincias vascongadas de Alava, Vizcaya y Guipúzcoa» du bere asmo bezala². Baina, bereziki, XIX. mendean sortzen da mendebaleko lau euskal probintzien batasunaren beharra Unibertsitate mailan, laurak unibertsital barruti bat bezala hartuz; honek badu zerikusirik Euskal Herriaren politik batasunaren kontzientzia berriarekin; sortu ere, garai honetan sortzen da euskal unibertsital barruti edo distrituaren asmoa eta premia. Nafarroatik datorren Unibertsitatearen proiektuaren lehen oin-harrian honelaxe esaten da: «La Universidad Vasco-navarra se domiciliará en el punto que estimen conveniente las Diputaciones de Vizcaya, Alava, Guipúzcoa y Navarra, y formará un distrito Universitario que abraza estas cuatro provincias, y las que el Gobierno del Estado crea oportuno agregarle»³. 1874ean Oñatiko Unibertsitatearen inguruan sortuko da honelako unibertsital barrutia, baina karlistada bukatu zen arte bakarrik, eta... gaur arte!

Euskal Herriko Unibertsitateak esanahi politikoa du bereziki, Euskal Herriari dagokionez; euskal kulturaren kontzientzia berezirik ez dago. Baina euskara bai, kontutuan hartzen da, Unibertsitatean ikasteko hizkuntza bezala. Bergarako Seminarioaren erakuntz dekretuan, gaztelera eta euskara, hizkuntza nazionalak, ikasi beharra adierazten zen⁴, eta *Universidad vasco-navarra* zela-koaren asmotan zegoen «la obra del euskera»⁵.

3. Euskal Herriaren Unibertsitatea

1918an sortu zen Eusko Ikaskuntzaren (Sociedad de Estudios Vascos) asmorik nagusiena, lehen Kongresutik, Euskal Unibertsitatearena izan zen: «Universidad Vasca» deitzen da.

Bigarren Kongresuaren konklusio bezala onhartzen da «Universidad vasca» delakoak «órgano de nuestra cultura y progreso intelectual» izan behar duela⁶. Unibertsitate honen euskaltasuna kulturazkoa da batez ere, euskal kulturari atxekia joango delako. Euskarari buruz, Telesforo de Aranzadi-k eginiko hitzaldian, zera eskatzen da: «Se le tendrá siempre al euskera el respeto que de nosotros merece, y de quien con el euskaldun convive hay derecho a exigir». Eta hitzaldiaren zazpigarren konklusioan honela zioen: «El idioma de la tesis no será uno obligado» (sic)⁷. Dirudienez, euskaraz ere tesia idatz zitekeela adierazi nahi du. Unibertsitatean ikastekoa ezezik, neurri batetan unibertsital mailan erabiltzekoa eta lantzekoa ere bada euskara.

«Universidad vasca» zelakoak Euskal Herriaren eskuetan egon

behar zuen; autonomia izan, ez akademi aldetik bakarrik, eta bai ekonomi eta administrazio aldetik ere: benetan Euskal Herriaren Unibertsitatea izan behar zuen. Euskal Herria, ordea, hegoaldea bakarrik da Eusko Ikaskuntzaren asmotan. Nolabait, Euskal Herriaren beraren autonomia politikoaren ondorio bezala izan behar zuen euskal Unibertsitateak. Gerora, Euskal Gobernu autonomoak gauzatuko ditu neurri batetan, Euskal Ikaskuntzaren asmoak. Alde honetatik, unibertsital barrutiaren asmoa baino aurrerago doa: dena dela, Aranzadik argi eta garbi adierazten du euskal unibertsital barrutiaren premia, autonomia horri loturik gainera.

Bestalde, Batzordekoen eritziz, euskal Unibertsitateak irekia, zabala eta herrikoa izan behar zuen, hau da, ekonomiazko ahalbiderik ez zutenentzat dohanekoa, Aranzadik berak adierazten duenez.

4. Euskal Unibertsitate herritarra

Udako Euskal Unibertsitateak, bere hirugarren saioaren ondoren eman zuen ageria honela hasten da: «Euskal Unibertsitate nazionala inoiz baino gehiago, gaur egun ari da beharizan gogor bilakatzen gure herrian». Eta beherago hauxe dio: «Euskal Herriaren Unibertsitateak euskaraz behar du ihardun nahitaez. Ezin onar dezakegu hizkuntzabitasunik, eta Euskal Herri osoa berreuskalduntzea dugu geure xede». Euskal Unibertsitatearen euskaltasuna, bada, *nazionala* (ofiziala eta euskal nazioaren baieztaperi kulturazkoa izango dena: unibertsital barrutia eta autonomia baino arago doana) eta *euskalduna* izatean datza bereziki. Euskara ez da, beraz, euskal Unibertsitatean ikasteko gaiak bakarrik izango, ez eta gai batzu irakasteko edo idazlan batzu egiteko erabil daitekeen eta landu beharko litzatekeen hizkuntza bakarrik; Unibertsitatearen hizkuntza oinhartiko eta nagusia izango da euskara.

Bestalde, herritarra izango da Unibertsitatea, «herriaren premiei loturik egon behar duelako», herria izango duelako bere «ardatz» (euskal herria beronen osotasun geografikoan, politiko-administratiboan, kulturazkoan eta ekonomikoan); eta euskal kultura lantzen duten herriko talde eta elkarteetatik sortua delako euskal Unibertsitatea'.

Euskal kultura ez du gai berezi batzu bezala (euskal gaiak bezala) hartzen, eta bai gaurko Euskal Herriaren dinamika sozio-kultural oso bezala: dinamika horretan sustraitua, eta euskal kultur gaiak bezala, kultur gai unibertsalak euskaraz erabiltzeko,

aztertzeke eta irakasteko izan beharko luke euskal Unibertsitateak.

II. BIHARKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN AUKERA

Iragan historia eta historia horretan bururatu eta nolabait burutu diren euskal Unibertsitate ereduak aparte, gaurregun, oraingo Euskal Herriaren kultur, sozial eta politik egoerari eta dinamikari begiratu, zein da euskal Unibertsitatearen aukera? Denok —ia denok— bat gatoz gaur Euskal Heriak bere Unibertsitatea nahi duela eta behar duela esatean, baina ez gatoz hain baturik Unibertsitate horren oinharriak eta baldintzak aztertzean, horren ereduia zehaztean eta horren helburuak finkatzean.

Euskal Herriaren unibertsital egoera hain itxuragabea delarik, orain arte ukatu diotenak eta horren kontra bururatu direnak ere egoera horren ezinaz konturatu direla dirudi; areago, bada horietakorik, orain «euskal Unibertsitatearen» ikurra herriaren aurrean jasotzen saiatzen denik. Baina berrogei urteotan eta lehenagotik Euskal Herriari eta kulturari ezarri zaion egoerari eusten saiatu direnen eskuetan, irain bat dirudi ikur horrek; eta azkenik, zertxobait eskainiaz, gauzak lehenetan uzteko asmo maltzurrik ote dabiltzalako susmoa du herriak. Euskal Herriaren kultur burruka (bestelako burrukekin batera) oso aurrera joan da, orain eskaintzatxo batzuz iruzur dezaten; eta, horien asmoak egiazkoak balira ere, nola utziko luke horien eskuetan euskal Unibertsitatearen ikurra?

Horientzat, euskal kultura kultur hondakin bat besterik ez da izan: oso aurrera joan den zibilizazioak bazterrerara utzi duen hondakin bat. Horixe litzateke euskara ere, munduko hizkuntza handien artean.

Gaurko erreformismo politikoaren eta administraziozko eskualdekatzeren baten barnean, eta bereziki Euskal Probintzientzako «erregimen bereziaren» barnean, nolabaiteko euskal Unibertsitatea eskainiko litzekete Euskal Herriari. Oraingo Euskal Herriko Unibertsitateetan eta Fakultateetan oinharriturik, eta neurri batetan falta dena osoturik euskal unibertsital barruti edo disritu bat —azkenik!— eskainiko ligukete.

Euskarari dagokionez, hau ez da Euskal Herriaren hizkuntza bezala jotzen, ezarritako diglosiazko egoera honetan «altxor bitxi»

bat bezala gordetzekoa baizik. Euskal Unibertsitatea, beraz, erabat erdalduna izanen litzateke —iparraldeko euskaldunak ez dira kontutan hartu ere egiten—; altxor zahar eta interesgarri den euskara irakatsi egingo litzateke Unibertsitatean, euskal departamentuan edo eta nahi dutenentzat; horrekin batera «euskal gai» batzu aztertuko eta irakatsiko lirateke Unibertsitate horretan, gazteleraz seguruenik. Euskal departamentua Unibertsitatearen alboko zerbait besterik ez litzateke izanen.

Guti gora behera, honelakoxea litzateke, urte luzetan etsai izanik, orain adiskide bezala agertu nahi zaizkigun gure ongile eta «euskaltzale» berrion euskal Unibertsitatea.

Ez doa hortik Euskal Herriaren burrukak sortu eta bideratu duen kultur, sozial eta politik dinamika. Besterik izan behar, biharko Euskal Unibertsitateak.

1. Euskal irakaskuntza eta Unibertsitatea

Gaurrengoko Unibertsitatea, irakaskuntz sistema oso baten barnean dago: goi-irakaskuntza deitzen da, hain zuzen ere. —J. Lasak «Ikasgu nagusia» ere deitzen du Unibertsitatea; beste nonbait «Irakastegi» hitza ere ikusi izan dut, nahiz eta Unibertsitatearen egitekoa ez izan irakastea bakarrik—. Sistema horren barruan eta irakaskuntzaren politikaren arabera, behetik gora begiratzuz gero, irakaskuntza oinharrikoaren eta erdikoaren ondorioa eta fruitua da Unibertsitatea; goitik behera begiratzuz gero, berriz, irakaskuntz sistemaren gailurrean gertatzen da Unibertsitatea, sistema osoa eratzeko, zuzentzeko eta gidatzeko.

Euskal Herrian irakaskuntz sistema eratua eta antolatua dago: Hegoaldean eskolaurrekoa, EGB, BUP eta COU gazteleraz, eta Unibertsitatea dira sistemaren lerro nagusienak. Oinharriko eta erdiko mailetan bezala, Unibertsitate mailan ere irakaskuntza pribatua da nagusi Hego Euskal Herrian, Elizarena bereziki.

Egitura honetatik sortuko ote da Euskal Unibertsitatea? Erakunde eta egitura hauk euskal unibertsital barruti batetan biltzea eta «geure» eskuetan hartzea aski izango ote da, benetako euskal Unibertsitatea ukan dezagun?

K. Mitxelenaeren eritziz, hauxe litzateke euskal Unibertsitatearen ernamuina: «Euskal Herriko lurreen ditugun eta ditugun unibertsitate hazien multzoa, laster ezinbestean ugaritu beharko duguna». Eginda eta osotzeko dagoen erakunde hau geure eskuetan hartuz gero, euskal Unibertsitatea genuke bero-

nen mamian behintzat. Asmo hau euskal unibertsital barrutian gauzatuko litzateke: «Nos limitamos a pedir al Estado que se nos reconozca con todos sus derechos la Universidad que hace ya años —y me felicito de ello— se le ha reconocido a Extremadura. Y esto desde este mismo momento, sin esperar a regímenes esupeciales, conciertos, fueros, autonomías o autodeterminaciones»¹⁰.

Egia da, Euskal Herrian lekaturiko Unibertsitate eta Fakultateek beren lurra defendituko duten bezala, guk ere kontutan ukan beharko ditugula euskal Unibertsitatea eratzean; baina ez dut uste horik geurc eskutaratzea aski denik, Unibertsitate hau badugula esateko.

Euskal Herriak azken urteotan, bere ahaleginez, izerdiz eta burrukaz bestelako dinamika sortu eta bideratu du irakaskuntzari dagokionez: ikastolak eta lizeoak eratuz. Oraingo unibertsital egoerari begiratu beharrean, euskal kultur eta irakaskuntz dinamika berri horri begiratzen badiogu, euskal Unibertsitatea zerbait *berria* izango dela onhartu beharko dugu. Orain arte Madrildik edo Parisetik, Valladolid-tik edo Zaragozatik edo Bordaletik zuzentzen eta baldintzatzen diren erdal irakastegi horik euskal agintearen eta jakintsuen eskuetan jartzetik ez, eta bai herriaren euskal kultur indarrak koordinatzetik, indartzetik eta ugaritzetik etorriko da Euskal Unibertsitate berria: beste arrazoinen artean, euskal kultur indarrak goitik behera ez, eta bai behetik gora datozelako Euskal Herrian.

Eritzi honetan bat nator Jon Bilbaorekin, zera dioenean: «Beetik gora, leen maillak ondo ezarriaz eta sendotuaz, igo bear dugu, dio, goiko mailla orretara. Leentasun oni erri osoak aalegin guziaz erantzun bear dio. Beetik gora sorturiko zerbait izanen da unibersitatea, beeko mailen berezko sorkaria edo deus ez»¹¹.

2. Euskal kultura eta Unibertsitatea

Unibertsitatea eta unibertsala oso batera doaz, ez Unibertsitateak zientzia eta jakintza guztiak biltzen dituelako bakarrik, eta bai kulturaren unibertsaltasunari atxekia dagoelako, kultura guztien elkarrekiko irekitasunari lotua dagoelako. Horregatik, kultur hesi hestuetatik irten beharra nabari du unibertsitariak, unibertsalaren grina darama bere barruan.

Orduan zer esan nahi du euskal Unibertsitateak euskal kul-

turari buruz? Zera hau ondo argi baldin badaukagu bederen: hots, euskal Unibertsitatea ez dela euskalduna Euskal Herriko lurraldean dagoelako, ez eta euskal agintearen eskuetan dagoelako bakarrik, edota euskaldunek egina delako bakarrik.

Euskal kultura, euskal tradizioa bezala ulertzen da sarritan, eta tradizio hori aztertzen eta biltzen duten zientziak bezala: J. Lasak, J. M. Barandiaranekin batera «Baskologia» deitzen duena, halegia (Folklorea, ahozko literatura, dantzak eta erritmoak, prehistoria, etnologia, lege zaharrak, etab.)¹². Eta adiera honen arabera, euskal Unibertsitatearen euskaltasuna euskal gai hauk aztertzeko eta irakasteko departamentu bat edukitzean edo jarri izan da. Honelako zerbait adierazi nahi ote du J. Lasak, euskal Unibertsitatearen oinharriak jarrita daudela esaten duenean, Baskologia bat landua dugulako?¹³. J. Goenagak ere hortik ikusten du Unibertsitatearen euskaltasuna: «Zer nai den, bere egitekoa au litzake, euskal kulturaren aldeak begiratu, osotu, aurrerako bideak urratzen saiatu»¹⁴. J. Caro Barojak ere, «geure kultura gordetzeko eta defenditzeko» eginkizuna ematen diola dirudi euskal Unibertsitateari, euskalduna denez¹⁵.

Baina, uste dudanez, euskal Unibertsitatea ez da euskalduna, euskal kulturaren departamentu bat duelako edo; aitzitik, euskal kultur tradizioan sustraitua dagoelako eta Euskal Herriaren oraingo kultur dinamikan bideratua dagoelako. Orduan euskal kultura ez da gaurko Euskal Herriak bizi duen dinamikaren alderdi bat bakarrik, eta bai haren bizitza osoa: gaurko Euskal Herriaren bizimoldea da euskal kultura. Horrela, euskal Unibertsitatea, euskal kultur tradizioa aztertzeko, biltzeko eta gordezko izango da bere osotasunean; baina bere osotasunean izango da, bai eta gaurko euskal kulturaren dinamika zuziala, ekonomikoa, instituzionala, politikoa, teknikoa, etab., zientzi mailan aztertzeko, kritikatzeko, argitzeko eta bideratzeko ere. Euskal kultura honela ulertzen delarik, kultura partikularra izanik, unibertsala eta irekia da, Lasak esaten duen «autarkia» gezurrezko-tik ihesezinez.

J. Lasak berak, Hegel-i jarraituz, honela lotzen ditu euskal Unibertsitatearen partikulartasuna eta unibertsaltasuna: «La universalidad de la ciencia es innegable. Sí. Pero cada pueblo accede a esta universalidad a través de los cauces marcados por su propia historia y tradición»¹⁶.

Gizon unibertsalik baldin badugu Euskal Herrian, horietako bi J. M. Barandiaran eta Eduardo Txillida ditugu. Biek bizi dute unibertsaltasunaren grina eta premia, baina ezin dute euskal par-

tikulartasunetik bereizi unibertsaltasun hori; horregatik, euskal Unibertsitatearen asmoan, euskaltasuna eta unibertsaltasuna, biak, beharrezko ikusten dituzte. Honela ikusten du Barandiaranek euskal Unibertsitatearen egitekoa: «Gure Euskal Erriaren mugapetik irten gabe, gauden lurrean eta azkazian finkaturik, bertatik jakintza berria sortuaz bertakoen bidez, ordainduko genioke gure zerga edo kontribuzioa mundu zabaleko naiz gizarteari naiz jakintza orotarrari»¹⁷. Txillidak, bere aldetik, honela erantzun dio, Martin Ugaldek egiten dion galderari: —«Te parece importante una Universidad Vasca?» —«Lo más importante. Así como los demás pueblos tienen universidades que dedican al esfuerzo cariñoso de quien está buscando el significado de sus antecedentes culturales, de sus raíces espirituales, que estudia con pasión, y con pasión legítima, su lengua, su historia, su prehistoria, su etnografía, su arqueología particular, además de las que tienen significación universal, nuestro pueblo, ejemplo solitario y abandonado de tantas cosas, es también acreedor de esta atención, de esta preocupación elemental»¹⁸. Eta Euskal kulturaren partikulartasuna eta unibertsaltasuna honela elkartzen ditu: «La cultura vasca... la siento con el deseo de que sea más cultura universal cada día, pero desde nuestras raíces. Primero cultura, para mí, es la forma personal que tiene un pueblo para enfrentarse a la realidad, y en la forma suya, no en la de otro. (...) Y en cuanto a la vasca, es el modo de hacer frente a su modo, a un modo personal que nadie puede negarnos, ante una realidad que también es personal»^{18*}.

Euskal kulturaren gaurko dinamika osotik sortu behar baldin badu eta dinamika hori euskal kultur talde, elkarte eta instituzioek bideratu behar baldin badute, euskal Unibertsitatea horien bateratzetik eta indartzetik etorriko da, guzti horien lanaren emaritza izango da. Alde honetatik, E. Knörr-ekin nengoke, zera esaten duenean: «Debemos tener en cuenta, además, el hecho de que existen unas Universidades (sic) de Verano, que posibilitan la formación de profesores y ciertas instituciones, como la Academia de la lengua vasca. Existen, asimismo, centros culturales, que tendrían un papel que desempeñar en el futuro, de cara a la constitución de la universidad Vasca»¹⁹.

Ez nentorke bat, ordea, euskal Unibertsitatea goitik behera latorkeen eta euskal kulturaren alorrak zabaltzeko eta bideak irekitzeko lanean eta burrukan dabilzan talde, elkarte eta instituzioak bere «babesean» hartuko ala baztertuko lituzkeen erakunde formal bat bezala ikusten dutenekin²⁰.

3. Euskara eta euskal Unibertsitatea

Euskal Unibertsitatearen partikularitasunaren eta unibertsaltasunaren arazoa, euskara bai ala ez eta euskara nola delako galdieran nabarmentzen da bereziki; eta hortxe mintzen da batez ere euskal gizon jakintsu eta unibertsalen drama: horien eskaltasunaren eta unibertsaltasunaren arteko tirabiraren drama. Oso begirune handiz eta haintzakotzat hartu behar da noski drama hori.

Hain mingarri eta oinharrikoa izanik euskal Unibertsitatean euskarak behar duen lekuaren arazoa, hainbat dira erantzunak eta konponbideak. J. Lasaren liburu aipatuan agertzen direnez: «Orain oraingoz erdara beharko luke, gaztelaniara (hizkuntza ofiziala). Ori bai, toki berezi bat emanik euskerari» (K. Mitxelena, 76. or.); gerora, eta landuz, euskara izanen litzateke hizkuntza ofiziala (J. Goenaga, 79. or.); euskara izango litzateke euskal Unibertsitatearen hizkuntza (J. M. Barandiaran, 59-60. or.); «poliglota edo hizkuntza askoduna behar du izan gure Ikasgu nagusiak» (Caro Baroja, 68. or.); ingelesa izanen litzateke euskal Unibertsitateko hizkuntza nagusia (J. Bilbao, 88. or.). Lasak berak ez du beharrezko ikusten Unibertsitateko irakaskintza euskaraz izatea (69 or.). Beste batzuren ustez, bi hizkuntzatarako izango litzateke euskal Unibertsitatea: Unibertsitate bat bera bitan banatua edo, Lovainakoaren antzera edota Barcelonako Unibertsitate autonomoaren antzera²¹.

E. Txillidak, berak menperatu ezin duelarik ere, garrantzi handia ematen dio euskarari euskal Unibertsitatean: (En nuestra conversación) «probablemente iríamos mucho más lejos si yo ahora pudiera estar hablando en *euskera* contigo, y sobre todo si nuestro *euskera* hubiese llegado a ser una lengua más cultivada a través de los caminos imprescindibles por donde han ido desarrollándose las lenguas, la escuela y la Universidad, una Universidad Vasca en la cual hubiéramos estudiado nosotros»²².

Euskarari eta euskal Unibertsitateari buruz hartzen diren jorkabideek, iruditzen zaidanez, hementxe dute beren azken oinharria: Euskararen oraingo egoerari begiratu, ala azken urteotan sortu den dinamika berriari eta irautzaileari begiratu. Ez nuke onhartuko C. Caballero-k dioena: «La Universidad Vasca debe responder a la realidad bilingüe del País»²³. Oraingo euskararen egoera diglosikoak eta landugabeak ez digu euskal Unibertsitatearako irtenbiderik ematen; baina azken urteotan indartu den dinamika sozio-politikoak eta kulturalak, egoera hori irauli

daitekeela adierazten du, euskara Euskal Herriaren hizkuntza nazionala bezala geureganatuz eta finkatuz eta Unibertsitaterako zientzia modernuetarako landuz. Bide hau abiatuta eta aurreraturata dago. Egiteko handia gelditzen da oraindik.

Baina dinamika berri eta iraultzaile eta guzti, baikortasun eta «fedea» eta guzti, euskarazko euskal kulturak eta euskal Unibertsitateak ez ote gaitu «ghetto» batetan hesituko? Galdera larria da eta honelako beldurrik agertu izan da hortik. Baina euskararen «ghetto»tik irteteko, ez dut uste, euskara Unibertsitateetik baztertea edo euskal gaietarako edo departamenturako «gordetzea» denik bide egokiena. Euskarak berak irten behar du gaurko kultur eta zientzi mundu osora. Horregatik, euskal Unibertsitatearen hizkuntza oinharriko eta nagusia euskara izango da, baina erdarak ere (gaztelera, frantsesa, ingelesa) irekitasunez erabiliz, nahiz ikastaroren batzu emateko, nahiz euskarazko idazlanen eta irakasaldien laburpenak emateko.

4. Euskal gizartea eta Unibertsitatea

Bere «campus»aren eta bere autonomia administratibo eta juridikoaren oso zalea izan ohi da Unibertsitatea. Baina gizartearen barnean eta gizartearentzat eratua behar du izan Unibertsitateak.

Kultura ez da gizon pribilejiatu batzuren edo klase aristokratiko baten dohaina: gizarte osoaren bizimoldea da kultura, eta gizarteko tirabira eta etenak nabari dira kulturaren ere: gizartearen irudi da kultura. Horregatik Unibertsitateak ez du izan behar kultura aristokratikoaren barrutia eta klase gainhartzaileen ideologiazko gaztelua. Gizarte egoera baten ideologiazko zuritzaile eta estaltzaile izan beharrean, gizartearen bizimoldeen, kultura osoaren aztertzaile, argitzaile eta kritikatzaile izan behar du.

Euskal kultura ezer baldin bada, herritarra da: horren dinamika herriak darama, klase gainhartzaileen erdal kulturaren kontrakoa gehienetan. Horregatik, euskal kultura gaurregun Euskal Herriko gizartearen iraultzailea da. Eta kultura herritar horretan finkaturiko euskal Unibertsitatea herritarra izango dela pentsatu beharra dago.

Orain dela hilabete gutxi, Bilboko Errekaldeberriko «Universidad popular» izenekoa sortu zen, eta oso aipu zabala ukan du komunikabide sozialetan. Zein izango da euskal Unibertsitate herritarraren erdua? Ikustekoa da oraindik.

Dena dela, euskal Unibertsitatea herri kultura horretatik sortua izango da: herriko kultur indarrek eratua, ez goitik taxuturiko erakunde formal bat. Ez da berdin unibertsitate herritarra eta unibertsitate herrikoia esatea.

Herriaren bizimoldeak, arazoak, pentsamoldeak eta kreazioak aztertuko eta argituko ditu, zientziaren metodo kritikoez eta sistematikoez.

Euskal Unibertsitatearen irakaskuntz sistema herri osoari irekia izango da, klase herritarren Unibertsitatea izan dadin: horregatik, eskulanaren eta burulanaren etena gainditzen saiatu behar du euskal gizartean.

Jon Bilbaoren hitzak aipatuz bilduko dut goian esana: «Egiazko demokrazian bizi behar duenez, bedi erriarena, erriak gobernatua, erriarentzako. Beraz unibertsitatearen gobernatzailea erriari dagokio autatzea eta erriaren aurrean izanen da erantzule»²⁴.

5. Euskal Herria eta Unibertsitatea

Euskal Unibertsitateaz mintzatzean, berehala datorkigu Euskal Herria eta kultura banatzen dituen mugaren arazoa. Dagoeneko, euskal Unibertsitatea benetan hartzen duen inork ez du Probintzia bateko edo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Unibertsitate bezala bakarrik ikusten. Gutienez euskal Herri Hegoalde osoa biltzen duen unibertsital barruti bezala ikusten da.

K. Mitxelenarentzat²⁵, Jon Bilbaorentzat²⁶, euskal Unibertsitateak, hegoaldekoa izanik ere, iparraldekoie irekia izan behar luke; D. Amaitermin izenez idazten duenarentzat ere iparraldeko euskaldunei bereziki irekia izan behar luke, tituluak bietan balioztatuz²⁷. J. M. Barandiaranarentzat²⁸ eta Caro Barojarentzat²⁹, berriz, euskal Unibertsitateak Euskal Herri osoa izan behar du.

Uste dudanez, euskal Unibertsitatearen helburua, benetan Unibertsitate nazional bezala ipini behar dugu.

Baina non joango litzateke euskal Unibertsitate hau? Neurri handi batetan, arazo praktikoa eta politikoa da hau. Hala ere, badu zerikusirik Unibertsitatearen ikuskerarekin berarekin. Nekez uste du inork euskal Unibertsitate osoa herri edo hiriburu bat bakarrean joango denik. Orduan bi irtenbide galditzen dira, eta bietako eritzirik badabil hortik: Fakultateak han-hemenka *barreiatu*rik (Mitxelenak bilduak nahiago litzuzke, baina gertatzez saka-

banatuak gertatuko direla uste du³⁰; ala «campus» eta zentru nagusi bat, toki batetan finkatua, baina hainbat fakultate desberdin Euskal Herrian zehar barreiaturik.

Uste dudanez, arazo honek ez du garrantzi handirik, euskal Unibertsitatea Euskal Herrian lanean ari diren kultur talde, elkarte eta instituzioen koordinaketatik sortuko bada eta hortik sorturiko erakunde bat izango baldin bada. Ezingo da zentralista izan.

Baina zer egin oraingo erdal Unibertsitate eta Fakultateetaz, estataletaz nahiz pribatuetaz? Euskal Unibertsitatearen Fakultate bihurtu?³¹. Bigarren unibertsitate bezala eta Unibertsitate pribatu bezala utzi, euskal kulturaren politika oso baten barnean? Dena dela, euskal Unibertsitate nazionalak ofiziala eta bakarra izan behar duela uste dut. Mitxelenak dioen bezala, «si un día nuestras aspiraciones dejan de ser aspiraciones puras y simples, la Universidad Vasca será, en lo esencial y sin excluir las realizaciones privadas, la Universidad oficial del ente político Vasco»³².

III. EUSKAL UNIBERTSITATEA BIDERATZEN

Helburuko euskal Unibertsitatea lortzeko bidea urratu beharra dago. Ez da berez etorriko den erregalua. Benetakoko euskal Unibertsitatea gertagarria izango bada, baldintza batzu bete beharko dira politikaren aldetik, gizartearen aldetik, ekonomiaren eta kulturaren aldetik.

Baldintza politikoak: Euskal Herriaren birhakuntza, hegoalde eta iparralde; bere burujabetasuna (ez eskualdekatzea ez eta nolabaiteko autonomia, ez dira aski izanen helburuko Unibertsitate hori lortzeko); Unibertsitatearen eragintza autonomia, politikagintaritzari buruz.

Baldintza sozio-ekonomikoak: Aurrenik, Euskal Herriaren errealitate politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean finkatu eta horren aztertzaile eta argitzaile kritikoa izango den euskal Unibertsitate herritarrak, *ekonomia Euskal Herriaren eta klase herritarren eskuetan* egotea eskatzen du; bigarrenik, lanaren antolaketa berria eskatzen du, eskulanaren eta burulanaren etena gainditzeko.

Kultur baldintzak: Ikastolak indartu eta zabaldu behar dira,

oinharriko eta erdiko *irakaskuntza* osoan, ofizialean eta pribatuan, euskara hizkuntza nagusiena izan dadin arte; *alfabetatzea* herri osora, eta bereziki langileetara, zabaldu eta finkatu behar da; *komunikabideak*, guztiak, euskaldundu behar dira; *euskara ofizialdu* behar da, Euskal Herri osoaren hizkuntza nazional eta nagusi bezala; *liburugintza* indartu eta hedatu egin behar da, euskal Unibertsitatearen oinharriko *biblioteka* sortzeko.

Ikaragarria da, aitortu beharra dago, egiteko dagoen lana eta eraman beharreko burruka; baina, uste dudanez, herriak ezarria du bere dinamika. Eta dinamika honetan, euskal Unibertsitate nazional, herritar eta euskalduna lortzeko urrats espezifiko batzu eman behar dira, oraingo erdal Unibertsitateen barruan eta horietatik kanpo: alde bietatik.

1. Oraingo Unibertsitate-Fakultateetan

Biharko euskal Unibertsitatearen aukera, gaurko erdal Unibertsitateetan ere prestatu beharra dago.

a) *Euskal Kultur Mintegiak*. Azken urteotan Euskal Herriko Unibertsitate eta Fakultateetan sortu eta indartu egin dira Euskal Kultur Mintegiak: alde batetik, erdal Unibertsitateak ematen ez diena, ikasleek beren aldetik lantzeko, eta bestetik, Unibertsitate edo Fakultate osoaren dinamika euskalduntzen saiatzeko. Honelakoak ugaritu eta finkatu beharra dago, eta Mintegi guztien arteko koordinaketa eta erakunde bat sortu —Bilbon honelakorik egina da neurri batetan bederen—. Euskal Herri osoko unibertsital ikasleen erakundea sortu beharko litzateke, Euskal Kultur Mintegi eta antzeko guztiak bilduko litzuzkeena.

b) *Euskal unibertsital barrutia*. Euskal Herri Hegoaldeko unibertsital barrutia lortu behar da lehen epe batetan; bigarren urrats bezala, Euskal Herriak bere autonomia politikoa eta ekonomikoa lortuko duenean, euskal Gobernuaren eskuetan egongo da euskal irakaskuntzaren eta Unibertsitatearen politika, honen autonomia gordeaz, hala ere. Honekin batera, unibertsital barruti edo Euskal Herriko Unibertsitate hau osotu egin beharko litzateke, behar diren Fakultateak sortuz. Barruti honek harreman berezi eta instituzionalduak beharko litzuzke, Iparraldeko unibertsital instituzioekin.

c) *Euskal Institutuak*. Euskal Kulturaren Institutuak sortu beharko lirateke oraingo Unibertsitate guztietan, euskal Filologia, Etnologia, Historia, Artea, Geografia, etab. emango litzuzkeena;

gehienbat behintzat, euskaraz izan beharko luke honelako Institutuak. Horretaz gainera, Fakultate desberdinetan, eta dagokienean, euskal Saila sortu beharko litzateke: Filologiarena edo Antropologiarena, e.b.

d) *Euskara ofizialdu*. Euskal Herriko Unibertsitate eta Fakultate guztietan euskara ofizialdu behar da, ofizialtasun hori lehenbaitlehen ekintzetara eta bizitzara eramanez.

e) *Euskararen irakaspena*. Ikasleentzat nahiz irakasleentzat, euskarazko eskolak antolatu beharko dira, maila guztietan, euskara arrunta ikasteko eta bakoitzak bere saileko zientzi euskara teknikoak lantzeko. Ikasleak behartu egin beharko lirateke euskara hizkuntza laguntzaile bezala ikastera; irakasleentzat ere epe batzu jarri beharko lirateke.

f) *Irakasle euskaldunak*. Euskal ikasleei hemen ikasteko aukera emanez gainera, kanpotik dabiltzan irakasle euskaldunak geureganatzen saiatu beharko genuke. Eta hemendik aurrera ez litzateke onhartuko, neurri egoki batetan behintzat euskara ez dakienik.

2. Oraingo Unibertsitateetatik kanpo

Unibertsitateetatik kanpo sortu eta indartu da bereziki euskal kulturaren dinamika berria, benetako euskal Unibertsitatea egokien bidera dezakeena. Bide hau urratu behar da batez ere.

a) *Euskal kultur talde, elkarte, instituzioak*. Hauetako ugari sortu eta finkatu da, Unibertsitatearen babesik gabe: sarritan erabat edo gehienbat euskaraz ari dira lantzen kultura, eta herri oinharritik sortuak edo horri atxekiak dihardute maiz. *Arantzadi* Elkarte aipatu izan da sarritan; baina horren historia luzea eta erakunde handia ez duen beste elkarterik eta talderik ere bada, egoki lanean diharduenik. *Euskaltzaindia* dugu euskal kultur sail oinharritzko eta nagusi bati emana, eta Euskal Herri osoko kultur Institutio bakaria. J.L. Orellak beste bi sortu beharreko aipatzen ditu: Euskal Historiaren Akademia eta Estetika Inbestigazioen Institutua. Badirenak aparte, jakintzaren sail bakoitzaren sortu beharko ditugu horrelako Elkarte eta Institutioak: kultura partikularra nahiz unibertsala, euskaraz landuko dutenak. Baina oso gogoan eduki beharko dira, sail berezitu bat lantzen ez duten elkarteak izan ez arren, euskal kulturaren alde lanean dihardutenak, nahiz herri bakoitzean nahiz Euskal Herri osoan.

b) *Euskal Kultur Batzarrea*. Aipaturiko kultur Indar guz-

tiak bateratu egin behar dira, eta horien lanak koordinatu. Euskal kulturaren dinamika eta politika orokor baten bidetik —edo kulturaren euskal politika baten bidetik—, *Euskal Kultur Batzarrea* sortu beharko litzateke, Katalanek egina dutenaren antzekoa. Honetarako lehen urratsa, beharbada, emana da Durangoko azken Azokaren egunetan. Garai batetako *Eusko Ikaskuntza*-ren ordezkoa ote litzateke hau? Hura baino zabalagoa eta herritik sortua litzateke Euskal Kultur Batzarrea.

c) *Udako Euskal Unibertsitatea*. Udako Euskal Unibertsitatearen azken saioaren ondoren ateratako agirian, «urte osorako sortuko dugun herri unibertsitatearen hasera gisa» ikusten du bere burua U.E.U.k. Euskal Unibertsitatearen esperentzia hau indartu, areagotu, zabaldu eta finkatu beharra dago. Instituzionaldu beharra dago, burokraziaren sareetan erori gabe, eta horren ekintza urte osora eta herrietara zabalduz.

Azkenik...

Biharko euskal Unibertsitatea Euskal Herriaren kultur Tradizioari atxekia izango da eta horren kultur Kreazioari emana. J.M. Barandiaranek honela dio: «Ez dugu Ikasgu Nagusia sortu bear, munduaren aurrean unibertsitate bat badugula azaldu naican. Ez eta, besterik gabe, gcoiko irakaskintzako ikasgu bat izan dedin. Ez da naikoa ori ere. Cugandik eta gu bide gerala sortzen den jakintza jator eta berri baten sorgu eta iturburu izan dedin aalegindu behar dugu guztiok»³³. Eta honela «itzultzzen» dio erdarara J. Lasak: «No basta enseñar las ciencias o la Vascología ni siquiera en vasco. Es preciso crear algo valioso»³⁴.

Crear... Sortu... Alde batetik, euskal Kultura historikoa eta tradizionala aztertu eta argitu behar ditu: eta, horretarako, euskal Filologia, Etnologia, Historia, Geografia, Instituzioak, Legeak, Teknologia, Antropologia, etab. Eta, bestetik, Euskal Herria gaur «sortzen» ari den kulturaren zerbitzuan ihardun behar du, kultura unibertsalari irekia dagoen horren zerbitzuan, euskal gizarteak gaurregun sortzen eta bizi duen kultur dinamikaren zerbitzuan: eta horretarako, zientzia modernu guztiak izango dute leku euskal Unibertsitatean: Soziologia, Politika, Fisika, Kimika, Informatika, Psikologia, Astronomia, Injinaritza, Medikuntza, etab. etab. Euskal Herriaren gizarteari eta bizitzari lotu-lotua doa euskal Unibertsitatea.

Euskal Unibertsitateak euskal Kultura eta Herri berri baten

eragilea izan behar du. E. Knörr-ek dioena motz gelditzen ote den nago: «La Universidad, en mi opinión, debería ser un gran centro de irradiación cultural y el soporte del renacimiento cultural de nuestro país»⁵.

Benetan «errenazimendu» baten egunetan ari dela uste dut Euskal Herria; baina herri honen kultur sormena gaur ez da agortuko haren kultura tradizionalaren zahar-berritze hutsean. «Errenazimendua»rekin batera, kultur iraultza batetik abiatuta dago herria, bere historia ilun baten ukapena eginez. Horregatik, euskal Unibertsitate euskalduna eta herritarra, Euskal Herriaren kultur iraultza honen argitzea eta eragile izango da.

Biharko euskal Unibertsitatea, gaurtik prestatzen eta lantzen duguna izango da: Euskal Herri libre baten Unibertsitate nazionala nahi badugu, *askatasuna* landu eta bideratu behar dugu; euskal gizonaren Unibertsitate euskalduna nahi baldin badugu, geure *nortasunaz* buruz, izatez eta bizitzaz jabetzen saiatu beharko dugu; euskal gizarte zuzenago baten Unibertsitate herritarra nahi baldin badugu, *zuzentasuna* egin beharko dugu euskal gizartean.

¹ Eskema honetatik kanpo gelditzen dira Euskal Herrian orain lekutzen diren erdal Unibertsitateak: Deustukoa, Lejoakoa eta Iruñefekoa, eta hor-hemen sakabanatuta dauden beste Fakultateak. Hauk ez dira Euskal Unibertsitate bila eta horretarako bidean sortuak; agian horren kontra. Antieuskal Unibertsitate gertatu dira gertatu.

² J. ESTORNES LASA, *Los Vascos y la Universidad*, Edit. Añamendi, San Sebastián, 1970, I. t., 84 or.

³ Id. *ibid.*, 110 or.

⁴ Id. *ibid.*, 84 or.

⁵ Id. *ibid.*, 109 or.

⁶ *Segundo Congreso de Estudios Vascos*, Edic. de la Sociedad. San Sebastián, 1920, 550 or.

⁷ Id. *ibid.*, 218 or.

⁸ Ik. Ageri hori *Anaitasuna* aldizkarian (15-XII-75).

⁹ «Unibertsitatea Euskal Herrian», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-15 sep. 1976) 30 or.

¹⁰ «Otra vez la Universidad», in: *ibid.* (1-15 oct. 1976) 31 or.

¹¹ J. LASA, *Euskal Ikasgu Nagusi edo Unibertsitateaz*, Ed. Itxaropena, Zarauz 1976, 84 or.

¹² Ik. id. *ibid.*, 58 or.

¹³ Ik. 22 or. eta ondorengoak.

¹⁴ Id. *ibid.*, 79 or.

¹⁵ Id. *ibid.*, 69 or.

¹⁶ Id. *ibid.*, 54 or.

- ¹⁷ Id. *ibid.*, 58-59 or.
- ¹⁸ MARTIN DE UGALDE, *Hablando con Chillida, escultor vasco*, Ed. Txertoa, San Sebastián, 1975, 164 or.
- ^{18*} Id. *ibid.*, 163 or.
- ¹⁹ «Universidad Vasca», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-15 sep. 1975) 24 or.
- ²⁰ J. L. Orellak, goitik datorren Unibertsitate horretan «integratuko» lituzke euskal kultur instituzioak: «Euskal Unibertsitate honetan geratuko lirateke integraturik herriarentzat hain interesgarriak diren kultur erakundeak: adibidez, Euskaltzaindia, Euskal Historiaren Akamedia izenaz eratu beharko litzatekeena, Estetika inestigazioen Institutua...» («Euskal Herriako Unibertsitate baten beharraz», in: *Zeruko Argia* (1976-Urtarrila-25) 16 or.
- ²¹ Ik. *Universidad Vasca*, a. a., 22-23 or.
- ²² MARTIN UGALDE, a. l., 111 or.
- ²³ «Universidad Vasca», a. a., 22 or.
- ²⁴ J. LASA, a. l., 87 or.
- ²⁵ Id. *ibid.*, 75 or.
- ²⁶ Id. *ibid.*, 85 or.
- ²⁷ «Gipuzkoako Unibertsitatea euskal Unibertsitatearen kontra», in: *Zeruko Argia* (1976-Urria-10) 27 or.
- ²⁸ J. LASA, a. l., 60 or.
- ²⁹ Id. *ibid.*, 69-70 or.
- ³⁰ Id. *ibid.*, 76 or.
- ³¹ Honelako zerbait adierazten du nonbait J. L. Orellak, lehen aipaturiko artikuluan, 15 or.
- ³² «Otra vez la Universidad», a. a., 31 or.
- ³³ J. LASA, a. l., 61-62 or.
- ³⁴ J. LASA, *Universidad Vasca*, Ed. Itxaropena, Zarauz, 1976, 85-86 or.
- ³⁵ «Universidad Vasca», in: *Punto y Hora*, a. a., 22 or.

P. A.

LA UNIVERSIDAD VASCA DEL MAÑANA

El hablar del «mañana» no tiene un significado temporal sino cualitativo, como ruptura respecto de la situación universitaria actual del País Vasco.

La historia del Pueblo Vasco es una historia de muchos proyectos y algunas realizaciones de Universidad, que desde la Universidad simplemente localizada en el País Vasco, pasando por el Distrito Universitario Vasco y la Universidad autónoma Vasca, va perfilándose como una Universidad popular y propiamente vasca en sentido geográfico, administrativo, cultural y lingüístico.

En la actual dinámica política y socio-cultural del Pueblo Vasco se ha

abierto una amplia discusión sobre el significado de la Universidad Vasca; las diversas alternativas difieren en la distinta concepción de la Universidad Vasca respecto de la enseñanza en general, de la cultura vasca, del euskera, de la sociedad y del Pueblo Vasco. Una auténtica alternativa de la Universidad vasca del mañana comporta una concepción de Universidad euskaldun, popular y nacional.

Para llegar a esa Universidad Vasca es necesario que se cumplan una serie de condiciones políticas, socio-económicas y culturales determinadas. Por otra parte, hay que recorrer un camino de acciones programadas, tanto en el interior de las Universidades actuales del País Vasco como en el exterior de las mismas, potenciando, coordinando y programando la acción cultural de los grupos y entidades culturales vascas, surgidas en el Pueblo Vasco.

L'UNIVERSITE BASQUE DE DEMAIN

Le terme «demain» n'est pas employé ici dans son sens temporel, mais plutôt qualitatif, comme rupture par rapport à la situation universitaire actuelle du Pays Basque.

L'histoire du Pays Basque est une histoire de multiples projets et quelques réalisations d'Université. Cette histoire part d'une Université unique, localisée au Pays Basque, passé par le District Universitaire Basque et l'Université Autonome Basque, et arrive le moment où elle se présente comme une Université populaire et authentiquement Basque dans les dimensions géographique, administrative, culturelle et linguistique.

A l'intérieur de l'actuelle dynamique politique et socio-culturelle du Pays Basque s'est ouverte une vaste discussion à propos de la signification de l'Université Basque; les différentes tendances se diffèrent dans la conception de l'Université Basque par rapport à l'enseignement en général, de la culture basque, de la langue basque, de la société et du Pays Basque. Une authentique alternative de l'Université Basque de demain comporte une conception d'Université euskaldun (basqueparlante), populaire et nationale.

Pour arriver à cette Université Basque on a besoin de l'accomplissement d'un tas de conditions politiques, socio-économiques et culturelles bien précises. D'autre part, il faudra parcourir un long chemin d'actions programmées, à l'intérieur des Universités actuelles au Pays Basque comme à l'extérieur de celles-ci, en consolidant, coordonnant et programant l'action culturelle des groupes et institutions culturelles basques, nés au sein du peuple.

L.A.B. Euskal Langileen Indar berri bat

Urtarrilaren bigarren hamabostaldian LABek (Langile Abertzaleen Batzordeak) bere lehen Batzarre nazionala egingo du. Euskal Langileen Indar berri baten abiaburuak, egiturak, jokabideak eta helburuak zehaztuko eta definituko dira Batzarre horretan.

Aspaldi honetan ezaguna gertatu zaigu LAB gure kaleetan eta hormetan; eta bizia da langileen artean lortu duen erakarmena. Izatez, LAB ez da egun hauetan sortzen; esperentzia bat badu azken hilabetetako burruketan batez ere. Orain, Batzarre honetan, esperentzia horren arabera eta gaurko Euskadiko sindikal, politik, ekonomi eta kultur egoerari eta dinamikari helduz, bere buruaren definizioa eman eta bere aurrerabidea markatu nahi du.

Indar berri bezala, klase indar bezala agertzen da eta agertu nahi du LABek. Sindikatu berri bat? Langile erakunde oinarririkoa bat? Sindikatu klasiko eta Langile masa mugimenduaren artean definituko du agian bere burua LABek.

Gaur, Euskadiko Langileriaren erakunde berri hau sortu nahi izateak, arlo honetan nabarmentzen den hutsune bati erantzuten dio. Hutsune hau ez da gaurkoa bakarrik, eta bai Euskadiko Langile mugimenduaren historia osoan nabarmendu izan dena.

Gaur arte garbi dagoena da: Euskadiko nazional arazoaren erantzuna langile klase ikuspegitik ez du inongo langile masen erakundek bere gain hartu izan; izan ere, ekintzetan nazional arazoa erabat ahanzi egin dute erakunde horiek, edota beren burruka ez dute zuzenki, klase gainhartzaileek ezarritako boterearen kontra zuzendu, hori iraultzeko; eta batzutan ez batari eta ez besteari begiratu diote.

Hau horrela da, zeren eta orain dela gutxi arte zera gertatzen zen: Euskal nazional mugimenduaren zuzendaritza, burgesia nazionalistaren eskuetan zegoela, eta, aldi berean, langile mugimenduaren zuzendaritza, berriz, nazional arazoa ekintzetan guztiz baztertzen zuten erakundearen eskuetan zegoela; honela, kapitalaren eta lanaren arteko burrukatik aparte arazo bat bezala agertzen zen nazional arazoa.

Baina nazional zapalkuntzaren burruka eta zurgapen kapitalistaren aurkako burruka, bakoitza bere bidetik ibili badira ere, Euskadiko langileak gero eta argiago ohartzeko dira, euskal proletalgorantz burruka bata eta bestea batbera direla, hau da: nazional zapalkuntzaren aurkako burruka, klase burrukaren barnean gertatzen dela, eta langileriaren eta burgesiaren arteko burruka honek, prole-

talgoaren garaipenarekin batera, nazional arazoaren konponketa eka-
rriko duela.

Euskadin klase burrukak nazional tankera hartzen duela ulertu
du LABek, batetik, eta, bestetik, langile masen erakundeetan hutse-
gite larriak ikusten ditu; horregatik, gaurregun euskal langile mug-
imenduan hutsune bat dagoela baieztatzean, hori betetzeko Indar
berri hori sortu nahi du, euskal langileen batasuna oinharritik eta
bi koordinada horien barnean lortzeko.

LABek orain arteko langile erakundeei egiten dien kritika bi
aldetatik doa: teoriaren aldetik eta ekintzen aldetik. Teoriaren al-
detik, sarritan erakunde horik alderdi politikoen eranskin besterik
ez dira izan. Ekintzen aldetik, berriz, nazional zapalkuntzaren aur-
kako burruka baztertu egiten dute; langile oldearen hazteak eta era-
gin biziagoak eskatzen dutenaren neurriko erantzunik ez dute eman
erakunde horiek; eta, sarritan, oso motel jokatu dute, gertakarien
atzetik ibiliz eta beren buruak lege arazotan eta erreibindikazio
hutsetan galduz. Guzti honek langile oldearen despolitizaketa eka-
rri du, langileei erakutsi izan zaizkien jokabideak ez bait dira inol-
laz ere iraultzaileak izan.

Euskal Langileriaren indarren eta egoeraren azterketa honen
oinharritan bideratu eta eraiki da LAB. Bere aurrerabidea nondik nora
zuzenduko eta bultzatuko duen zain gaude. Artikulu hau zure eskue-
tara orduko, bere erantzuna emana izango du. ■ *Peilo Gaztelu*

Ekialdean ere bada zerbait usteldurik

Han hemenka sakabanaturik agertzen diren albisteak elkarrekin
lotuz, lurralde sozialistetan berriz ere zerbait gertatzen dela jabe-
tzen gara. Olatu bat bezalatsu.

Wolf Biermann, Ekialdeko Alemaniako kantari ospetsu eta ko-
munista sutsuari ez dio Gobernuak itzultzen utzi: «persona non
grata», egindako deklarazioengatik. Polonian, ekainean izandako lan-
gile errebolta haien epaiketan dabilta oraindik.

Baina punturik gorrienak —edo, nahi bada, beltzenak— Praga
eta Mosku dira. Pragan, delako *Gutun 77* hori, gutienik hirurehun
txekoeslovakiarrek (intelektual eta beste) izenpetu dute. Gutun ho-
nek, giza eskubideen betetzea eskatzen du. Alegia, Helsinkin Sobiet
Batasunak eta Txekoeslovakiak eta gainerakoek onarturiko eskubideak
betetzea. Horien artean, nabarmentxoenetakoa, pertsonen eta ideien
joan-etorri eta mugimendua da. Giza eskubide hauk beteak izau
daitezen, talde zaintzaile bat sortu da. Oposiziokoan artean, noski.

Sobiet batasunean ere, puntu honetan, berrikitan, oposizioko ta-
lerik gehienek bat egin zuten. Taldeok ez dira KGBren gogoko.
Urtarrilaren lauean, oposizioko zenbaiten etxetan miaketari ekin zion

poliziak. Edozein atxakia on da: politika zein droga zein pornografia. Lauean hori. Eta zortzian, bonba bat jarria izan zen Moskuko metroan. Nork jarria? Horra koxka, Bi egun geroago zabaldu zuen hori Tass berri agentziak, errua oposizioaren gain botaz. Oposizioak, Sobiet Batasunean zein atzerrian, ezezkoan daude. KGBren probokaziotzat hartzen dute. Argi eta garbi mintzo dira Sakharov Moskun eta Pliouchtch Parisen. Hauen eritziz, Gobernuak lortu nahi lukeena zera da: askatasun kontuan Mendebalac egin diezaiokkeen salakuntzaren indarra ahuldu. Argumentuak behar ditu horretarako. Eta ez daudenean, sortu. Presa du, gainera, Belgradoko bilkura laster bait da.

Moskuko metroko bonbarena argitzeko, inkesta publiko bat eskatzen du Sakharov-ek, atzeritar legegizon eta guzti.

Wolf Biermann Alemania Demokratikotik bidaltzea ez da soluzio. Poloniako langile istiluak argi erakutsi zuen, gizarte hauzien konponbideak aurkitzeko daudela oraindik. Eta Sobiet Batasuneko oposizioa berriz ere zigortua da, ikaraz, lanpostutik bidaliz eta espetxeratuz. Metodo zahar hauekin gizon berria egitea posible ez izanki, ordea. ■ *Joanes Lekerika.*

Diputazioak Euskal Herrian

Ez naiz Euskal Herriko Diputazioak idaztera ausartu, ez bait dakit gutako zeinen izenean dauden hor. Berez bai, berez herri barretik sorturiko erakunde ordezkariek dira. Baina, izatez, Erakunde autonomo eta herri-ordezkariek izan beharrean, Zentroaren erreprezentatzaileak dirudite. Eta dira izan.

Ez da kritzi kontua; konstatazio bat da: deus guti egin dute Diputazioek Euskal Herriaren alde. Honetan, denetan txapeldun, Bizkaikoa da. Kontzertu Ekonomikoa zela eta, Sarrikoko Unibertsitateko mahain inguru batetan, gizon politiko ezagun batek esana gogoan dut: gaurko Bizkaiko Diputazioa ez da gauza Madrileko Gobernua emateko prest dagoena esijitzeko ere. Gainerakoak berdintsu. Ez dira gauza izan ezta Madrilen aurrean bateraturik agertzeko ere. Lotsagarriagorik?

Bai, ba. Lotsagarriagorik ere bada. Gaur bertan gertatua. Unzeta jauna ikurrinaren aurka atera da. «Espainolak eta bizkaitarrak» direnez, bai omen dituzte beraiei dagozkien banderak. Alderdi baten banderarik ez omen dute behar. Engainatuak izan omen dira. Negar eta guzti egin du Unzeta jaunak.

Negarri da, bai. Engainatuak izan diren ala ez, haien kontua da hori, beraiek bait dakite Gobernuarekiko tratuen berri. Beste hau dakigu guk, ordea: aski engainaturik bizi izan garela geu ere. Diputazioak holakorik egin zezakeenik ere ez genuen espero. Hasi

berriak gara Euskal Herriko gizonen «who's who» egiten, nor zein den argiago ikusten. Orain arte, erruak oro Madrileko politikaren gain botatzen genituen. Urrutieg, askotan. Egunkariak ez zutela argi informatzen? Klaro, Madrileko zentsura. Diputazioek ez dutela deus lortzen? Jakina, Madrileko zentralismoa. Baina orain, aukera desberdinen ordua hurbiltzen ari den honetan, biluzik ageri da errege asko. *Gaceta del Norte*-ren informazio anti-euskaldunaren errua ez da Ministerioarena, egunkariarena baizik. Diputazioek horren guti erdietsi badute, horko gizonen politikagatik ere izan da.

Herriaren garaitzapena izan da ikurrinaren onarpena. Unzetak eta Bizkaiko Diputazio osoak, ikurrinaren arazo honetan, galtzaile atera behar zutenik, ez genuen sekula pentsatu ere. Engainaturik eduki gaituzte orain artean. Diputazioak bederen geureak zirela sinetsi nahi (edo behar) genuen. ■ *Joan Altzibar.*

Garaudy gure artean

Roger Garaudy Bilbora etorri da. Hitzegitera. Gogorik ukan arren, ez dut entzutera joaterik izan. Hala ere, berri horrek gogoeta pare bat egin arazi dit.

Munduko bost kontinentetan zehar ibilia da pertsonaia ospetsu hau. Postfrankismoaren zain egon behar izan du, ordea, Pirineoko gurutzatuz, bere etxe ondoko penintsula bisitatu ahal izateko.

Garaudy aipatzean, edonork daki zenbait gauza: marxista humanista frantses hau kristauekin elkarrizketa luze eta beroan ihardun dela; istilu mingots eta zaratatsuen ondotik, bere Alderdi Komunistatik bota egin zutela; 40 urtetan bere burua ateotzat jo ondoren, kristau eta marxista aitortzen dela orain. Egunoroko kazetak, batek daki zein tonutan eta zein asmoz, ematen dituen zertzeladak. Azken 10 edo 12 urtetako kontuak dira.

Egia da, urte hauetako Garaudy dela interesgarriena. Baina haren aurreko bizitza eta haren beste zenbait alde ezaguturik, txundituago gelditzen da bat, gizon honek egin duen bidearen handiaren. Filosofo, militante ekintzale amorratu, literato (baditu errealismo sozialistaren ume diren nobela zatar pare bat, antzerkiak, poemak; argitaratuak eta gabeak), kazetari, estetika profesore, dirigente politikoa (Komite Zentralekoa izan zen 20 urtetan eta Bureau politique-koa 16 urtetan), hizlari aparta, literatur kritikoa, filme zuzendari etab. Estalinismoaren debetorik sutsuena, haren kritikoa kupidagabeena bihurtu zen. Dotrin garbitasun dogmatikoenaren eustaille eta Frantziako pentsalari ospetsu askoren zentsore lotsagabea eta zorrotza izana, berak hainbeste gurtutako zentralismo dogmatiko berorren aldean sakrifikatu zuten, 68 maiatzeko gorabeheren eta urte bereko abuztuko Txekoeslobakiako inbasioaren inguruan, alderdiaren barruan sortutako haserre eta eztabaidengatik.

Garaudyrekin batera gogoratzekoak dira, mendebaleko gaurko kulturaren kritika eta gizarte eredu autogestionario berria, traszendtziarik gabeko marxismo kamuts eta itxi baten kritika eta kristautasun dogmatikoaren kritika, estetikari ematen dion tokia eta garrantzia, Kristoren eta kristau fedearen askapen eginkizuna, minoriei buruzko bere pentsamenduaren hutsune nabarmena, etc. Guzti hau biziki interesgarria da. Baina beste zerbait azpimarratu nahi nuke hemen.

16 urterekin eta bere gogoz, bataioa hartu zuen Garaudyk, tikitant gurasoek ez zioten eman nahi izan eta. Kristok eta honen mezuak liluraturik noski. Baina, bere barne esperentzia zoragarri hori besteengana luzatu asmotan eta gizarte anaikorrago baten aldeko ekintzan porrot egin zuen. Subjetibitate gozo, argi eta barnekoiaren kanpotik, gizarte indar ilun objektiboaren esistentzia idoro zuen. Politika eta gizarte dimentsioen azterketa hau, Marxen eskemetan egin zuen. Lehenengo batetan, kristautasuna eta marxismoa lotu nahi izan zituen. Baina azkenik, garai hartako marxismo dogmakoiak irentsi zuen bestea. Garaudy ateo deklaratu zen. Burruka, elkarrizketa, eztabaida eta, batez ere, esperentzia berri batzuren buruan, berriro bere burua kristau eta marxista aitortuko duen arte. Eta gaur «kristau fedea eta askapenaz» mintzatzen zaigu.

Azken 20 urte honetan, euskal eta kristau militante askok bide berdintsua egin du. (HOAC, JOC, Herri Gaztedi mugimenduen azken historia lekuko). Hain barnetik ukitzen zituen kristau pertsonalismoa, eraginik gabea, ezinean, azaltzen zen, gizarte indarrak erabiltzeko orduan. Análisi marxistaren eskutik, sarritan kristautasuna edo honen pertsonalismoa eta subjektibitatea ukatzeraino iritsi dira. Gizarte indarrak eta politika zer diren ikasi beharrik bagenuen, eta badugu euskaldunok. Beharrezko urrats bat da hori. Balio subjektibo eta objektibo horien sintesi batetara ezin ahal gaitzke iritsi, ordea? Garaudyren esperentziak lagun dieza guke honetan. ■ *Manolo Pagola*

Alderdi politikoak eta dirua

Cuadernos para el Diálogo Madrileko astekariak (194 z.), zenbait alderdi politiko espainolen gastuen estimazioak ekarri ditu. Biltokitan, bulegotan, liberatuen lansari eta bidaiatan, Kongresotan, mitinetan, prentsan, propagandan, folletotan, etc. diru asko sartu behar da. Esan beharrik ez dago diruaren arazo honek ikaragarri kondizioptzen duela alderdi politiko bakoitzaren eragina.

Diru asko behar du edozein partidok, han eta hemen presente egoteko besterik ez bada ere. Jendea eta dirua behar da. Lokalak, areto, bulego eta gela, derrigorrezko dira, infraestruktura zihurtatzeko. PSOEk, esaterako, 50 bat leku omen ditu Espainian, eta 5

Madriren. PCEk askoz ere gehiago izanen ditu segurutik, Madrileko hiriburuan bertan 10 ditu eta. PSP delakoak, nazio mailako 16 omen ditu, eta probintzi mailako 62. PSUCek 40 leku ditu alogeratuak Katalunan. Leku hauk edukitzearen kostuak, milaka pezeta asko dira hilabeteoro. PSOEK, kasurako, 600.000 bat pezeta ordaindu behar du hilabeteoro lekuen alokairutan.

Propagandarena, eranskailuena, prentsakoa, bilkuretakoa eta enparaua kontatu gabe ere, liberatuek berek bakarrik behar dutena izugarria da. Soldatak direla, bidaiordainketak, ordezkaritza gastuak, harremanak direla... Etengabe mugitu beharra du leader politikoak. Ikus Felipe González: abioian, trenean eta autoan aspergabe; edo probintzietatik Madriler asteoro biltzen diren PCEren zuzendari-tzakoak. Eta holatsu besteak. Gastu horik, bidezko denez, Alderdiaren pentzura doaz. Alderdi bakoitzak zenbat liberatu dituen jakin behar da, gero. PCE izango da gehien dituen: Madriren bertan 12 liberatu, eta auskalo zenbat probintzian (Aragonen bakarrik: 8 omen).

Diru aldetik, burukominik gabe bide dabilta eskuindarrak, horik bai. Erdi-ingurukoak ere larrialdi handirik gabe. Alderdiaren soldatarik jaso gabe eta, omen dabilta hauk: beste nonbaitetik ongi irabazten duten scinalea, ezta? Ez da holakorik gertatzen ezkerrean. Baina hauetan ere bi kasu bereizi behar dira: bat, ezker formazio klasiko eta handiena, PSOE, PCE kasurako; eta bi, gainerako ezker-tiarrena. Lehenengok badute diru-iturririk, militanteenaz aparte, alegia, atzerriko «alderdi anaiak». Gaitza da hauen laguntza: diru aldetik, kuadroen eraketa aldetik, etc. Lankidetasun horren bidez, posible gertatzen da azpiegitura eta sare bat leku guztietan sortzea. Eta hau gabe ez dago demokrazi joku batetan ia funtzionatzerik.

Egia handi bat gogoratzen du honek denak, euskal alderdiek ere ondo kontutan eduki beharko dutena: sosaren premia. Gure arteko alderdi eta taldeen berririk ez dugu. EAJk duke kanpoko eta barneko diru laguntzarik handiena. KAS iritsi ezinean ikusten da oraindik, bai jende aldetik eta bai diru aldetik. ESB ongi dabilke.

Euskal politikarako lehen ondorio bat: idealak, asmoak, xede onak, programa hobekak, ez dira aski politikarako; alderdi baten bitartean leku handia du diruak. ■ *Joanes Lekerika.*

Politika ekonomiaren aurka?

Politika dago modan. Politika gora eta politika behera dabilta egunkari, astekari eta beste. Ulegarri, bada izan. 40 urteren ondoren idoro berria bait dugu politik mundua. Eta zorabiatuak bezala gabiltza horrekintxe.

Badut nik kezkarik.

Ez ote gara, politika medio, «distratzen» ari. Alderdien politika honetaz arduraturik, artega eta urduri, gabiltzan bitartean, kapitala ihesi doa, prezioak gora, lana eskastuz, langabezia hedatuz, pezeta desbalioztatuz. Erreforma fiskala ere, gerorako utzia dugu.

Beldur naiz.

Ez ote gabilta axalean? Ez, noski, politika axaleko eginkizuna delako. Baina badut nik susmorik, Politikari (letra handiekin) baino arretatsuago ez ote gauden politik munduko «izkirimiriei». Beldur naiz politika ez ote dugun albiste, berri, gertakari, eta esaldi mailan soilki ulertzen. Eta analisiak, azterketak, programak²

Ekonomia arazo tekniko delako sinestara nahi ligukete batzuk. Teknokraten lana, beraz. Norbaitek esango lukeenez, serioegia da ekonomia teknokraten eskutan utzi ahal dezagun. Ekonomia, arazo tekniko ez baino politikoa da. Sakonki politikoa. ■ *Joan Larrinaga.*

Euskal Eliza: aukera berri bat

Euskal Herriko Apezpikuek (ez denek) «Euskal Eliz Probintzia» bat eskatu dute. Euskal Herriko Apaiz askok (berrehun batek?) «Euskal Eliza» eskatu dute. Zer eskatuko ote du Euskal Herriko kristau herriak?

«Euskal Diozesetako apaizen pastoral Lanaren Baterakuntza» delakoari buruz mintzatuak dira azken aldiaren gure aldizkariak. Ez dago horretan luzatu beharrik. Baina beharrezkoa litzateke, apaiz olde, talde edo elkarte horrentzat izen errazago eta erabilgarriago bat hartzea.

Gabonaldian bere hirugarren batzarre orokorra egin du Donostiako Seminarioan (berrehun bat apaiz?). Aurreproiektu bezala aztertzeko eta eztabaidatzeko prestatua eta zabaldua zen txosten bat: *Euskal Eliza baterantz.*

Mugimendu bat, bide bat, lan bat ireki nahi zuen; hona hemen nola zehazten zuen helburu nagusia: «Proposatzen ari garen lan honen helburu nagusia hau da: Euskadiko kristau herrian mugimendu bat sortu (sekular, apaiz, lekaide, lekaime eta apezpikuen artean) Euskal Eliza iriste arren» .

Horretarako berehalako eta bitarteko helburu konkretuak jartzen zituen aurreproiektuak: Euskal Eliz Probintzia, Euskal Apezpiku Biltzarra, Pastoral Kontzilio euskalduna; euskal apezpikuak hautatzea, «Euskadiko kristauen biltzarrak tarteka antolatzea, ofizialki eta iraunkorki eraturik».

Helburu hauk lortzeko bide batzu eta eman beharreko urratsak ere ebakitzen zituen.

Aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu zen (zorritzarez oso larriki, inor gutxi bidali bait zituen bere oharrak; eta, gainera, ohar horik aztertu beharrean, han bertan emaniko eritzi bakarrak hartu ziren gogotan); dena dela, askok ez zuten aurreproiektua onhartu, eta «berri» bat egitea erabaki zen.

Zergatik?

Aurreproiektuak ez du zuzenean Euskal Eliza zer den argitzen; zeharka eta ukapen bidez bakarrik esaten duena da, euskal Eliza ez dela lurraldezko eta administralgozko batasuna lortuaz burutzen, eta are urrutiago «euskal Eliza» horrek are gutiago izan behar duela beste «nazional katolizismo» bat.

Aurreproiektuak behin eta berriro erabiltzen ditu «berri» eta «eliz oinharri» hitzak. Herriaren zerbitzari eta herriari atxekia izan beharko luke euskal Elizak, Eliz oinharriak eskuharturik hautatu beharko lirateke euskal Apezpikuak, Pastoral Kontzilioan zabalki eskuhartu beharko luke Eliz oinharriak. Guzti hauk esaten dira.

Baina ez da argi esaten euskal Eliza herritik, oinharritik eraiki behar dela, benetan herritarra izan dadin, Eliz Herria izan dadin aurren-aurrenik.

«Euskadi zabalean kristau talde eta oinharritzko elkarten batearzteaz bultzatu»: beste aipaturiko *helburuak* lortzeko *bide* bezala ematen du hau aurreproiektuak. Baina galdetu behar dena zera da: «Bide» hori ez ote den lehen helburuetako» bat, oinharriko Eliza euskalduntzeko eta Euskal Eliz aukera berriaren «oinharri» eta «bide» bezala jartzeko.

Aurreproiektua ez zen onhartu. Eta Eliz aukera berri batetarako proiektua eskatu zen, Euskal Eliza herritar baten aukera emango zuena. Apaizen batzarreak lehen-lehenik argitu beharko duena hauxe da: Zer den euskal Eliza eta Eliza herritarra; bestela hitz hutsak izango dira, ederrak izan arren.

Gauza izango ahal dira apaizak Eliza herritar baten aukera berri bat eskaintzeko? Gogoan ukan behar da Eliz hierarkiaren eta instituzioaren aldetik dabilzala apaizak, nahiz eta oso herrikoi agertu; baina ez da gauza berbera «herrikoi» eta «herritar» izatea. Herriaren Eliza herritarra nahi baldin bada, Eliz herritik sortu beharko du. Berak prestatu eta aurkeztu beharko du Euskal Eliz aukera berri hori, tartean apaizak ere dituela noski.

Landuko den aurreproiektuan «oinharriko kristau elkarteek» eskuhartu beharko lukete oso-osorik eta hasera-haseratik.

Baina... kontuz! *Euskal* Eliza herritarra nahi dugu; eta ez nonbaiteko (Zaireko edo Madrilgo edo Pariseko) Eliza herritarra hemen. ■ P. Uribarren

Irlanderaren paraderoa

Joxe Azurmendi

Nola hizkuntza bat hiltzera doan Estatuak asistiturik.
Euskara nola hil daitekeen euskal Estatu batekin ere.

«Estatuarekin ala gabe, euskarak ez du ezer egin. Galduz doa». *Gatuak daraman sardina.*

Hori uste duen askok, Irlanda aipatu ohi du.

Ingelesak irlandera zapaldu egin zuen. Irlandera galduz zihoan. Irlanda libre da orain. Irlanderak Estatuaren laguntasuna du. Eta irlandera galduz doa. Irlanderak ezin dio ingelesaren bultzadari buru egin.

1. Problema

Estatuak laguntzen ez diolako, ari da hiltzen euskara: esaten dute batzuk. Euskara hizkuntza ofizial deklaratu baliatuz, Estatuaren laguntzaz indarberrituko eta sasoiz biziko litzateke. Problema politikoa da dena.

Batek hori esaten du. Besteak Irlanda aipatzen dizu.

Hizkuntza eri bat salbatzeko ez da aski Estatu.

2. Historia apur bat

Irlandak mendez-mende iraun duen burruka abertzalea eraman du. Inongo dramatikoa eta zailena.

Mailaz-maila, ingelesen oinpean, irlandar nazioa deseginda gelditu zen. Lurralde pobre. Emigrazio-proletalgoaren barreia-tzaile munduan barrena. Bere kultura aberatsa arruinatuta. Hizkuntza zabartuta. VII. mendean literatur hizkuntza ederra zuena, batasuna galdu eta dialektotan apurtzen da. Klase nagusia desbankaturik, ingeles jauntxoak nagusiturik. Legeak ezabaturik. Nazio karaktere dena zarkinduta. Ingalaterrako probintzia baztertu erdeinagarri bat.

Mailaz-maila, Irlandak atzera lortu du bere gaintasun eta jabetasun politikoa:

- 1912: *Home Rule* (Estatuto berezia).
- 1919: Parlamentu irlandes autonomoa, Ingalaterrakotik bereizi eta beregain.
- 1921: Irlandako Estatu librea, Dominio britaniko jarraituaz.
- 1932: Irlandera hizkuntza ofizial (De Valera). Ekonomia autarkiko baten sorrera.
- 1935: Aduana edo errenteri gerra bukatzen da Ingalaterrarekin.
- 1936: Gobernari ingelesa etxera bidaltzen dute.
- 1937: EIRE Estatu soberano. (EIRE —edo *Erin*, *Eirin*— Irlandaren izen kelta da, *País Vasco*-ren izena Euskal Herria edo Euskadi den eran).
- 1949: Commonwealth-etik irteten da.

Gobernuak berebiziko problemak aurkitu ditu: Ingalaterrak zupaturiko probintzi-kolonia erdi usteldu bat.

Lehen epe batetan, Irlanda Ingalaterratik banatuz eta urrundu joan da. Bere oinen gainean finkatuz, Ingalaterrarekiko menpetasun politiko eta ekonomikoa gaintiatuz. Garai honetan, beste ezaugarri nazionalari bezala, irlanderari ere bizkor eragiten zaio.

Bigarren epea: larritasun ekonomiko eta finantzazkoek beharturik, atzera Ingalaterrari hurbiltzen hasten da, 1956az gero. Ingalaterraz batera Merkatu Komunean sartu da. Ingelesa zeharo nagusitzen da berriro.

Mogimendu nazionalaren gorabehera garbia daukagu.

Historian ez gara gehiago luzatuko. Berri zehatzagotarako, ik. PAULO IZTUETA, «Irlanda Kolonizatu», *Zabal*-en 13. zenbakian, 1975, or. 20-31. Oharrotan soil hizkuntzari eta hizkuntz politikari begiratzen diogu.

Irlandak bere bide politikoa egin du, Marxek esaten zuen koloniatatik Estatu soberanotara. *Nazioa* berbiztu eta indarberritu ote da? Ez. Lehen baino okerrago doa.

Horixe da egia. Euskaldunok ez dugu Irlanda gustora aipatzen. Gertatzen ari dena. Aipatzen badugu, burgesei edo kulpak botatzeko bakarrik da, beste zehaztasunik gabe. Euskararen kontrarioek, berriz, Irlanda aipatzen digute.

«Hain ahulduta dagoen hizkuntza salbatzerik ez dago», esaten dute itxaropen gabekoek. Guk Israel eta Txekoslovakia eta Finlandia-Suomi ateratzen dizkiegu. Baina ez da aski. Ikus dezagun Israelen eta beste leku batzutan posible izan dena, Irlandan zergatik ez den posible agertu.

3. Nazio kontzientzia bat: kristau herria/irlandar herria

Irlandarrek bazuten —eta badute, alajainetan— beren nazio kontzientzia.

Nazio kontzientziak ez dira beti gauza berdinak. Oso diferenteak daude, nazio kontzientziak.

Nik ezagutzen dudanagatik, eta ezagutu ditudan irlandarrenagatik eriztekotan, irlandarren nazio kontzientzia bera da irlandarren lehenengo berezitasuna. Irlandar asko aurkitzen da munduan barrena. Irlandarrok irlandar sentitzen dira ikaragarri. Baina haien irlandar sentitzeak berezko eta espontaneak, zatitan zati ezin litekeen gauza bakun dirudi. Dena bat eta oso da, ez zatirik. Beraz, ezin analiza. Irlandesak txino izan dezake bere ama hizkuntza, ingeles harmadan ofiziale izan daiteke edo USAn tren makinista: irlandes jatorrikoa baldin bada, jatorria nahikoa du irlandes izateko. Katoliko ez bada, orduantxe hasten da haren irlandartasuna koloka, akaso. Irlandarrak, irlandar sentitzeko, nahikoa du irlandar jatorria nonbait.

Begira dezagun, nazio irlandesa zertan gelditu den, askatasuna lortuz gero. Arazo sozialak bazterrera uzten ditugu, nabarmenenak eta ezagunenak berak dira eta.

Irlandako sentimendu nazionala eta abertzalea katolizismoan oinarritu da, nik uste. Ingelesek zapaldu egin dituzte. Ingelesak anglikano dira. Irlandarrak, ia obligazio nazional bezala, katolikoak (izan) dira. *Euskaldun fededun* haren antzera. Erlijioak, haatik, bere signifikazio politikoa ia zeharo galtzen du, aurrez-aurre beste fedekorik ez dabilenean. Oraindik gelditzen

da «katolizismo irlandesaren» keru bat. Baina ez du zer eragin. Politika aldetik folklore hutsa. Katolizismo irlandesak beste balio ederrik asko baduenik, ez dugu ukatzen. Hemen politika aldetik begiesten dugu. Nazio politikaren aldetik hain zuzen.

Nagusiak ingeles eta anglikano, eta zapalduak irlandes eta katoliko zirenean, kontradizioa erlijioan espresa zitekeen. (Ulster-en oraindik halaxe dabil). Gero, irlandarrak beren artean gelditu dira etxean. Katolikoak beren artean. Problema sozial eta ekonomiko latzak sortuko dira, latzak hala ere. Baina kontradizio berriok ezin espresa litezke iadanik erlijioan. Erlijioak badu bere tankera nazionalik, balio nazionalik ez.

Hamaika bada, nazio kontzientzia erlijio kolektibitatearen kontzientzi gainean eraiki duenik. Espainolak berak, arabeen aurka; ungariarrak, turkoen aurka; kroatak, serbiarren buruz-buru; polakoak, batetik errusiarren eta bestetik prusiarren kontra, eta abar. Baina guztiok, erlijio kolektibitatearen kontzientziaren gainetik, nazio kontzientzia bat eraiki dute gero.

Irlandar eta ingelesaren arteko diferentzia eta kontrastea erlijioak egiten du. Katolizismoa separazio elementu zen.

Katolizismoak separazioari eragiten zion. Baina gero signifikazio politikorik ez du.

Horregatik, askatasunak erabateko etendura ideologikoa dakar. Situazio berrian erlijioak, ideologia nazionalak, ezer ez du laguntzen. Katolizismoa herritasun ideologiaren baten arras kontrarioa bait da. Irlandarren nazio kontzientzia, askatasuna lortu eta berehalaxe, separazioa egin zelarik, ia kontzientzia probintziano huts bilakatuz doala, ematen du. Higuin antibritanikoak bizirik segitzen du. Berehalaxe irakiten du. Baina kanpo aldera bakarrik erakusten du indarrak. Muga gisa. Ez barren aldera. Etxeko problemak burubidatzeko ez du balio.

Abertzaleen nazional ideologiak, Irlandan, separazioraino bakarrik balio zuen, antza. Askatasun orduak, hamabiak jo arte

ESKUINA ETA EZKERRA

«Gure herriak iholiz ere libratzen baditu lokarriak erdaldunen uztarririk, horrek ez du erran nehi «ipso facto» Euskara salbaturik datekeenik».

Jon Mirande, 1954

Euskadi askatu eta gero, euskara salbu izanen da, predikatzen dute batzuek. Iraultza sozialista egin eta gero, besteek.

puntu-puntuuan. Hamabiak eta laurdenetan porrot egin du. Separazio ideologia bait zen, herrigintzarena baino gehiago. Orain, kontzientzia nazionala espresatzen zuen ideologia abertzalea, itsasontzi bortitz bat lehorrean bezala gelditu da. Azpiko urak alde egin dio.

4. Ideologia bat eginkizunik gabe: zertarako askatasuna?

Ideologia abertzalearen jomuga, separazioa zen Irlandan. Baina separazioak apenas zuen bere kontenidurik. Separazioa lortu, eta zer egin separazioaz? *Irlanda ez da gertatu batua, ez gaelikoa, eta ez sozialista*, salatu du Txillardegik.

Gertaera honi gero eta gehiago begiratzen hasi gara zorionez. Paulo Iztuetak, Txillardegik, Hobeko Urgaindarrak (azkene-ko biok *Hitz-en*) ideologia abertzale kontserbakoiaren arazoa, bata bestearen ondoren, denek aipatu dute.

Conolly-ren esaldia atera da: *gosez hiltzen ari den jendeari ezin dakioke gaelikoa irakas*. Esan nahi da, abertzale bakarrik izaterik ez dagoela, sozial izan gabe. Egia, noski.

Problema, ordea, ez da goseak hiltzen ari delako gaelikoa ikasi ezin duen jendea. Irlandan ere geroz gutiago hiltzen dira goseak. Baina geroz gehiago dira gaelikorik ez dakitenak.

Problema beste bat da. Planteamoldeak ere beste bat izan behar du.

Gaelikoa ikasteko —euskara ikasteko bezala— gogoia behar da. Motibazioak. Hcts, kontzientzia.

Irlandan kontzientziarik ez dago. Hau da, irlandarrak nazio sentitzen dira. Nazio dira eta nazio izan nahi dute. Indarrak eta bizkortasunik ezin ukatuko zaio irlandarren nazio kontzientziari. Hori ez. Baina kontzientzikera herstua iruditzen zaigu. Resistenziakoa. Separazioari begiratzen ziona soil. Gehiegi besteen —ingelesen— kontra; gutiegi beren buruen alde.

Kontzientzia negatiboa dela, esan genezake: inlandar izatea ingelesik ez izatea bihurtu duena.

Irlanda —*Eire*— izena soil aski da kontzientzia horretan. Uharte Berdeak betetzen du. Munduan parajerik ederrena...

Atzera begira dago, etorkizunera barik. Iraganalditik bizi da. Iraganaldia ari da edertzen eta apaintzen: Antzinate keltikoa; Mojeak (Iona edo Hy-ko Monastegia); Erregego «demo-

kratiko» (Ard Ri); herbestean gailendu diren emigrante ospetsuak...

Horra ideologia abertzalearen trazak Irlandan. Antz-antzeko ideologia abertzale bat badugu etxean eta, irakurleak erraz igarriko dio falta denari.

Alabaina: esan dugu, oraingo eginkizunetan katolizismoak ez duela balio, Ulster-en ezik, ia osorik katoliko den herrian.

Sentimendu antibritanikoa antzua da. Gero eta gazte gutiago konbentzitzen du. Herritasun deseginik berregiteko zerbait positiboago behar da.

Iraganaldia mireskizun huts bihurturik dago. Belauniko bakarrik barrura sar daitekeen tenplu sakratua, Irlanderan eta San Patrizioren kanpaia, nazio hizkuntza eta arte keltiko nazionala, ohoreak eta debozio objektuak dira horiek. Horien misterioa da horien balioa. Horien ukitu ezintasuna. Eta abia ezazu hortik ekintza radikalik, nazio desegina erreberritzeko. Askatasuna lortu eta gero eginkizunetan ideologia abertzaleak ez du balio. Beraz, beste ideologia bat sartuko da haren lekuan.

Bi aldetatik huts egin du ideologia abertzaleak: ez da gauza agertu bertako jendearen problema sozialei erantzuteko. Ez da ideologia sozialik. Eta horrek asko trabatzen du, geroz gehiago, haren eragipena. Eginkizun nazionalen eta sozialen etena bera ari da sortzen.

Hala ere, ideologia abertzale bat sozial ez izatea, gaitz erdi, berenez. Gaitz osoa eta okerren okerrena, ideologia abertzale bat abertzalerik ere ez izatea da. Dublinen hori gertatu da. Ideologia abertzaleak askatasuna lortzeko balio zuen; baina ez askatasunarekin zerbait positibo egiteko. Zerbait egiteko presuposituak ipini zituen, eta ez du ezer egin. Askatasuna lortu eta negozio pragmatismo merkantil merkeenaren bidetik sartu da Irlanda. Herri bat egin nahi zen eta Errepublika bat egin da.

5. Nazioa eta nazio hizkuntza

Askatasuna lortu eta gero, bere patuari abandonaturik utzi dute irlandar herria bai bere Alderdi gobernarietara eta bai bere ideologia abertzaleak.

Ezin esan daiteke, irlandarrek nazio borondate sutsua ez dutenik. Ezin esan daiteke, irlandera biziki maite ez dutenik ere, maite. Hala ere, irlandarren nazio hizkuntza erremisiorik gabe

gainbehera doa. Eta Eirek bere burua Irlandaren menpetik laster askatzen ez bada, lehen Ingalaterraren menpetik bezala, nazio harenak egin du aurki.

Zergatik ez da indarberritu irlandera?

Irlandarrek beren gaelikoari esaten diote irlandera. Gaeliko irlandera (*Xuberoako euskara*, esango bagenu bezala da hori) keltaren adaska bat da, hots, gaeliko mota bat. Beste gaelikoak Manx eta gaeliko eskozesa dira.

Burruka abertzaleak zirauen bitartean, nazio berezitasunaren kontzientzia bizi-bizi zegoen. Hizkuntz berezitasuna ere sentitzen zen. Mugimendu bizkorra sortu zen gaeliko-irlanderaren alde: ia dena ingelesez! Ia dena eruditoen zaletasun antzera! *Irish National Theatre Society*, *Irish Academy of Letters*, etc. Azken finean, irlandarari buruzko mugimendua (ingeleza), irlandararen beraren mugimendurik baino gehiago. Zilegi bekigu salakuntza hori, Mac Piarais eta O'Siochfradha, O'Conaire, O'Criomhthain eta beste O'ean erespotez esanda.

Abertzaletasun irlandarrean hizkuntzak inoiz ez du gurean bezalako inportantziarik hartu. Katolizismoak piska bat errazegi bihurtu die irlandarrei abertzaletasuna. Eta gatza gezatu egin die. Abertzaletasunaren funtsa aberria bait da, ez katolizismoa, abertzale den-denak San Patrizio baino katolikoago badira ere. Irlandar nazio kontzientziari katizismoak eusten zion. Harek integratzen zituen beste nazio sentimenduak. Irlandar nazionalismoaren ardatza erlijiosoa zen.

Aberriak egon behar zuen lekuan, katolizismoa zegoen. Eta erlijioa ez da aberria: horra kontua.

Irlandera zergatik doa gainbehera? Galdera horren erantzuna beste galdera bat duzu: nola arraio biziberritu behar zuen, motibaziorik ez bazegoen? Eta zerk eman behar zuen motibaziorik?

Uharte Berdearen kuttuntasunak eta historia zaharraren misresmen mistikoak apenas bizitu lezakete motibaziorik, irlandera zabaltzeko. Galdutako lurra birkonkistatzeko.

Erljioak nimini-amini bat, ausaz, egin dezake hizkuntzaren alde. Baina oso guti: antzinako gauzekiko eta tradizio beneragariarekiko atxekitasuna erne lezake; irlandera galtzen bada, erlijioa eta bertute garbiak arriskuan daudela predika lezake, eta abar. Baina hori dena axal-axal da. Motibazio eskasa. Sinesgarririk ozta-ozta. Beti ere defentsibo hutsa. Ez du lur galduak berri-rabazteko balio.

Honek ez du katolizismo irlandesaren kritikarik izan nahi. Bai, abertzaletasuna katolizismoari konfiatu zion ideologiaren kritika. Bete ezin duen betekizuna da erlijioarentzat, hizkuntzaren balioa erakutsi eta irlandera nagusiarazteko motibazioak berak eman behar baditu. Hizkuntzak balio duena bere balioa da; ez erlijioak eman liezaiokeen balioa. Aberriarentzat hizkuntzak balio duena, abertzaletasunak ez bestek aurki lezake. Abertzaletasunak nazio hizkuntzan bertan aurkitu behar du haren balio naziogilea; eta berdin alderantziz: hizkuntzaren balio naziogilea abertzaletasunak aurkitu eta argitu behar du. Hemen erlijioak ez du zer sartu eta ez zer irten.

Erakutsi duen agresibitate eta suhar guztiaren azpian, situazioko agresibitatea bait zen, ideologia abertzale irlandarra kontserbakoi, erromantikoa, motel, ahula zen bere xedeetan. Ideologia haren ezaugarri nagusiak historiaren miresmena, Uhartearen maitasuna, hondarzarharren mistika eta gorroto antibritaniakoa ziren. Ingelesak ubitarteaz bestaldera jaurtiz gero, horiekien ez dago nazio desegina berregiterik.

Hortik segitu da irlanderaren eskalabroa. Irlanda bere buruaz erdi-jabetu zenerako. De Valerak hizkuntza ofizial deklaratu zuen irlandera. Eskoletan obligazio jarri zen irlandera ikastea. Buru goititzen hasi zen hizkuntza zaharra.

Udaberri labur bat. Jendeak interes guti erakusten zuen, gobernariengandik hasi eta azkeneko gobernatuaganaino. Eire Errepublikan errealtate zenean, nazio irlandarraren kezka berehala epeldu zen. Egunoroko buruhaustea nagusitu dira. Ingelesa da nagusi orobat. Irlandarak, ingelesaren menpealdian baino ere prestigio eta inportantzia gutiago du. Askatasunak ez dio irlanderari megoriarik ekarri. Estatuak ez du irlandera salbatu.

Bata besteagandik daude puntuok: kontzientzikera bakoitzak halakoxe jarrerak eta iharduerak bermatzen ditu. Irlandako herriak bereak eta bost eman ditu aberriaren alde. Edozein sakrifiziotarako prest egon da. Gogor jokatu du, gogortxo ere. Ez da izan lanak eta nekeak ikaratzen zutena.

Askatasuna berrirabazteko hain herri suhar hori berori, epel eta are hotz agertu da, galdutako hizkuntza berrirabazteko. Ez dago zergatik kaskartu bestelako problemak: ingelesari buruzburu, irlanderari nahi-ta-ez sortu behar zitzaizkionak. Irlandera ezin neur daiteke ingelesarekin. Ingelesak komunikabide asko eta bortitzak ditu. Oso desarroilatua da. Ingelesaren espansio garai batetan bizi gara.

Alabaina, zailenak egiten zekien jendeak, hizkuntza arazoan errazenera jo badu, arrazoin inportante bat mugimendu abertzalearen nazio kontzientzikeran dago.

Kontzientzikera horrek ez du jakin irlandar herria bere nazio hizkuntzaz benetan ardurarazten, grinatzen, antsiarazten. Hizkuntza zaharrari miresteak ez bait du eragimenik, jendeteria berotzeko, hizkuntza zail bat ikastera. Ezin itxaro liteke, herria jo-ta-ke abiatuko denik, hizkuntza bat jatorrizko berea duelako soil, hizkuntza hortaz jabetzera. Herria mugiarazteko, hizkuntzaren balioak etorkizunean egon behar du, eta argi eta garbi agertu behar du: naziogintzan. Herria mugiarazteko arrazoinak —herri abertzaleaz ari gara— ezin izan litezke hizkuntzaren zahartasuna edo edertasuna edo bitxitasuna. Jendeak ikusi egin behar du, irlandarrak zertarako duen irlandera. Politiko abertzaleen eginkizuna da hori.

Edozeinek ikusten du, honek denak nolako masa psikologiarren problemak sortzen dituen. Abantail handia da burruka zail batetan ideologia erraz bat. Hizkuntza arloa ez dago lau ideia sinpletan argitzerik. Zail eta arriskutsu ere gerta liteke, etsaia gonbatitzeko bere buruan sinestu behar duen herri zapalduari, zein deseginik dagoen esatea, uste ona eta konfiantza bere buruan lehertarazi gabe. Errazago da jendea burrukarako berotzea beste baten aurka, bere buruaren kontra lan egiteko baino. Eta abar.

Mekanismo psikologikoen aldetik oztopo asko du, jendeari hizkuntza zarpildu baten alde eragiteak. Abertzaletasunak baka-rik eragin dezake hori.

Zaila zail, hortik jo behar. Mugimendu abertzale guztiek abe-riaren glorifikaziora jo ohi dute. Bego. Baina horrekin eskuz

«Hori zioten bestalde Irlandar populuari aholkatzen orduko gidari abertzaleek berek, Daniel O'Connell handiak (1775-1847) batez ere, ezen ikusten zuten Engelera ez jakiteak zituela Irlandarrak jopu batzuen maillean atxikitzen atzerritarren eskupeko: atzerritar etsaia, beraren izkiluz garaitu beharra zen, hau da, beraren hizkeraren bidez. O'Connell eta haren jarraitzaileen guduketari

esker, Irlandarren bizi baldintzak geroago eta hobekitu ziren ondoko urteetan, eta, azkenekotz, Irlanda berriz bere gain jarri da, mendetako Engelandarren uztarrria egotzi-rik. Hargatik, hizkuntzak ez du orduan galdutako eremua atzera biltu ahal izan; aitzitik, orain duela ehun urte baino askoz ttiptago da egun Irlandardunen kopurua...»

Jon Mirande, 1954

esku, aberriaren gaitzen kontzientzia radikalak behar da. Gizarte arazoan kontzientzia batik-bat. Baina baita hizkuntza arrakalaturaren arazoarena ere. Askatasuna ez bait da loria batzurentzat behar, mixeria batzu erremediatzeko baizik.

Arrazoin hutsak ere ez dira aski. Alderdi zinez abertzaleek, hizkuntzak naziogintzan duen inportantzia aspergabe gogoratu beharko dute. Argitu eta aldarrikatu. Kanpainak egin. Jendea animatu. Baina hori dena ez da ezer oraindik. Alderdi zinez abertzaleek egin behar dutena, batez ere, hitzak baino gehiago obrak erakustea da: hizkuntza ikasteko eta indartzeko bideak sortu. Posibilitateak ireki. Hizkuntzaren balio naziogilea praxian erakutsi.

Beste dena mundua interpretatze hutsa da, ez aldaraztea. Mundua ez du interpretazio batek aldarazten. Eskubide deklarazioek. Ezer ez du aldarazten, euskararen edertasunak aipatzeak eta haren eskubideen errespetoa proklamatzeko, eskolak esijitzeak, etc. Interpretazio huts. Eskola jartzeak alderazi du mundua. Eta praxiak bere interpretazioa eman du.

Abertzaletasun irlandarrak alderdi bietatik huts egin du: ez hizkuntzaren inportantzian insistitu du, idelogi mailan; ez biderik sortu du behar bezala, irlandar nazio izan nahi zuen herria irlanderez benetan jabe zedin.

6. Politikoen dilema

Politiko guztien arrisku handi bat, oportunistoa da. Oportunistoa, berehalako irabazi batzurengatik, helburuak saltzea da. Politiko abertzaleentzat, adibidez, hizkuntz politikako oportunistoa: resistentzian, zapalketa garaian, ez da gehiegi insistitu nahi izaten hizkuntzaren arloan, galdua dutenak ez ikaratzeko. Ahalik eta jende gehienak inguratzearen, kontzesioak egiten dira.

«Jende asko eta asko da gaelikorik ez dakiena, hirietan be-reberki, baina horik ere abertzale behar ditugu; eta nola oso zail den orain gaelikoaz jabetzea, tolerante izan behar da orain-goz», pentsatzen dute. «Askatasuna lortutakoan aisa konponduko dugu hori». Eta hizkuntzaren arloa, askatu eta gerorako uzten da. «Errealista izan behar da», esango dizute.

Bitartean, nazio hizkuntzaren ederraz eta zorigaitzaz etengabe mintzatuko zaizkizu. Oker guztien errua norena den salatuko dizute. Zapaltzaileengandik beti esijitzen arituko dira. Nazio hiz-

kuntzaren defendatzaile biziak dirudite... Hori dena bai. Baina «errealista izan behar da».

Hala sortzen den abertzaletasunean, hizkuntza zapaltzaileak salatzeo arrazoina da batez ere. Eta abertzaleentzat berentzat, debozio objektua. Beneratzeko erlekia. Ez, ahalegin guztiekin ikasteko eta lantzeko eta zabaltzekoa. Hori oso zaila da zapalketa giroan. Askatasuna lortu eta gero aisa egingo da.

Inkestarik egiten bada, herri abertzale guztiak nazio hizkuntza jakin nahi *lukete*, agertzen da. Gehien-gehiengoak behintzat. Ez badakite, ba, bistan da zapaltzaileen kulpak dela. Denek jakin nahi lukete, baina ezin dute, aukerarik ez dute eta: segitzen dute handik politiko abertzaleek. Jakin nahi *lukete* horrek zenbat balio duen kondizio horietan, ez dira hasten aztertzen baezpadare.

Askatasuna lortutakoan gertatzen da, jendeak ez duela hainbeste gogorik, hizkuntza ikasten hasteko... Eta politikoez ez daukate inpopulazterik...

Burrutara luze eta gogorrez bakarrik lortzen denez, askatasuna iraultza bat eta iraultza-festa izan ohi da. Gero, etsaia ezkutatu denean eta festa egunak pasa direnean, nazio sentimenduak epeltzen hasten dira. Arras bidezko eta normal. Problema berriak ere laster agertzen dira. Eta lehen hain inportante ziruditen gauzak —nazio hizkuntzak, adibidez— askoz inportantzia gutiago dute.

Prozesu normala da hori. Eta ez dago munduan, problema horri argi eta garbi oharu ez zaion politiko abertzalerik. Hala ere, ordea, lehenengoa askatasuna lortzea dela eta, askatasuna lortu eta gerorako uzten da hizkuntzaren arloa, oraintxe bertan hizkuntzaren alde ekintza radikal bat abiatu gabe.

Dilema hori ez da politikoen atxakia hutsa. Egiazkoa da. Eta egiazkoa delakoxe, kontuak garaiz atera behar dira. Egia da, herri zapalduan posibilitate gehiegirik ez dela izaten, nazio hizkuntza galduta berrirabazteko. Tolerante izan behar dela, zapaltzailearen hizkuntza besterik ez dakitenekin. Ez dela gehiegi esijitu behar. Baina egia da, baita, askatasuna lortu eta gero nazio kontzientzia ez dela jeneralean aurretik baino sutuago izango. Beraz, egia da, askatasuna lortu eta gero, nazio hizkuntza berrirabazteko posibilitate gehiago izanen dela, baina gogo gutiago. Eta nahi omen *lukete* lako hartatik, ezin dutela, zaila dela, mila eragozpen dagoela, ez dela hain inportantea, eta abar, galdutuko da.

7. Abertzaleak Gobernuan: indio reserbatuak irlanderarentzat

De Valerak eta beste «abertzale zaharrek» Irlanda gaelikoa nahi zuten. Conollyk eta beste «sozialista zaharrek», orobat, Irlanda gaeliko eta sozialista nahi zuten.

Politiko denek Irlanda gaelikoa nahi zuten, beraz. Behar ziren neurriak hartu ziren. Herriak huts egin du... Herriak? Bai, herriak nolabait ere: herria ez bait zegoen, hartarako behar zen kontzientzi mailan. Hala esaten da. Esaten ez dena da, herriaren kontzientzi mailak zerbait ikusi behar izaten duela politikoeekin. Herria zeri esaten zaion ere, argitu beharko litzateke.

Gaelikoa hizkuntza ofizial deklaratu zen. Obligaziozkoa zen eskoletan gaelikoa ikastea, etc. Baina herriak ingelesari atxekirik segitu zuen.

Orain ez digu inporta, gaelikoa berbizteko hartu ziren neurriak egokienak ote ziren ala ez. Problema teknikoa inportantea da, nola jokatu. Eta horretarako orduan, poliki-poliki ikusi beharko dugu, besteak nola ibili diren. Nire ustez, hala ere, problema ez da egon neurrien eta medio teknikoen zuzentasunean, problema hori problema tekniko zela uste izatean baizik.

Teknikarik hoberenak aplikatuz ere, aukera eta maukera guztiak emanaz eta bizkorgarri eta gusto guztiak eskainiz ere, go-goan hartu behar da beti, kolektibitate batek hizkuntza aldatzea, nolako bihurriketa psikologikoa den. Bihurriketa horretarako, ikaragarriko tirania erabili nahi ez bada, ikaragarriko borondatea behar da. Eta gero dator borondateari laguntza eta erraztasun tekniko guztiak ematea. Borondate horrekin politikoei badute zerikusirik.

Herriaren zinezko borondatea eta enpeinua aseguratzea da lehen-lehenengoa, hortakoz. Hori da Irlandan iritsi ez dena.

Lehenengo ofentsiba laburraren ondoren, Dublingo Gobernuaren hizkuntz politika, aspaldion, erretirada isil eta jarraitu nabarmena da. Beti ere irlandera obligaziozko hizkuntza rituala da, agur-magurrak egiteko eta noizean behin beren *Gora Euskadi* hotsegiteko. Beti ere irlanderaren kultoa erlijiosoki ospatzen da, salmuz eta alabantzaz. Baina irlandera, nazio hizkuntza, liturgia politikoetako *Kyrie eleison*-a da soil.

Egungo plan berriek ezin disimula dezakete Gobernuaren hizkuntz politikaren zeharoko frakasoa. Gobernuak berriz ere gaelikoa salbatu egin behar dela eta zaindu egin behar dela eta segitzen du. Ia ez du esaten, Irlanda guztia gaelizatu behar de-

nik. Plan berriak prestaerazi ere egin du gaelikoa salbatzeko: irlandararentzat, USAn indioentzat bezalako reserbatu batzu asmatu nahi dira orain. Nola heldu gara, askatasuna lortu eta berrogei urte eskasetara, etsitzera?

Irlandera, sartaldeko eskualde baztertuetan hitzegiten da oraindik — Donegal, Mayo, Galway, Kerry eta Cork. Sortaldean (Meath) eta hegoaldean (Waterford) ere minoria batzuk egiten dute: funtsean, sartaldetik lanera etorritako familiak dira. Sartalde gaeliko hura da Irlandan bazter pobreena. Beste guztian ingelesa egiten da.

XVI. mendera arte gaeliko irlandera zen Eireko hizkuntza bakarra. Problema lehenago ere izan dira, noski. Dublin, Limerick eta Waterford, batik-bat, lehenengo wikingoen eta gero itsas-turu eta pirata anglo-normanoen habiak izan dira aspaldidanik. Balmaseda eta Tutera, Bizkaia eta Nafarroarik ote diren zalantzak dituztenek, beren zalantzak izan ditzakete, batez ere Dublin eta *Pale* guztia (hiriburuaren inguruak) irlandar ote diren. Irlandan, behinik-behin, baietz pentsatzen da eta ez ditu inork erraklamatu orain arte.

Ingelesak menperaturik, hizkuntzaren galbidea berehalaxe hasten da: *Gaelic kultura, aristokraziarik gabe, bizitzeko gizarte-girorik eta egitura-sostengurik gabe, indar-galtzen hasten da, poeten artean bizirik jarraituko badu ere* (P. Iztueta).

Erdi Aroaz gero, Ingalaterrak politika normaniko ezagun hura segitu du Irlandan: bi-herri-gizarte bat sortu du, herri bat gainean eta azpian bestea, nagusi herria bat (anglo-normanoa) eta morroin herri bestea (irlandesa). Irlandar jauntxoek ondasunak konfiskatzen dira lehenengo, ondasunok zaldun anglo-normanoei emanek. Irlandako jauntxoeria feudala erabat anglo-normanoa izanen da. Baina lehen uhin anglo-normano hau irlandarrekin nahastuko da eta irlandar sentituko. Beraz, XVI. mendean laborari aberatsen konfiskazio sistematikoa hasten da, Elisabeth Erreginaren urteetan. Lurrak *Landlord* edo jauntxo ingelesei banatzen zaizkie. XVII. mendean, Oliver Cromwellek laborari lurretako 2/3 osorik konfiskatzen du, Ingalaterratik etorri arazitako kolonoei partituz. Kolonorik aski ez bait du erakarri ahal izan, lurretan lanean irlandesak arituko dira, maizter eta morroin gisa, eta kolonoak jauntxo altxatuko dira. Cromwellek urteotan bazter guztiak erre eta kiskali eta Irlandako ia populazio erdia garbitu ere du, halaber, sekulako mendeku gerra batetan. Denboraldi batetan ez da jende gehiegiren problemarik izango. Gilen III.ak falta zen apurraren konfiskazio politika jarraituko du:

XVIII. mende haseran, Irlandako lurreen % 90 jabe ingelesan eskuetan dago.

la lur-jabe guzti-guztiak anglo-normanoak dira. Lanik izateko, merkatalgo eta industrian ez-ezik, laborantzan ere geroz behar-rago egiten da ingelesa.

1845-1846 gose urte beltza izan zen: bi milioi buru galdu bide zuen Irlandak aldi hartan. 800.000 goseak hilda (% 10). Besteek emigratu egin behar izan zuten. Dakigunez, orduan oraindik irlandes guztietatik gutienez laurden batek ez zekien gaeliko besterik, *Landlord* eta kolono ingelesak ugari izan arren. Hiriak aparte, jende xehea gaelikoz ari zen. Klase nagusiak, merkatariak, eta abar, instituzgoei lotuenak alegia, ingelestuak ziren iadanik. Urteotan Ingalaterrak bere politika kolonialista oso gogortzen du Irlandan. Marxek ikusi zuenez, hura baino makurrago tratatzen zen koloniarik ez dago. Politika asimilazionista radikal bat sistematikoki eramaten da aurrera kupida gabe. Berrogeitamar urte geroago, gure mende haseran, zortzitan batek bakarrik daki gaeliko Irlandan.

Egoera politiko eta sozial honi, emigrazioa gainera behar zaio. Emigrazioak odolustu du Irlanda. 1841ean 8 milioi arima zuen Uharteak: 1840-1900 bitartean 3,5 milioi emigrante inguru kontatzen da (Irlandak orain duen baino jende gehiago). USAn bakarrik 22 milioitan karkulatzen dira bertako irlandesak. Zer esanik ez, laborari txiroenak zirela emigrazioa behartuak, hots, gaelikoak.

Politika horrek hondatu zuen —zapalketa, asimilazio eta emigrazio artean— irlandar nazio gaelikoa.

Irlandak apenas du industriadik, Dublinen eta inguruan ezik. Aberastasun handiena ganaderia da tradizionalki; haragi espor-

«Aitzitik beste batzuk gu bezala folklore erdi-hil bat begiratzan alperretan nekatzen dira, artean beren herri nortasuna egiten dutenak galtzen direla: hizkuntza, lege ohitura eta gizarte ohitura, arraza batasuna, etabar. Hala IRLANDAN, non eta abertzale kar batekin hasi baitziren joan den mendean, gaeliko atleta-kirol, gaeliko dantza, gaeliko «hurlin», gaelikoa (hizkuntza)

hiltzen ari zen bitartean; ondorio bezala, gaur, herri aske den batean HERRI KONTZIENTZIA EGIAZKO BATEN HUTSUNEA ETA BERE ONDORRENGO EKIN; kanpotar zapalketaren denboran baino ingeleste sakonago, ekonomiaren gelditze, erbesteratze, herria jendez hustutze, etabar...

HALA IZANEN OTE DA EUSKAL HERRIAN?»

Jon Mirande, 1961

tazio gehiena, ordea, Ingalaterrak erosten du. Arras Ingalaterraren menpetasun ekonomikoan loturik dago behinolako kolonia.

Historia horrek eta horrek utzi duen egoerak esplikatzen dituzte *De Valera-ren dilemak*.

1932ko bozemanaldietan, De Valeraren *Fianna Fail* Alderdia zeharoko maioriaz nagusitu zen. *Fianna Fail*-en programak puntuok zituen: 1. independentzia, 2. Ulster Irlanda baitara ekarri, 3. eskola, administrazgoa eta prentsa gaelizatu, 4. lur-jabetzaren berrerakuntza, 5. industria autarkikoa sortu, 6. emigrazioa geldiarazi.

Ingalaterrarekin menpetasuna hausteko, De Valerak bide autarkiko bat eman nahi izan zion ekonomiari (5. puntua). Isolatuturik eta hertsirik, irtenbiderik gabe kausituko da industria. Ondorioz, geldiarazi nahi zen emigrazioa, xit ugaldu zuen politika honek (60 mila urteko). Emigrazioaz, beste kolpe bat eman zitzaion irlandearari: De Valeraren gobernaldian irlandera zekite-nen kopurua goitik behera jaitsi zen. Egun, 70 milak baizik ez daki etxetik irlandera. Eta irlandera egiten deneko lurraldeak, emigrazio lurrak dira oraindik ere. Irlandak 3 milioi buru kontatzen du.

Esan dugunez, jabeak eta eukitsuak ingeles jatorrikoak ziren. Horiek erabakitzen zuten kultur bizitza. De Valerak eskola, administrazgoa eta pentsa gaelizatzeko asmoa zuen. Baina guztio-tan posizio hoberenak anglo-irlandesok zituzten hatzamarretan, kargu inportanteenak nahiz ikastetxe ohoratuenak (Elizaren kolejio prestijiotsu batzu salbu). Horien kolaborazio entusiastikoaz bederen ezin konta zezakeen De Valerak. Zer egin: klase hori lurrerarazi? Baina De Valerak erregela demokratiko guztien araberak jokatu nahi zuen. Lur-jabeen poderioa hausteko, lurrak birbanatzea pentsatzen zuen. Hortik ezer lortu bada, anglo-irlandesak hirietako lanbide eta karguetan gogorkiango atxekitzea izan da. Hirietako anglo-irlandesen poderioa ez bait da ukitu. Hemen ere, suaren eta uraren artean hautatu behar izan du De Valerak. Irlandako populazioa, kolono anglo-normanoak etorri zirenez gero, bi sailetan banatzen da: irlandesak eta anglo-irlandesak; lehenengoak, mendez-mende morroin eta maizter izandakoen semeak; bigarrenak, konkistari eta kolonoen etorkiokoak (Joyce katoliko da, Beckett protestante). Kargu nagusietan, anglo-irlandesok esertzen ziren. Autonomista ziren, nolabait, Ulsterko protestanteak egun bezalaxe, baina ez independentzi zale eta guti-ago Irlanda gaelizatu zale. Aginpide politikobaren monopolioa galdurik, lur-jabegoan mehatxaturik, beren posizioa hirietan hobeki

aseguratzan enplegatuko dira anglo-irlandesok. Estilo anglo-amerikanoko demokrazia, ekonomia, gizarte antolaera, jasotzekotan, anglo-irlandesok behar-beharrezko jendea ziren administrazioan nahiz irakaskintzan nahiz komunikabideetan eta nonahi. Ez da batere harritzekoa, «herriak» entusiasmorik erakutsi ez bazuen Irlanda osoa gaelizatzeko... Zail ez-ezik, imposible gertatu behar, derrigor, klase minoritario baina bortitz eta nagusi anglofilo baten bidez Irlanda gaelizatzea, demokratikoki eta liberal jokatu.

Azkenean, Gobernuak amore eman behar izan du.

Kolonialismo garaitik datorren indar proportzioa eta poderio sozialen banaketa ukitu nahi ez duen Gobernu liberal, demokratiko eskrupuloso bati, zein irtenbide gelditzen zaio, nazio hizkuntza galdua berbizteko? Bat ere ez, talde eta sail aberatsenak eta boteretsuenek sabotean egiten dute eta haren politika.

Zer egin dezake? Dagoen apurra behintzat salbatzen saiatu.

Horretan aritu nahi du Gobernuak orain: alegia, oraino bizi-rik diraueneko konterrietan irlandera aseguratzen. Dirauentxo. Horretarako, lan eta bizibideak sortu beharra dago konterrietan, esan dugu eta eskualde txiroenak berak direla. Sartalde bazterrean lehenbailehen lantegiak sortuz eta emigrazioa lotuz bakarrik salba daiteke irlandera honez gero.

Asmoa ez da oraingoa. 1925ean sortu zen lehenengo Batzordea, *Gaeltacht-eskualdeen* azterketa bat egiteko. Baina 50 urteetan hasi zen *Gaeltarra-Eireann* efikazia pittin batez funtzionatzen eta ezer egiten; hau da, Gaeltacht-eskualdeen promoziorako erakundea. Erakunde honek Gaeltacht-eskualdeetan finkatu nahi duten industriei subentzio gizenak eskaintzen dizkie (% 60rainokoak). Lan-eskolei laguntzen die gehiena. Industriak eta teknikak badituzte behar bezalako adituak eta ikasiak, hortakoz. Eskualdeok hustutzeko bidean zeuden. Azken bizpahirulau urte honetan, inmigrazio lur bilakatu dira. Lehenago emigratuak, batez ere, bueltan datoz. Baina berriak ere. Irlandera eskolak bete-beterik daude.

Artesautza promoziotu da: artile janzki, tupina eta eltzegin-tza, urre eta zilar lanak. Baita industria ere, haundi ala ttipi: batelgintza, porlan, eta beste. Entrepresa modernuak erakarri dira Suezia, Alemania eta Italiatik. Labur: lana sortu da.

Azkeneko bolaran asko promoziotzen ari den industria bat, turismoa da. *Gaeltarra-Eireann* bizi-bizi ari da hotel katea bat eraikitzen. Organizazio diruetatik % 30 turismoaren bizkortzeko ematen da.

Horra, burruka urte gogorretako asmoetatik, berrogei urte geroago, gelditzen den guztia: gaeliko-indioen reserbatu bat nazio bazterrean. Nazio museo bizi eta bitxi bat.

Hori ez da politiko abertzaleek behinola agintzen eta nahi zutena. Egiten jakin ez dutenaren monumentua da.

Hori ez da irlandar herriak burruka guztiaren erdian nahi zuena. Ametsetan bederen, Irlanda gaelikoa espero zuen irlandar herriak. Ametsen azken bitsa ote da?

Hori ez da herri gaelikoak nahi zuena eta ez nahi duena. Gaeltacht eskualdeetan jendeak ondotxo daki, gaelikoa nazioaren hizkuntza dela. Eta ez dute naziotasunaren ezaugarritzat musorik eta ez parke zoologikorik eta ez indio reserbatuak izan nahi, uharte bazterrean. Kaminoan senalkariak ingelesez eta gaelikoz daude. Ingeleseko letreroak pintura beltzez borratu ditu jendeak: protestaz, Dublingo politikoen kontra. Hemen Eire da.

J. A.

PNV eta euskal indarren batasuna

Joxe A. Otaegi

Zer da PNV (EAJ)? Orain, udazken aldera, lainopecan ezkutatuturik agertzen dira herriak goizetan, eta PNVk horrelako zerbait dirudi.

PNV (Partido Nacionalista Vasco), euskaraz EAJ esaten ohi da, Eusko Alderdi Jeltzalea; eta JEL (zale) hori «Jaungoikoa eta Lege-Zaharra» da: Jaungoiko eta Lege-Zahar-zale Alderdia.

Espanian «Alderdia» esaten denean (Alderdiak esan du, Alderdiak egin du), komunistena ulertzen da. Euskal Herrian PNV. PNV da Alderdia, «el Partido Vasco por antonomasia».

PNV «historikoa»

Abertzaletasunaren ohorezko izenik gehienak PNVkoak dira: Lehendakari zen Jose Antonio Agirre; Saseta, gerran; Lizardi bat, kulturean; Arana Goiri, guztien gainera. Abertzaletasunaren ia sinbolo denak PNVri zor dizkiogu: ikurrina, Euskadi izena bera, zenbait kanta («Eusko gudariak gera»), eta abar. Abertzaletasunaren errealizazio gehienak PNVk burutu ditu: Estatuto, euskal Gobernu, Eusko Gudaroste, euskal Unibertsitate, eta abar. Hontaz aritzekotan, *eta abar* asko esan beharko genuke. Abertzaletasunak PNVri zor dio, batez ere, bere izpiritua. Euskal Herria PNVk bihurtu du Euskadi, gaurko Euskadi politikoa.

Eta, hala ere, historia gehiena, tradizio gehiena, pertsonalitate ageri eta nabari gehiena duen Alderdia, paradoxa batez, gutien-gutien ezagutzen den Alderdia dela esan liteke.

Izan ere, non dago PNV, non ikusten da? Non agertu da azkeneko hamabost-hogei urte honetan?...

Agian Alderdi aparatuan dabiltzanek eta alderditarrek hobeto ikusiko

dute, Alderdia zer *den* (hots, ez bakarrik zer *izan den*). Kalem dabilenak ezin du ia ezer ikusi. PNV anekdotarioen Alderdia bihurturik dago kalean, zentzu positiboan nahiz negatiboan. Herrietan, batik-bat, pertsona batzurrekin berdindurik agertzen da: jaun ohoragarriekin gehienetan... Eta jaun ohoragari horik, sarri-sarri, ez dira gazteek gehien ohoratzen dituztenak hain zuzen. Salbuespenak badaude, ez guti. Baina ez inpresio jeneral hori desegiteko aina.

PNV «izan zena da»: inpresio hori sortzen da, hortakoz. PNVk ordua du inpresio horren kontra zerbait egiteko.

Eta jende askoren beste inpresio bat hau da: PNV, hori euskal Gobernua da, herbestean; hemen barruko Alderdirik ez da haintzakotzat hartzen edo.

Beraz, jende askoren begitan PNV Alderdi «historiko» bat da. Zentzu positiboan nahiz negatiboan hori ere, beharbada negatiboan gehiago.

Orain PNVren historia —eta 36ko gerra bereziki— alde batera uzten ditugu (horregatik abaztu gabe). Izan ere, inork PNVri erasotzen dihonean, berehalaxe aipatu ohi diote gerrakoa. Balio du arrazoinak. Baina ez, behar lukeen aina. Ez bait gara ari ordukoaz eztabaidan. Ikus *Zutik* batetan: «Duela 40 urte EAJ-a gure Herriaren parte haundi baten gidaria izan zen, eta, segur asko, zitekeen bezain ontsa bete zuten bere eginbidea. Horretaz merezimendua ematen diogu». Bego hori.

PNV eta euskal ezkerria

Baina hori esan duen berberak, geroxeago, Euskal Herriaren traidore eta oportunistak eta burges deritza Alderdi horri berari. Problema hor daukagu, ba.

«Ezker berri» esan geniezaiokeen mugimendu guztia dator oso gaizki PNVrekin, ETA, EHAS eta ESBtik hasi eta MCraino. Ezker abertzalea etengabeko kritikan ari zaio.

1. PNV ez da abertzalerik, esaten da. Sukursalista dela (kristau-demokrazia espainolarena); indar espainolekin kolaborazionista, baina euskal indarrekin ezer jakin nahi ez duena. «Ez duela inola ere Euskal Batasun herriko baten plataforma politikoan parte hartzeko xederik eta ez gogorik» (*Zutik*, 65). «El PNV está negociando la creación de un Consejo Federal con dos Partidos sucursalistas —PSOE, PC: los dos Partidos sucursalistas más destacados— dejando de lado TODAS las fuerzas políticas vascas» (*Garaia*, 4). Nafarroaren hauzia gainera genezake, eta Ipar Euskadirena: nazio arazoan ez dira konpontzen PNV eta ezkerriar abertzaleak.

2. Sozial politikan are gutiago: PNV burgestzat jotzen dute beste indar guztiek, zuzenez ala okerrez.

3. Azken urteotan ez duela ezer egin, egozten zaio. Eta orain bertan Madrilgo indarrekin —kontserbazaleenekin han ere— flirteoan dabilela, bertako indarrei zaputz eginda. «Oportunismo politiko nazkagarriena, eta euskal populuak azken urte hauetan eraman duen burukatik at egotea,

horiek dira EAJ-en estrategia politikaren bi ezaugarri nagusiak», adierazten zuen ETAK.

Horik dirateke funtsean PNVri ezkerrek egiten dizkion kritikak. Puntu horietan gauza asko sartu beharko genuke oraindik, zehatzago aritzekotan. Euskal Gobernuarena, batez ere. Z. *Argia*-k euskal indarrei galdetu zien: «Euskal Gobernuua dagoen dagoenean ongi ahal dago, ala aldatu egin behar da?». Denetatik PNVk bakarrik erantzun zuen, «bere hartan jarraitu behar duela». Beste guztiek oso eritzi kritikoak eman dituzte. Seinalagarria.

PNV kalean

Kalean dabilta kritika horik, iadanik, batez ere gazte artean. Eta PNVz zabaldua dagoen eritzia, horrek denak zertzen du. Nahì bada eta ez, PNVk situazio horri buru egin behar dio kalean.

Honez gero, PNV ez da inola ere «el Partido Vasco por antonomasia». PNVk euskaldun gehiegi du bere kontra, ez kanpoan bakarrik. Hori, aldiz, PNVrentzat kaltegarri iruditzen zait; horixe da gutiena, hala ere: Euskadirentzat iruditzen zait kaltegarri, hori okerreana. Inork ez du irabazten horrekin.

PNV, oraingo eran esateko, «legalitatea errepresentatzen du», Euskal Gobernuaren bidez. Errepublikak garaitik datorren erakundea bait da: herriak hautatua eta —PNVk insisitzen duenez— «herriaren nahiaren adierazpena». Frankismoa parentesi bat bezala hartuz, Euskal Gobernuari legegokioke berriz ere Euskal Gobernu bihurtzea... Hor dago, ba, koxka! Errepresentatibitate horixe bait da, PNVri beste indar abertzale ia guztiak ukatzen diotena; eta, gauden gaudenean, herriak baitesten dionik ere apenas esan litekeena.

Hor gaude: Madrilekin tratatzeko nahiz edozertarako, Euskadik «errepresentaziorik» ez du, kanpokoek nahiz bertakoek onartua. Kanpokoek PNV (hots, Euskal Gobernu), ETA edo ez dakit beste zein baino gustotago hartuko dutena Euskadiren errepresentaziotzat, munduan ez du inork hori dudatzen. Bidezkoa ere bada. Problema, orduan, Euskal Herriak ere bere errepresentazio bezala ikusiko ote duen da, tratatu hasten direnean. Nola irabazi Euskal Herriaren apoioa. Gobernu bat, herriaren apoioa gabe, ez bait da inola ere Gobernu demokratikorik. Ala Monarkiak bezalaxe legitimatu behar du Euskal Gobernuak bere burua, antzinako historiaz.

Eta, hemen, ez zait iruditzen PNVk behinolako herri oldeen apoioaz eta entusiasmoaz konta dezakeenik bere alde, zerbait egiten ez badu.

Aide batetik, PNV da Euskal Herriko Alderdi «klandestinoena», euskal herriarentzat berarentzat ere klandestinoa. Ez dago garbi jakiterik PNV zer den. Zein ideario duen, esaterako. Alderdi zaharra da, ez dakigu zertan berritu den; ezer berritu ote den, ala zahartu bakarrik.

Zer ari den eta zer jokabide daraman, ez da gehiegi ikusten. PNVk ez al du Gobernuak dagiena besterik ezer egiten? Alderdia ez al da Gobernuan esertzen den horretatik kanpora deus? Gobernuak dagiena, kalean

asko ikusten denik ezin esango da. Baina, Gobernua aparte, zer da eta zer ari da Alderdia?

Bestetik ere, PNVren izena, herri mailan, oso konprometaturik gelditu da, alderdi hoberenetik azaldu ez duten zirimirri batzurekin. Ikasleetan cilijio hauziak eta sortzen zirenetan, istilu guztietan, postura kontserbazeleena eta itsuenak defendatzeko ateratzen zen PNV. Euskara batuaren inguruan, Euskaltzaindian, eta abar, berdintsu: PNVren izenez (edo mozo-roz) agertu direnok, ez dute paper oso distiratsua egin kultur mailan gehienbat (*Agur, Goiz Argi*), eta PNVren gomendio eskasa egin dute. PNVkoak badira bestelakoak ere. Baina halakotzat agertzen zirenenak, PNVren militantzia bizia ziruditenak, desastre hutsa ziren. Apenas puntu askorik irabazi duten PNVren alde kultur arloetako langile artean.

Astakeria haunditoxa gence, PNVko alderdizale denak zaku batetan sartzea. Beti egiten da, ez dakit zein oinarritz, PNVko buruzagitzaren eta «basearen» bereizkuntza. Buruzagiak ustelak direla esaten da; baseko jendea, jatorra. «Uno de los aspectos más contradictorios que el PNV presenta en este momento es el disentimiento profundo que se manifiesta entre muchos, diríamos la gran mayoría, de sus afiliados y simpatizantes, por una parte, y los portavoces y representantes oficiales de él, por otra». Sarri entzuten da hori.

Aldez aurretik meleziaz poztuz bezala, esaten da halaber: «ikusiko du Alderdiak, zein iskanbila harmatzen den, Batzarrea egin dezanean». PNV nola puskatan hautsiko dela, uste da... Absurdia iruditzen zait uste hori. Baina esan nahi du, ezkertiarrok esperentzia oso diferenteak egin dituztela PNVko buruzagiekin eta PNVko base jende askorekin, Eta, hain zuzen, hoberenak ez buruzagiekin, zenbait buruzagiekin.

PNV eta euskal frontea

PNV euskal indarretatik aislatu egin dela esango nuke, hortakoz. ETA, FHAS, ESB, LAIA, LAB-LAK..., PNVrekin haserre dabilta denak. Azkenik ELA bera ere distantziatu egin zaio, itxura duenez. Kultur mugimendu guztia ere PNVtik nahiko urruti dabilela, pentsa genezake. Aurre ona da Euskal Herriko «Alderdi nazionalarentzat»...

Agian horrek denak ez du ikaritzen PNV, «gaxteon» oso gainetik bait dago, bere maicstate soberanoan. Orain arte, behintzat, ez da dignatu «makurtzer» taldeok errekonozitzeko; taldeok, maiz, PNVren errekonozimendu piska bat, limosnatxo bat bezala, itxaro zutela zirudien arren.

Sarri abiatu izan dira konbertsazioak PNVren eta beste Alderdien artean. Sekula ez da ezertara heldu; edo eta, ezer egin bada, desegin ere laster egin zen egindako apurra (Aberri Egunetakoak, adibidez). Alderdiokin luzarorako programarik lantzeko, aldiz, PNVk gauza ez dela dirudi, edozergatik dela ere.

(Honek denak lehenagoko beste historio ezagun hura gogorazten digu: garai batetan Euskal Herrian karlismoa zen nagusi eta estankatu zen eta PNVk jo eta uzkali zuen; gero PNV zen nagusi eta...).

PNVk badaki, harekin kontatu beharra egongo dela. Madrilek harekin kontatuko duela (Madrilen edozeinek, Errege ingurukoek nahiz PCEk); eta, ezkerre zatikaturik dabilen artean bereberki, PNVrekin kontatu beharko duela Euskal Herriak ere.

Baina beste euskal indarretatik aislaturik dagoelakoxe, lehen unē batetan ukan ditzakeen bentajak, laster bihur dakizkioke desbentaja. Azkenean, PNVri eutsiko diona ez dago Madrilen.

Beti ere posible da, haren «momentu historikoa» datorrenean, iniziatiba irabaztea beste guztien aurretik eta besteok bere inguruan biltzea. Ez dakigu, zer gauden ikusleko. Baina ez da erraza egiten, hori dena sinestea.

Bere esperentziagatik eta, PNVri leku nagusi bat eta egiteko berezi bat tokatzen zaio euskal indar politikoen artean, denok dakigu hori. PNVk, haatik, ezin bete lezake bere betekizuna, olinpoan segitzen badu bera bakar-bakarrik, beste indarrok baztertuz. PNVk bere obligazioak herriaren aurrean eta beste Alderdien artean eta Alderdion buruan ikusi behar ditu. Situazioak PNV beste Alderdien buruan jartzen badu, buruan joateko eta buruarena egiteko da, ez bera bakarrik aritzeko.

Gero, problema moral bat eta problema demokratiko bat dago. Goian aipatu dugu: legitimazioarena. Euskal Gobernuaren jestioek ez dute moraliki eta demokratikoki deus balio, Euskal Herriaren zinezko errepresentazioz ari ez bada. Errepresentazio hori Euskal Herriak bakarrik eman diezaiolke; ez, Madrilek solaskide hautatu izanak, nolana hiko arrazoien historikoz dela.

Eta problema politikoa ere badago. PNV zihur egon liteke, bere erreibindikazio nazional gehienak Euskal Herriak apoiatuko dituela, inorenak baino ttipiagoak dira eta. Ezkerreko Alderdi guztiek haundiagoak eskatzen dituzte. Zailagoak, hortakoz. Alderdi «errealistena» PNV da. Hark eskatzen duen apurra, Euskal Herriak —euskal indar politikoez, behintzat— nahi lukeen gutiena da. Baina PNV-Gobernua oso ateka gaiztoan aurkituko da bere tratuetan, herriaren konfiantza eta apoio osoa gozartzen ez badu. Zenbat eta herri gehiago eta indar gehiago ukan atzean, are irmoago PNVren posizioa bere jestioetan. Jestio hauek egunoro-egunoro herriaren aprobazioa beharko dute gainera. Ezer ez dugu aurreratzen, jestioak hasi orduko beste Alderdi eta indar denak PNV-Gobernuari eraso batetan gainera badatozkio. Holako zerbaiten beldur izan liteke egungo egoera, hala ere.

Ezinbestekoa da euskal indarren Fronte bat. Abertzaleen Fronte bat, denak batera aritzeko, denak batera joan daitezen mugaraino, diferentziarik handik aurrera has daitezen, ez lehenago.

Baina zer ikuskizun dago oraindik oraingoz gure aurrean?

PNVren eta ezker indarren arteko «batasuna» geroz eta zailagoa bihurtzen ari da, nire ustez. Denbora gehiegi ari dira, elkarrengandik urruntzen lehenengo, elkarri erasoka eta mespretxuka gero, eta batak bestea ignoratzen azkeneko. Fronte nazionalen bat, ez dakit nola, behar-beharrezkoa du Euskadik. Eta elkar hartze taktikoak ez dira faltako gerora. Baina, hori aparte, PNV eta ezkerre bakoitza bere bidetik ibiliko dira eta, azkenean,

bata bestearekin buruz-buru enfrentatu beharko dute, zein Euskal Herrian nagusitu. Biek ez daukate nagusi izaterik. Baina bien bokazioa Euskal Herrian nagusi izatea da. Profeta izan gabe, daramagun bideak hori dakarrela ematen du, nolabait erremediatzen ez bada. Konfrontazio itsuenera eta gogorrenera goaz, ordea, zuzen-zuzen, biek hitzik ere egiten ez badute elkarrekin.

Batasuna, bitasuna, batasuna

Egiazki, bat bitan banatzen da. Euskal abertzaletasuna bitan banatu da, bi baino gehiagotan ere bai.

Ikusi du hori PNVk berak. Irujoren deklarazioen arabera (*Garaia-ri*), hauk lirateke PNVren lehenengo eginkizunak orain.

«1. La reorganización integral del PNV, de abajo arriba, preparándolo para cumplir su cometido histórico de conducir a la libertad nacional al pueblo vasco.

2. Estimular y producir la UNION vasca con la suma de cuantos acepten la democracia humana y la libertad nacional de Euskadi, en apoyo de una solución inmediata de orden autonómico que, desde el primer momento, afirma ambos postulados y los aplique sin desplazamientos».

Horixe opa diogu. PNVri baino lehenago, Euskadiri horixe besterik ezin opa diogulako. Eta lehenbaitlehen opa diogu hori. Aski berandu da.

Jakina, ez dugu amets egiten PNVren eta ezkerren Alderdi eta erakunde batasunean. Ez dugu uste, buru biontzako txapel bat egon litekeenik. Baina batasun modu asko da. Baten bat, behintzat, posible izanen al da, ia imposible badirudi ere.

J. A. O.

Sail honen asmoa

Jakin euskal kultur aldizkariak ez du bete gabe utzi nahi liburu-kritikaren alorrean bere ustez duen erantzunkizun bazterrezina, ongi jabetzen baita liburugintzak egungo euskal kulturaren dinamikan duen garrantziaz. Baina egiteko hori taxuz beteko badu, alde batetik aldizkariaren tasunak eta bestetik euskal liburugintzarenak eduki behar ditu kontutan.

Jakin, hiru hilabetez behin aterako den aldizkari bat da. Beraz, ez gara liburu argitaraberriez arituko. Are gehiago, euskal liburugintza oraindik batez ere harpidedunci esker mantentzen dela gogoan edukirik, irakurleak jadanik ikusirik edo bederen etxean dituen obrez aritu beharko dugu. Hildo berean, gogoan eduki beharko dugu, halaber, ohizko irakurleak ez duela suskribizioen bidez heltzen ez zaizkion liburuak erosteko ohiturarik. Bestalde, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko ahaleginetan, besteak beste, euskaldun kultoak behar dira: hauek osatzen dute mone-daren beste aldea. *Jakin*-ek euskaldun kultoen kultur aldizkaria izan behar duenez, euskaldun kultoen gidari gertatu beharko lukeela uste dugu.

Koordenada horien hildotik abiatutik, gure lan kritikoak euskal liburugintza kultur estrategia orokor baten barnean aztertu behar duela uste dugu. Ezin gaitzeko, beraz, literatur kritika huts batetara muga: literaturgintza ez da guretzat iharduki oso baten alde bat besterik izango.

Ikuspegi honetatik (eta bego hau diogunaren adibide bezala), euskaldun kulto orok gaurregun irakurri beharko lukeen liburuetatik bat *Saioka 4* dela uste dugu dudarik gabe. Beste hainbeste esango genuke *Natur Zientziak*-eko hitzaurre eta artikulu orokorrez. Alfabetatu izateak, orain eta gure artean, gure herriaren kultur dinamikari jarraitzea esan nahi du. Eskolatik pasa behar dugu, besteak beste, arrazoï simple bategatik: anartean eskolatik pasatzeko aukerarik ukan ez dugulako. Aipatu ditugun liburuak umentzat edo gai espezifiko batetaz arduratzen direnentzat direla uste izateak, ez dugula kultur dinamika horren zentzu sakona ulertu adieraziko luke.

Hartzten diren liburu guztien berri ere emango litzateke. Bestalde, eta horretan legoke berritasun bat, gure eritziz nahiko interesgarria, liburu bakoitzari ikur bat ezarriko litzaioke, giltz honen arauera:

- * * * * : Euskaldun kulto orok irakurri beharrezko liburua
- * * * : Guztiz irakurgarria (edo guztiz interesgarria)
- * * : Interesgarria (edo irakurgarria)
- * : Gomendagaitza

Euskal liburugintza 1976an

Joan M. Torrealday

Liburugintzaren abiadak herri baten kultur kondizioak, beharkizunak eta premiak adierazi ohi ditu. Bai, herri baten aut-pegia liburutan ere ikusten ahal da. Liburugintzaren eboluzioa eta barne-egitura aztertu behar horretarako.

1976ko liburugintzari begira, harritzen ez gaituen datu bat agertzen da nabarmen: euskaraz erabili gabeko gai asko gelditzen direla. UNESCOren klasifikatzea har dezagun, neurtzeko. Hango 23 gaietatik 14 ukitu dira euskaraz (ukitu, diot, eta ez tratatu, sailik gehienetan oso liburu guti agertu da eta). Egin dudan gai-sailkapenean ikus daiteke hori hobeto. Kontsolatzeko besterik ez bada ere, beste zenbait urtetan gutiago izan dugula esan beharra dago: 1961ean lau gai-sail tratatu genituen, 1974-ean hamar, esaterako.

Zeintzu falta zaizkigun? Betikoak, guti edo asko. Inportanteen artean, filosofia, zientzia politikoak, administralgo publikoarekikoa, deretxoa, medikuntz zientziak, nekazaritza gaiak, kirolak, etc. Hitz gutitan, bizitza publikoari, administralgoari, bizitza ofizialari dagozkien gaiak oro falta dira euskaraz. Honen arrazoa begien bistakoa da.

Erabili diren gaien artean ere, batetik besterako aldeak ikaragarriak dira. Gehien erabili den saila, literatura da, % 23ekin. (Kontu egin dezagun, 1960-1975 urteak osoan harturik, literaturaren proportzioa askoz handiagoa dela, alegia, % 41. Normaltzen ari bide gara: % 25en inguruan omen dabil herri

hazietako normaltasuna). Literatur sailean, literatur historia, kritika eta sorketa sartu ohi dira. Idazleen biografiak eta estudioak ere hor sartzen ditut nik, hala nola, Orixe eta Arestirekikoak. Literatur sorketako lanik gehienak Kriseluk atera ditu aurten ere; horien artean, Arestirenak, *100 metro* eta *Ziutateaz*.

1975etik edo hasita euskal liburugintzak duen datu berri berezietakoa hau da: irakaskuntzarako, haur eta gaztetxoek irakurketarako, euskara ikasteko pentsaturiko liburuak direla dezetan nagusi; liburu funtzionalak, beraz, kultur premiei hurbilagotik atxekiak. Liburugintza mota honetara lerratu dira editorialerik gehienak. Saioen erre-garaia joana da; krisian daude saiok. Zergatik krisian? Merkatua mugitzen ez delako. Saiakera liburuaren irakurleak ez dira ugaltu. Alfabetatzearen lana, ikastoletakoa, ez dira oraindik maila horretaraino iritsi: aldizkarien mailan dabiltzake.

Aipatu dugun funtzionaltasun hori eskatzen zaio gaur euskal liburuari. Hortik dator eskabidea. Irakaskuntzak eta honen inguruak, dela metodo eta textu gisa, dela gaztetxoek literatura gisa, mundu horrek irensten ditu libururik gehienak: *Alfabetatzen*, *Euskera mailaka*, *Euskera*, *Irakur*, *Saioka*, *Kristau Ikasbidea-k*, *Natur Zientziak*, «*Munduan zehar*» bilduma, *Gilen Tel*, *Asterix*, *Sandokan*, *Katalin Erauso*, *Harkaitz*...

1976ko liburu produkzioan aurreko urtean baino garrantzi handiagoa ukan du berrargitalpenak: % 5etik % 14era igaro da. Berezi ki klasiko zenbait (*Gero*, *Euskaldunak*) eta gramatika zahar zenbait atera dira berriz kalera. Bi eletan atera diren liburuak ere, erlatiboki ugari dira; original eta beste, % 16.

Lan originalak gelditu dira (zenbaki absolutu nahiz erlatibotan) aurreko urtekoen azpitik: 1975ean % 60 ziren originalak; 1976an, aldiz, % 55. Itzulpena, bere aldetik, % 31rekin dator, eta fenomeno inportantea da euskal liburugintzan. Berezi ki bitan banatzen da itzulpena: klasikoak itzultzea, bata; eta, batikpat, gaztetxoek literatura eskuratzea.

Datu guztiak oraindik bildu gabe badituz ere (1976ko lege gordailuarekin aurten ere libururik aterako bait da), badirudi 1975ekoa baino apalagoa izan dela 1976ko liburu produkzioa. 118 liburu eta 36 liburuxka atera ziren 1975ean, inoizkorik gehien; eta 1976an, nire zerrendatan, 95 liburu eta hamar bat liburuxka.

Obarra: Tituluaren ondoren eta kako artean, jakingarri hauk ematen ditut: *i* = itzulpena; *b* = berrargitalpena; *e* = elebikoa, bilinguea.

1976ko liburuak

Liburuaren gai-sailkapena	Zenb. abs.	%
1. — Orotarik. Haur eta gazte literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Gai ezberdinak	15	15,78
3. — Erlijioa. Teologia morala eta praktikoa, pastoralak, Eskritura Saindua	7	7,33
4. — Soziologia. Gizartearen eta gizarte zientzien filosofia, Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa	2	2,10
8. — Irakaskuntza. Eskolaurreko, eskolako eta goimailako irakaskuntza	7	7,36
9. — Komunikabideak. Garraioak	1	1,05
10. — Etnologia. Bizitza pribatu eta publikotako ohitura eta usuarioak. Folklorea, tradizio eta kondairak	7	7,36
11. — Hizkuntzalaritza. Filologiaren historia. Euskal hiztegi, metodoak, gramatikak	12	12,63
12. — Matematikak. Matematikak jeneralean, aritmetika	4	4,21
13. — Natur zientziak. Biologia, zoologia, botanika	3	3,15
15. — Injinaritza, teknologia. Injinaritza aeronautikoa	1	1,05
19. — Arte ederrak. Artearen filosofia, musika eta musikatresnak	2	2,10
21. — Literatura. Literatur kritika, antologiak, bertsoak, antzerkia, elaberria, olerkia, ipuina	22	23,15
22. — Geografia. Bidaiak. Bidaiak, aurkikundeak, ikerkuntzak, Euskal Herriko geografia	4	4,21
23. — Historia. Biografia. Euskal Herriaren eta honen historia, zibilizazioaren eta kulturaren historia, biografia, orotzapenak	8	8,42
Denetara	95	100

Al Jesus. R. Salzarbitoria. Kriselu. Donostia.

Alboka. J. M. Barrenetxea. Grafos. Bilbao. 107 or.

Asi-masiak (Irakurtzen eta idazten ikasteko izkuntza langaia) I (fitxak). M. Bilbatua, L. Ormazza, K. Pedroarena. Artezi. Donostia.

Asmakizunak eta aurkikuntzak (i). Askoren artean. Altea/Edic. Vascas. Donostia. 196 or.

Asterix. Buruzagien burruka (i). Gosciny/G. Aresti, J. M. Arrieta. Mas Ivars/I. Beobide. Donostia. 48 or.

Asterix-en ibilaldiak (i). Gosciny/G. Aresti, J. M. Arrieta. Mas Ivars/I. Beobide. Donostia. 48 or.

Asterix eta Kleopatra (i). Gosciny/G. Aresti, J. M. Arrieta. Mas Ivars/I. Beobide. Donostia. 48 or.

- Asterix legionarioa (i). Gosciny/G. Aresti, J. M. Arrieta. Mas Ivars/I. Beobide. Donostia. 48 or.
- Asterix eta normandoak (i). Gosciny/G. Aresti, J. M. Arrieta. Mas Ivars/I. Beobide. Donostia. 48 or.
- Asto baten malura. L. Iriondo. Gero. Bilbao. 20 or.
- Bat bitan banatzen da II. A. Irala. Etor. Donostia. 166 or.
- Bidaiak eta esploraketak (i). Askoren artean. Altea/Edic. Vascas. Donostia. 203 or.
- Boga ta Zixe/Rema y Cia. Ondarrutarkeriak/Temas de Ondarroa (e). A. Zubikarai. Graf. Ekin. Bilbao. 120 or.
- Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca I. (e). M. Sota, P. Lafitte, L. Akesolo. La Gran Enc. Vasca. Bilbao, 432 or.
- Chansons Basques. —. Euskal Elkargoa. Donibane Lohitzun. 264 or.
- Egaztiak. J. Arrizabalaga. GEU. Bilbao. 27 or.
- Eguzki ibiltaria (i). Diaz Plaja, Rius/X. Mendiguren. Galera/Cinsa. Barcelona/Bilbao. 163 or.
- Eiztari beltza. —. Cinsa. Bilbao.
- Etxabiztza eta ohiturak (i). Askoren artean. Altea/Edic. Vascas. Donostia. 207 or.
- Euskal Biblia (bizkaieraz) (i). J. Kerexeta. Bilboko Elizbarrutiko Gotzaintza. Bilbao. 1.896 or.
- Euskal Historian zehar (haurrentzat). —. —. —. 62 or.
- Euskal Ikasgu nagusi edo Unibertsitateaz. J. Lasa Apalategi. Graf. Itzaropena. Zarautz. 138 or.
- Euskal Kantak. —. —. —. 319 or.
- Euskal Kanta xorta. —. Beneditarrak. Lazkao. 64 or.
- Euskaldunak/Los Vascos (e/b). Orixe/J. I. Goikoetxea. Añamendi. Donostia. 373 or.
- Euskaldunak. Euskal Etnia. Askoren artean. Etor. Donostia.
- Euskara ikasteko metodoa/Método de Euskera (e). X. Gereño. Cinsa. Bilbao. 176 or.
- Euskara mailaka 1 (metodologia). SEIE. Gero. Bilbao. 136 or.
- Euskara mailaka 2 (metodologia). SEIE. Gero. Bilbao. 125 or.
- Euskara mailaka 3. SEIE. Gero. Bilbao. 123 or.
- Euskara: Hizkuntz ariketak. J. J. Zearreta eta Irakasle taldea. Cinsa. Bilbao. 279 or.
- Euskararen ideologiak -I-. Etorkiak. J. Juaristi. Kriselu. Donostia. 78 or.
- Euskera 1. E.G.B. I. Eguzkiza. L. Zugaza. Durango. 94 or.
- Euskera 1. Ariketak. I. Eguzkiza. L. Zugaza. Durango. 119 or.
- Eusko lurra. Euskalerriko lutelestia. I. Agirre. Etor. Donostia. 304 or.
- Gabriel Aresti -I-. A. Zelaieta. Kriselu. Donostia. 152 or.
- Gasteiz. D. Ibargoiti. Gordailu. Donostia. 28 or.
- Gero (e/b). P. Axular/L. Villasante. Jakin. Arantzazu. 742 or.
- Gilen Tel (i). Schiller/J. F. Setien. Gero. Bilbao. 127 or.
- Gizartea 6 (Geografia). Elkar lanean (J. A. Arbelaz). Gero. Bilbao. 152 or.

- Goimënditan zehar. A. Narbaiza. Gero. Bilbao. 153 or.
- Grammaire Basque (Dialectes Navarroy-Labourdins) (b). Abbé Arotçarena. Libr. Jakin. Baiona. 242 or.
- Gramática Vasca (b). J. Zabala Arana. —. Tolosa.
- Gramática Vasca 1 (e/b). R. Urrestarazu «Umandi». Kardaberaz. Tolosa. 584 or.
- Gramática Vasca 2 (e/b). A. Urrestarazu «Umandi». Kardaberaz. Tolosa. 208 or.
- Harkaitz, Elürri ari zueneko haurra. J. M. Arrieta. Gero. Bilbao. 139 or.
- Haurrak aitortza eta Jaunartze bidean (i). V. M. Pedrosa, A. Munarriz/J. M. Rementeria/Euskara batuz: S. Garmendia. Beneditarrak. Lazkao. 47 or.
- Hilargiko gizona. —. Marova. Madrid. 70 or.
- Irakur 5. A. Lertxundi, J. A. Arrizabalaga, M. P. Martiartu. Gero. Bilbao. 174 or.
- Itsaso ahantzia (poemak). K. Izagirre. Kriselu. Donostia. 61 or.
- Izar-arteke hegazketak (i). Askoren artean. Altea/Edic. Vascas. Donostia. 199 or.
- Jaka'ra oñez Naparroa'n zear. Latxaga. La Gran Enc. Vasca. Bilbao. 318 or.
- Jesus askatasuna bidean (i). Thivollier/Iker. Cinsa. Bilbao.
- Jesus, handiekin batera zuregana goaz (i). I. Arana, V. Pedrosa/A. Zugasti/Euskara batuz: S. Garmendia. S. M. Madrid. 77 or.
- Jon Miranderen idazlan hautatuak. Jon Mirande. Gero. Bilbao. 382 or.
- Kardala/Rompiente. Ondarroako gauzak/Cosas de Ondarroa (e). A. Zubikarai. Graf. Ekin. Bilbao. 96 or.
- Katalin Erauso. I. Azkune. Gero. Bilbao. 134 or.
- Kijote Mantxa'ko I. (i). Zerbantes/P. Berrondo, Itxaropena. Zarautz. 644 or.
- Komunikabideak (i). Askoren artean. Edic. Vascas. Donostia. 199 or.
- Kristalezko begia (i). A. Rdez. Castelao/K. Izagirre. Kriselu. Donostia. 63 or.
- Kristau Ikasbidea. III. (i). Secr. Nac. de Catequesis. Gráf. Héroes. Madrid. 112 or.
- Kristau Ikasbidea. 4. malla (i). Chumillas/A. Zugasti.
- Laiño-qdoletan (poemak). J. A. Etxebarria. Gráf. Telleria. Erandio. 59 or.
- Lana eta artegintza (i). Askoren artean. Altea/ Edic. Vascas. Donostia. 207 or.
- Lurraren bihotzeraino (i). J. Verne/I. Azkune. Gero. Bilbao. 159 or.
- Matematika 1 (fitxak) (i). GI Eren ardurapean. Casals.
- Matematika Hastapenak/Iniciación a la Matemática. B", C", D". F. Etxeberria, K. Zumalde. Gordailu. Donostia. 530 or.
- Milla euskal olerki eder. I-II (b). S. Onáindia. La Gran Enc. Vasca. Bilbao. 1.179 or.
- Morgan. I (i). E. Salgari/X. Mendiguren. Cinsa. Bilbao. 131.
- Morgan. II (i). E. Salgari/X. Mendiguren. Cinsa. Bilbao. 113. or.
- Muñagorri, Eskribaua, pakegille eta fuerozale (e). A. M. Labayen. Soc. Guip. de Edic. y Publ. Donostia. 412.
- Natur Zientziak. Hiztegia. Arántzadi/Jakin. Jakin. Arantzazu. 535 or.
- Natur Zientziak 6. A. Peiró Hurtado. Anaya. Bilbao.
- Natur Zientziak 7. A. Peiró Hurtado. Anaya. Bilbao.
- Nere aldia. M. Arozamena. Auspoa. Tolosa. 140 or.
- Obra guztiak. Poemak I. G. Aresti. Kriselu. Donostia. 521 or.

- Obra guztiak. Poemak II.** G. Aresti. Kriselu. Donostia. 519 or.
Odolaren mintzoa. Xalbador. Auspoa. Tolosa. 348 or.
Oier beltzuntzeko. X. Kintana. Cinsa. Bilbao. 17 or.
Oilarren promesa. J. M. Irigoien. Gero. Bilbao. 220 or.
Orhoituz. J. Mirande. Kriselu. Donostia. 103 or.
Orreagako gudua. J. M. Arrieta. Gordailu. Donostia. 28 or.
Ostolazaren Testamentua (i). Irakaskuntza eta aurrerapen aldeko alkartea. —. Deba. 236 or.
Saioka III. Projektuak eta gaiak". Iker. Cinsa. Bilbao.
Saioka III. Osagarriak eta ariketak". Iker. Cinsa. Bilbao
Saioka IV. Sozial arloa. Iker. Cinsa. Bilbao. 215 or.
Saioka IV. Osagarriak eta ariketak. Iker. Cinsa. Bilbao. 223 or.
Sandokan (i). E. Salgari/Iker. Cinsa. Bilbao. 140 or.
Santa Grazi (Pastorala) (e). J. Casenave/Eusk. Bat.: J. A. Aduriz/Frant.: O. Idiart. Jakin. Arantzazu. 175 or.
Sasoia joan da gero. Uztapide. Auspoa. Tolosa. 357 or.
Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca. Euskaltzaindia (e). —. Servicio de Publ. del Minist. de Ed. y Ciencia. Madrid/Bilbao. 176 or.
Sorterriaren alde. A. Irigoien. Kriselu. Donostia. 109 or.
Sustraietan. A. Elizegi. Jakin. Arantzazu.
Tekniko-Industrial hiztegia (e). —. Danobat. Elgoibar.
Txano Gorritxo (i). —. Cinsa. Bilbao.
Ugaztunak. J. Altuna. Gordailu. Donostia. 28 or.
Ustu ezin zan ganbara. Txirritaren zenbait bertso eta gertaera. A. Zavala. Auspoa. Tolosa. 141 or.
Zer dugu Orixe-ren kontra? J. Azurmendi. Jakin. Arantzazu. 183 or.
Ziutateaz I. B. Atxaga. Kriselu. Donostia. 94 or.
Ziutateaz II. B. Atxaga. Kriselu. Donostia. 118 or.
Zorion bidea (b). M. M. Zubiaga. Gráf. Izarra. Donostia. 122 or.
Zortzi urte arteko ikastola hiztegia. Euskaltzaindia. Gráf. Valverde. Donostia. 153 or.
W. Shakespeare 6. Odol-antzerkiak-B (i). B. Larrakoetxea. Kardaberaz. Tolosa. 293 or.
100 metro. R. Saizarbitoria. Kriselu. Donostia. 99 or.

Unibertsitateetako Euskal Kultur mugimenduak, Bizkaian

Sorrera

1973. urtea izan daiteke Unibertsitateetako Euskal Kultur Taldeak sortzen hasi zireneko unea, batez ere Bilboko Distritoan. Ez da kointzidentzia hutsa Udako Euskal Unibertsitatea ere urte berean sortua izatea. Gertaera biak daude nahiko elkarri lotuak, prozesu berdina izanik, momentu hartako giro berezi baten ondorio bait dira.

Alde batetik, nabaria zen Euskal Unibertsitate baten hutsunea. Gure Fakultateek ez zuten euskal nortasunaren aztarrenik, euskara bera halako erdi-fosil baten gisa ikusten bait zuten gehienek, baliogabea eta errekuperagaitza. Zenbait unibertsital kargudun errespetagarriren ahotik entzuniko «el euskera no es vehículo de cultura» eta antzeko bitxikeriek ezin hobeki ematen dute egoera honen berri.

Bestetik, burruka derrigorrez maximalista baten ondorioz, euskal kulturak toki bat lortzen du legalitate mailan. Ikasle mugimenduak kultur arlotik pasa behar duenez, ikasle abertzaleak EKTren inguruan batzen dira. Beraz, EKTk, erakunde bezala, burruka baten ispilu bilakatzen dira.

Ekintzen prozesua

Egoera horretan, EKTk ekintza konkretu bati lotu zitzaizkion: Euskal Unibertsitaterako lehen urrats bezala, Euskal Herriko erdal Unibertsitatea euskalduntzeari, alegia. Bi sailetan banatzen da, batez ere, haserako lana: euskal ikastaroak, eta euskal giroa sor-

tzeko eratu diren hitzaldi nahiz jaialdiak. Euskara irakastea Unibertsitate mailako lana ez dela jakin arren, errekuiperatze prozesu batetan beste irtenbiderik ez dagoenez, EKT guztiek hari eman diote garrantzirik handiena. Erdi inprobisatuz hasi ziren eskola haik, hiru-lau urtetan ia ikastaro ofizial bihurtu dira zenbait fakultatetan.

Hala ere, gure helburu bakarra ez da euskara irakastea; aitzitik, beste zerbaitetarako medio gisa dakusagu, hau da, euskara Unibertsitate mailan erabil ahal izateko. Baldin Udako Euskal Unibertsitatea, fakultate bakoitzean kurtsu osoa zehar egiten den ikerkuntza lanaren agerpena bada, oso argi ikusten dugu alde horretatik EKT guztiek bete behar duten zuloa. Fakultate bakoitzean, bertan irakasten diren espezialitateak euskaraz lantzea, euskara tekniko bat elaboratuz joatea, biharko irakasle koadroak hornitzea. Mintegiak dira, bereziki, honetarako ditugun lanabesak. Euskaraz lana sortzen duten mintegiok finkatzea dateke gaurregun gure ekintzarik nagusienetako bat.

Epe labur batetarako erreibindikapenak

Nahiz eta EKT bakoitza bere gisara sortua izan, berehala naritaritu zen haien arteko harreman baten premia. Sortu zen koordinaketa, elkarren berri jakiteko eta ekintzak ez nahasteko izan zen gehienbat. Bilbo mailan gutienez, aurrera doa gaur koordinaketa hori, eta Euska! Herriko beste probintzietara heda dadin pauso batzu emanak dira.

Aurtengo kurtsuaren haseran, Bilbo inguruko koordinaketak lau puntutan agertu ditu epe labur batetarako erreibindikapenak. Bizkaitatik kanpo dauden beste EKTetara zabaldu dira, diskuti dituzaten. Puntuak hautatzean erabili dugun kriterioa, pragmatikoa izan da: horik lortzeko posibilitatearena.

1. Hego Euskal Herriko lau probintzietarako Distrito bakarra.
2. Distrito hori osatzeko behar diren fakultate berriak.
3. Euskal Departamentu bat fakultate bakoitzean.
4. Euskararen ofizialtasuna.

L. E. K. T. (Lejoako Euskal Kultur Taldea: Medikuntza)

Orain dela bi urte, hau hirugarrena da eta, eman ziren lehen urratsak Medikuntz Fakultatean EKT bat sortzeko.

Legalizatzea, EITrena ikusi eta gero egin zen. 1974.eko urrian zen hori. Oztoporik ukan dugu, noski. Lehen, ekonomikoa. Lehen subentzioa, 30.000 pezetakoa, duela hiru hilabete heldu zaigu, nahiz eta gure lehen presupostua 100.000koa izan.

Gure historia zehar, urrats batzu emanak ditugu. Lehen urtean oso jende guti ibili zen. Ekintza aldetik, euskarazko klaseak eman eta hitzaldi batzu antolatu baino ez zen egin.

Gero, mintegi batzu hasi ziren, Euskal Herriko Medikuntzaz, oraindik jarraitzen direnak.

Joan den urtean, zerau planteatu genion geure buruari: Euskal kultura zabaltzeko, euskara ofizialtzea lortu beharko dugu. Inkesta bat egin zen, gure fakultatean zenbat euskaldun dauden jakiteko. Gero firmak bildu ziren, eta Euskal Departamentua eskatzera joan ginen dekanorengana.

Aurten, taldea zabaltzea nahi genuke. Horretarako, orain arteko okerrak zuzendu gura ditugu. Alegia, medikuntzako lehen asterako propaganda gehiago egin dugu, eta Mintegiei ere berri gehiago helarazten diegu.

E. I. T. (Sarriko-ko Euskal Ikaskuntz Taldea)

1973-1974 epean egindako lanaren fruitu bezala sortzen da Sarriko-ko Euskal Ikaskuntz Taldea. Hasera batetan, euskarazko klaseek edukiko dute garrantzirik handiena eta hauk sendotzera abiatuko da EIT. Epe berean, eta nolabait plazaratzeko asmoz, Euskal Herriko Ekonomiari buruzko Aste bat antolatzen da; probintzietako egitura ekonomikoak aztertzen dira.

Hurrengo ikastaroan hasten da legalki funtzionatzen; ekintzak: euskarazko klaseak, UEUra zuzendu Mintegiak, jaialdiak. Gauzarik garrantzitsuena, beharbada, bazkideentzat antolatu zen hitzaldi sorta izan zen: Iñigo Aguirre eta «Lana» kooperatibaren zuzendaria izan genituen geure artean, Deba bialara eta Nekazaritza aztertuz.

1975-1976 epean, ekintzarik inportanteena, «Fueros, Estatutos, Concier-tos» gaiari buruzko Aste bat izan zen.

Gero eta garrantzi handiagoa eman nahi diegu Mintegiei, Unibertsitatearen eta Euskal kulturaren zutabetzat kontsideratzen bait ditugu.

ENBOR (Ederti Eskolako Kultur Taldea)

1975-1976 kurtsorearen haseran, Ederti Eskolako ikasle talde batek euskal kulturaren alde lan egiteko asmoa ukan zuen. Taldearen batzar batetan, 1976.eko Otsailaren 17an, haren estatutuak onartu ziren, Erretoreari bidaltzeko.

Eskola hau Fakultaterik ez zela eta, ez zizkiguten estatutuak onartu. Berri hau eman zigutenerako, ikasturtea azkenetan zegoen, eta ez genuen ekintza praktikorik egin. Gaurregun, eskolako ateez barrura legezatuak

gaude. Hala eta guztiz ere, Unibertsitatean legezatzzea nahi genuke, EKTen konfederazio batetan sartu nahi bait dugu.

Gure aurtengo ekintza bakarra, hasi diren euskarazko klaseak bultzatzea izan da.

E. K. M. (Deustuko Euskal Kultur Mintegia)

Deustuko Unibertsitateko Euskal Kultur Mintegia, 1968. urtean sortu zen, bertako ikasle eta irakasle euskaltzale abertzale batzuren kemenak bultzata. Hastapenetako helburua, euskara irakastearena eta euskal kultura unibertsitariaren oinarriak finkatzearena izan zen.

Ikasle mugimendu berriak, biziki lagundu zuen lan horretan. Haien jokabidea gogortuz joan zen eta, honen ondorioz, krisialdi sakon batetan sartu zen Mintegia.

Jarraitzaileek, nahiz eta hastapenetako lan apalenetan hasi —euskara irakatsi, alfabetatzea, jaialdiak...—, pittinka-pittinka zabaldu egin zuten gure ekintza arloa: zentral nuklearrez, komunikabideak, mural erakusketak...

Egun, E. K. M. erabat irekia dela esan dezakegu. Dударik gabe, azkenaldi honetan kultur arloetatik zuzendua da ikasle mugimendua, eta gero eta zabalagoa dugu Euskal Herriaren aldeko erakundeen lana. Badugu benetan Euskal Unibertsitatearen oinarriak ezartzearen beharra.

E. K. T. (Euskal Kultur Taldea: Ingeniaritza Teknikoa)

E. K. T. hau sortu berria da. Eta, horregatik, gauza guti egin du. Zergatik jaio da? Arrazoin simple bategatik: Euskal Herriak eta batez ere gure fakultateak eskatzen zuelako.

Egitekoak: gure lehen arazoa, euskara plazaratzea da. Eta, horregatik, ikastola mailan lanean ari gara.

Liburutegiak nahi, behar ditugu.

Gure problematika: gehienbat ekonomikoa, noski.

Erreibindikapenak: Direkzio demokratiko bat, Euskal Herriarentzat elebitasuna, Euskal ikasle sindikatua, Estatutuak ikasleen eskuetan jartzea, Euskara ofizialki onartua dadila, Euskal Unibertsitatea, Amnistia orokorra, Herri askatasuna.

E. K. A. (Euskal Kultur Alkartea: Majisterio Eskola)

Majisterioko eskolan, 1974-75 ikastaroan, lagun batzu bildu ziren kultur talde bat egiteko asmoz. Batzuek euskararako mintegi bat jarri nahi zuten elkarte barruan. Baina beste batzuk pentsatzen zuten, Euskal Herrian bizi zirenez gero, euskal kultura zaindu behar zutela eta, horretarako, euskara potentziatzen hasi. Honela sortu zen E. K. A. (Euskal Kultur Al-

kartea). Nahiz eta ofizialki onartuak izan, oztopo asko eduki ditugu orain arte: ez genuen bulegorik, ez euskarazko klaseetarako lokalik; zuzendaria ez zigun baimenik ematen hitzaldi aretoa irekitzeko edo jaialdiak eta hitzaldiak antolatzeko klase orduetan (klaseak goizeko 8,30etan hasten dira eta arratsaldeko 9etan bukatzen). Erretoreak ere ez digu bi urte hauetan subentzioa ordaindu.

Aurten (1976) Erretore berria eta, Majisterion, zuzendari berria izan dira ezarriak. Hauekin, eskatzen genituen gauza batzu azkenik lortuak ditugu:

1. — Nahiz eta oraindik probisonala, badugu bulegoa.
2. — Euskarazko klaseak ofizialki ezarriko dira: E. K. A. k antolatu ditu Euskaltzaindiaren laguntzaz, eta Erretoreak ordainduko ditu. Hala ere, ordu librean ematen dira.

Hurrengo urterako, euskara klase orduetan jartzen eta, beste Euskal Herriko eskoletan bezala, euskararen katedra bat lortzen saiatuko gara.

Z.-E. K. T. (Zientzi Fakultateko Euskal Kultur Taldea)

Noiz sortu zen: 1974-75 kurtsoan onartu ziren taldearen estatutuak. Medikuntza eta Zientzi Fakultateen artean E. K. T. bat egiteko asmoak izan ziren, baina Unibertsitateko legeak ez zuen horretarako posibilitaterik ematen.

Kurtso hartan euskarazko eskola bakar batzu antolatu ziren.

75-76: Taldea finkatzen da. Helburuak, euskal giroa sortu eta euskara hedatu. Urteko ekintzak:

- Euskal ikastaroa, euskalduntze eta alfabetatze maila guztietan.
- Zientzi Mintegiak, euskara teknikoak zientzi gaiak erabiltzeko dituen eragozpenak eta bideak aztertuz.
- Inkesta bat egin. Inkesta honek euskal kontzientzia handia sortu du bertako ikaslegoaren artean.

76-77: Urte honek bi berezitasun ditu. Bata, euskara irakasteko astean hiru ordu, programaketa ofizialaren barruan; bestea, inoiz euskal departamentu izan daitekeen «Euskara Zientifikoaren Komisioa» lortzen da.

Euskal ikastaroa, 400 baino ikasle gehiagoz hasten da.

Beste asmoak: Mintegiak (Natur Zientzia, Fisika eta Kimikarena).

E. K. T. (Euskal Kultur Taldea: Entrepresa Ikasketen Ikastetxea)

1975.eko Apirilean sortu zen E. K. T. bat antolatzeko ideia.

1975.eko Irailean, legalizatua izan zen oztopo barik.

1976.eko Urtarrilean, bere ekintza hedatzen hasi zen (orduan zegoen zuzendariaren dimisioa zela eta, beste denek eskuak garbitu bait zituzten).

1976.eko Otsailean, beste elkarterekin konpartituriko aretoa eman zигuten eta Eskolak ordaindutako euskarazko klaseak hasi ziren.

(75-76) Urte horren lana, E.K.T.a ezagutaraztean oinarritu zen.

(76-77) Urte honen lana, Euskal Herriaren kontzientzia bat lortzen oinarrituko dugu.

Oztopoak: Eskolaren aldetik, aretoen falta eta ekintzak klase ordutan egiteko zuzendariaren betiko ukapenak.

Eta jendearen aldetik, ezinezkoa da ekintzei iraunkortasun bat ematea, nahimenez erreinuari itsatsirik dagoenez.

I. E. K. T. (Injenieri Eskolako Kultur Taldea)

Eskolako egoera oso tamalgarria zen, ez bait zegoen euskal kultur mugimendurik. Euskaldun gazte batzuk, honen premia ikusirik, talde ttipi eta itxi bat osatu zuten orain dela zazpi urte. Bost urtez iraun zuen egoera honek, gehiago zabaldu arte. Nahiz eta lanean ihardun, ez du egun arte ofizialtasunik lortu. Ikastaro honen haseran, zuzendariarengandik baimena iortzea dugu lehen helburua. Nahiz eta baimenik lortu ez, lan batzu hasi ditugu, euskarazko eskolak garrantzitsuenak izanik. Eta gure asmoa, hitz teknikoei buruzko mintegi bat finkatzea da. Oraindik I. E. K. T. zabaldu beharra ikusten dugu. Hau aurrera eramateko, interesgarria izanen litzateke, klase bakoitzean talde bat osatzea. Horrela, I. E. K. T. talde hauen biltzarrea izanen litzateke, soilik.

I. O.: Talde bakoitzak emandako informazioz osatu dugu *dossier* hau.

JAKIN

euskal unibertsitateak

P. Agirrebaltzategi J. L. Lizundia
J. A. Artamendi K. Mitxelena
 Idazkaritza K. Santamaria
J. M. Larrazabal J. M. Torrealday

Irlandan politika eta hizkuntza
Kultur taldeak Bizkaian
1976ko euskal liburuak
JAKIN berriz
PNV eta euskal indarrak

Urtarrila
Martxoa



1977

Garaudy gure artean • LABen Biltzarrea • Euskal Eliza: aukera berri bat • Lurralde sozialistetakoko oposizioa • Politika ekonomiaren aurka? • Alderdi politikoaren dirua • Diputazioak Euskal Herrian

1956aren udazkenean agertu zen lehen-dabizikoz **Jakin** aldizkaria. Gerraosteko belaunaldiaren lehen kultur langintza autonomoa izan da. Hizkuntza trebatzea eta kultura berria sortzea ziren haren asmorik behinenak.

Handik 20 urtetara birsortzen da **Jakin**, traba guztien gagnetik, bi aldiz gelditu-arazia, azkenekoa zazpi urtetan, izan ondoren.

Garaian garaikoa izan da **Jakin**: gaur, gaurkoa. Etorkizunaren alde jokatu du beti.

Euskal Herriaren kultur aldizkaria izan nahi du **Jakin-ek**.

JAKIN

aldizkaria • Cuartel, 2 • Tolosa (Gipuzkoa) • tel. 65 11 06

Urteko suskripzioa: 500 pta. Alea: 175 pta.